En el Capítulo 2 se recoge una detallada exposición sobre los criterios de distribución institucional de los recursos derivados de la gestión del Concierto Económico.

7. EL ÓRGANO DE COORDINACIÓN TRIBUTARIA DE EUSKADI

La Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, posteriormente modificada por la Ley 4/1998, responde a la necesidad de dar cuerpo legal y articular los principios que en materias tributarias deben regir la actuación de las Instituciones de los Territorios Históricos.

Por un lado, el artículo 41.2.a) del Estatuto de Autonomía señala como las instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, el régimen tributario, atendiendo a las normas que para la coordinación, armonización fiscal y colaboración con el Estado se contengan en el propio Concierto, y a las que dicte el Parlamento Vasco para idénticas finalidades dentro de la Comunidad Autónoma.

Así mismo, el Concierto Económico en su artículo 2 establece como uno de los principios generales del sistema tributario de los Territorios Históricos la coordinación, armonización fiscal y colaboración entre las Instituciones de los Territorios Históricos según las normas que, a tal efecto, dicte el Parlamento Vasco.

La Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, también conocida como Ley de Territorios Históricos, recoge en su artículo 14.3 estos dos elementos a los que hace referencia de forma permanente. Por un lado, la necesidad de que las disposiciones que dicten los órganos forales competentes, en el ejercicio de la potestad normativa reconocida en el Concierto Económico, regulen de modo uniforme los elementos sustanciales de los distintos impuestos. Por otro, la previsión de que el Parlamento Vasco proceda al desarrollo de las normas de armonización fiscal, coordinación y colaboración entre los Territorios Históricos.

La Ley 3/1989 ha optado por abordar las medidas de carácter armonizador garantizando de forma respetuosa las competencias de las Instituciones de los Territorios Históricos, evitando que las medidas

uniformizatzen saiatu da. Lege horren artikuluek orokorrean zehazten dituzte zein gai harmoniza ditzakeen Eusko Legebiltzarrak; hau da, zein gaik eragin diezaiekeen zerga-tresnen funtsezko elementuei, gai horietan foru-erakundeek dituzten ahalmen araugileei erreparatua.

3/1989 Legeak Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoa ere eratu zuen. Organoaren eginkizuna aldundien arteko koordinazioa sustatzea da, zergak eraginkortasunez arautzeko eta kudeatzeko.

7.a. Eraketa, eginkizunak eta antolaketa

Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoaren eratzeko, erakunde komunen eta lurralde historikoen arteko harremanen harian sortutako beste organo batzuk eratzeko egitura paritarioa erabili da. Ogasuneko eta Herri Administrazioko sailburuak (Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoa sortzea onartu zenean, Ogasuneko eta Finantzetako Saila zen) hiru ordezkari izendatzen ditu, eta horietako bat Organoko presidentea izango da. Halaber, foru-aldundiek ordezkari bana dute Organo horretan.

Maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak arautzen ditu Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoaren eginkizunak. Hauek dira eginkizunok:

- Foru-aldundiek zergen inguruan dituzten eskumenak egikaritzean, beren arteko koordinazioa eta lankidetza sustatzea, zergen kudeaketan eraginkortasun hobea lortze aldera.
- Hargonizagarriak diren arloei buruzko foru-xedapenen proiektuekin, izaera orokorrekoak, zerikusia dutenen inguruko txostenak egitea.
- Zerga-arloan Autonomia Erkidegoko erakundeek edo lurralde historikoetako foru-organuek eska dizazkioten txostenak egitea.
- Zergak lurralde bakar batean ordaintzen dituzten subjektu pasiboen edo atxikitzaileen errolda egitea.
- Ikuskaritza-plan bateratuak egin eta horien jarraipena egitea.
- Kontsulta lotesleei buruzko txostenak.

implicaran de hecho la uniformización de los sistemas tributarios de los Territorios Históricos. El articulado de la Ley determina de forma general las materias que pueden ser objeto de armonización por parte del Parlamento Vasco, y que afectan a los elementos sustanciales de las figuras tributarias, en función de la diversa capacidad normativa que en cada una de las mismas ostentan las Instituciones Forales.

También, la Ley 3/1989 crea el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi. Su función es impulsar la coordinación entre las Diputaciones para lograr una mayor eficacia en la regulación y en la gestión tributaria.

7.a. Composición, funciones y organización

La composición del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi es un reflejo de la estructura paritaria que se repite en otros órganos de relación entre las Instituciones Comunes y los Territorios Históricos. Tres es el número de representantes nombrados a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública (Hacienda y Finanzas cuando se aprobó la creación del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi), uno de los cuales será el Presidente, y un representante por cada Diputación Foral.

Las funciones del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi se relacionan en la propia Ley 3/1989, de 30 de mayo, y son las siguientes:

- Impulsar la coordinación y colaboración entre las Diputaciones en el ejercicio de sus competencias tributarias para lograr una mayor eficacia en la gestión tributaria.
- Emitir informes en relación con los proyectos de disposiciones forales de carácter general relativos a materias objeto de armonización.
- Emitir cuantos informes le sean solicitados por las Instituciones Comunes o por los Órganos Forales de los Territorios Históricos, en materia tributaria.
- Registro de los sujetos pasivos o retenedores que centralicen el cumplimiento de sus obligaciones fiscales en un solo territorio.
- Elaboración y seguimiento de los planes conjuntos de inspección.
- Informes sobre Consultas Vinculantes.

- Euskal Ogasunaren jarduerari buruzko Urteko Txostena argitaratzea, kudeaketari eta ikuskaritzari buruzko informazioa biltzen duena.

- Lege honek zein beste guztiek agintzen dizkiotenak.

Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailak emango dio Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoari azken horrek lan egiteko behar duen laguntza teknikoa eta administratiboa. Orain artean, Ogasun eta Herri Administrazio Saila izan da horren ardura izan duena.

7.b. 2006 ekitaldiko jarduerak

2006an 11 lan-bilera egin ziren, aurrez gai-zerrenda zehaztuta. Ondorengo hauek dira, besteak beste, EAEko Zerga Kideketarako Sailak landutako gai nagusiak:

Zerga-arloko arau-proiektuen azterketa

Foru-arauei buruzko hainbat proiektu aztertu dira. Horien artean, garrantziaren arabera azpimarratzekoak dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aldatzeko proiektuak (aldaketok indarrean dira 2007ko ekitalditik aurrera) eta 2006rako zerga-neurriei buruzko proiektuak. Neurri horien artean, besteak beste, honakoak aurreikusi ziren: tarifa %2 jaistea eta Ondarearen gaineko Zergan salbuetsitako gutxienekoa eguneratzea, eta %2ko ehuneko hori bera aplikatuta eguneratzea Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren katastro-balioak, bai eta Pertsona fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga eguneratzeko koefizienteak ere.

Bestalde, zerga-arloko foru-araudia lurralde erkidean egindako aldaketetara egokitu beharra dago, eta egokitze horren jarraipena egin da, Ekonomia Itunak eta Erkidegoko ordenamenduak hala ezartzen duten gaietan. Aldaketak zuzeneko zergetan egin dira, batez ere, eta BEZari eta zerga bereziei eragin diete, nagusiki. Era berean, zerga-arloan ondorioak dituzten Estatuko Administrazioaren neurri- edo egintza-proposamenek EAEn eragin ditzaketen ondorioak aztertu dira.

Kontsultei buruzko txostenak

Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzako maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 14. artikulua

- Publicar un Informe Anual Integrado de la actuación de la Hacienda Vasca donde se proporcione información relativa a la gestión e inspección.

- En general, las demás funciones que le encomienden las leyes.

El Departamento correspondiente del Gobierno Vasco debe procurar al Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi el apoyo técnico y administrativo necesario para el ejercicio de sus funciones. El Departamento de Hacienda y Administración Pública ha venido siendo el encargado de asumir estos cometidos.

7.b. Actividades en el ejercicio 2006

Durante el ejercicio 2006 se convocaron 11 reuniones de trabajo con un orden del día previamente establecido. Las principales cuestiones abordadas por el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi fueron, entre otras, las siguientes:

Análisis de proyectos normativos de naturaleza tributaria

Se han analizado diversos proyectos de norma foral entre los que destacan por su importancia los de la reforma del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas con efectos a partir del ejercicio 2007 y los de medidas tributarias para el año 2006 en los que se contemplaban, entre otras medidas, la deflactación de la tarifa en un 2% y la actualización del mínimo exento en el Impuesto sobre el Patrimonio y actualizar con ese mismo porcentaje del 2% los valores catastrales del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y los coeficientes de actualización de los valores de adquisición del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades.

Por otra parte, se ha realizado un seguimiento de la necesaria adecuación de la normativa tributaria foral a las modificaciones introducidas en territorio común en aquellos aspectos en que el Concierto Económico y el ordenamiento comunitario así lo establecen. Las modificaciones se han realizado fundamentalmente en el ámbito de la imposición indirecta, afectando en especial al IVA y los Impuestos Especiales. Asimismo, se han analizado los efectos que para la CAPV podrían derivar de diferentes propuestas de medidas o acciones de la Administración del Estado con implicaciones tributarias.

Realización de informes sobre consultas

A los efectos del artículo 14 de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y

betez, Foru Ogasunei aurkeztutako kontsulta lotesleei buruzko hamabi txosten egin dira. Halaber, Ekonomia Itunaren 64.b artikuluak agindutakoa betez, kontsultei erantzuteko bost proposamen aztertu dira, Ekonomia Itunaren lotura-puntuak aplikatzeari buruzkoak.

Colaboración Fiscal se han emitido doce informes sobre las consultas vinculantes presentadas a las Haciendas Forales. Así mismo, a efectos del artículo 64.b del Concierto Económico se han analizado cinco propuestas de contestación a consultas sobre la aplicación de los puntos de conexión del Concierto Económico.

Argitalpenak

Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua egin da, Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzako 3/1989 Legearen 17. artikuluak agindu bezala. Izan ere, artikulu horrek ezartzen duenez, Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua egitea da EAEko Zerga Kideketarako Sailaren eginkizunetako bat. Halaber, Gaceta Tributaria del País Vasco-Zergak aldizkariaren bi ale argitaratu dira.

Publicaciones

Se ha elaborado el correspondiente Informe Anual Integrado de la Hacienda Vasca previsto en el artículo 17 de la Ley 3/1989 de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, que establece como una de las funciones a desempeñar por el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi, la publicación de un informe de la Hacienda Vasca con periodicidad anual y con carácter integrado. Así mismo, se publicaron dos nuevos números de la Gaceta Tributaria del País Vasco-Zergak.

Jarduera espezifikoak

Gai espezifikoei buruzko ikerketak egin dira (hala nola, Sozietateen gaineko Zerga aldatzeari buruzkoa), eta Estatuko Administrazioarekiko elkarlanean aurrera egin da hainbat gaitan (helbide-aldaketak, eskuduna ez den Administrazioari egindako diru-sarrerak, zergen kontrola, akta bakunak eta BEZaren iruzurra). Elkarlan horren ondorioz, hainbat hitzarmen sinatu dira AEAT eta Foru Aldundien artean.

Horrez gain, gastu fiskalen aurrekontua egin da, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Aurrekontu eta Gastuen Idazkaritza Nagusiarekin elkarlana gauzatu da, BEZaren oinarri harmonizatua ezartzeko, Espainiako Estatuak Europar Batasunaren aurrekontuari egin beharreko ekarpenari begira.

Actuaciones específicas

Se han realizado estudios sobre materias específicas como la reforma del Impuesto sobre Sociedades y avanzado en la coordinación con la Administración del Estado en materias diversas como los cambios de domicilio, ingresos en Administración no competente, control tributario, actas únicas y tramas de IVA que han concluido en la suscripción de los correspondientes acuerdos entre la AEAT y las Diputaciones Forales.

Además, se ha elaborado el correspondiente presupuesto de gastos fiscales y se ha colaborado con la Secretaría General de Presupuestos y Gastos del Ministerio de Economía y Hacienda para la determinación de la base armonizada del IVA a los efectos de la contribución del Estado español al Presupuesto de la Unión Europea.

Ekonomia Itunaren aldaketak

Azterketak egin dira, Ikatzaren gaineko Zergak eta BEZaren entitate-taldearen araubide berezi berriak lotura-puntua zein duten erabakitzeko. Adostu ondoren, Ekonomia Itunaren Itunean txertatuko da, 12/2002 Legea aldatuta (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartzen duena).

Modificaciones en el Concierto Económico

Se realizan análisis para determinar el punto de conexión para el nuevo Impuesto sobre el Carbón y el nuevo régimen especial del grupo de entidades del IVA, a efectos de su concertación e incorporación al Concierto Económico mediante la modificación de la Ley 12/2002 por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

II. Kapitulua

Euskal Autonomia Erkidegoko finantziazio-sistema sarrera

Capítulo II

Introducción al sistema de financiación del País Vasco

1. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko finantzazio-sistemaren ezaugarri nagusia, aurreko kapituluan adierazi den moduan, haren zerga-sistema propioko zergak biltzeko ahalmena da. Horren bidez, lagundu egiten dio Estatuari, Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen eskumenetako gaiei dagozkien gastuak finantzatzen.

EAEko Herri Administrazioek zerga-ordainarazpenaren arloan dituzten eskumenak erabiliz lortzen dituzte jarduerak finantzatzeko baliabide gehienak. Gainera, Estatuarekin doitzen dituzte, alderdi finantzarioan, Balio Erantsiaren gainerako Zergaren eta Fabrikazioko Zerga Berezien diru-bilketak, kapitulu honetan aztertzen den moduan. Bestalde, baliabideak jasotzen dituzte Europar Batasuneko zenbait funtsetatik, diru-sarrera finantzarioak eta ondarezkoak lortzen dituzte, eta zorpetze-eragiketak egin ditzakete, legez araututako

1. INTRODUCCIÓN

La Comunidad Autónoma de Euskadi, como se muestra en el capítulo anterior, dispone de un sistema de financiación cuya característica principal está constituida por la capacidad de recaudar los impuestos que conforman su propio sistema tributario, contribuyendo a financiar los gastos del Estado en aquellas materias cuya competencia no ha sido asumida por el País Vasco.

Las Administraciones Públicas del País Vasco para financiar su actividad obtienen buena parte de los recursos mediante el ejercicio de las competencias exaccionadoras. Además, ajustan financieramente con el Estado la recaudación por el Impuesto sobre el Valor Añadido y por los Impuestos Especiales de Fabricación, en los términos que se analizan en este capítulo. Por otra parte, perciben recursos de diversos fondos de la Unión Europea, obtienen ingresos financieros y patrimoniales y, también, pueden recurrir al endeudamiento, dentro de los

mugen barruan.

Bestera, Euskal Autonomia Erkidegoak honela banatzen ditu eskuratutako baliabideak: zati bat EAEko gastu-konpromisoak betetzeko erabiltzen du, eta beste zati bat, berriz, EAEk bereganatu gabeko eskumenetako gaietan Estatuak egindako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Finantziazio-sistema horrek eta Nafarroako Foru Komunitatekoak ez dute zerikusirik autonomia erkidegoetako sistemekin, ezta inguruko herrialdeetan (batzuk egitura federala izan arren) erabiltzen direnekin ere. Araubide komuneko autonomia-erkidegoek bi bide hauetatik lortzen dituzte diru-sarrera gehienak: Estatutik, zenbait aldagairen arabera finkatutako proportzioaren arabera, eta zergen lagapenetik, erantzukidetasun fiskalaren printzipioari jarraituz. EAEk eta Nafarroak, berriz, bereganatu ez dituzten eskumenetan Estatuak egindako gastuak finantzatzen laguntzen dute.

Zerga itunduak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen baliabide-iturri nagusia. Aurreko kapituluan, zerga horiei buruzko arauak emateko eta ordainarazpenak egiteko gaitasunen lotuneak azaldu dira. Kapitulu honek erakundeen arteko finantza-harremanak azalduko ditu.

2. FINANTZA-HARREMANAK

2.a. 1981eko Ekonomia Ituna

Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko zerga-harremanak Itun Ekonomikoaren edo Hitzarmenen foru-sistema tradizionalaren bidez arautuko dela xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuko 41. artikuluak, eta, horrekin batera, kupoa zer den definitzen du. Ekonomia Itunak dio kupo orokor bat izango dela Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuari egingo dion ekarpena, Autonomia Erkidegoak bere egin gabeko estatu-kargei aurre egiten laguntzeko. Halaber, EAEko eta Estatuko ordezkariz osatutako batzorde parekide baten sorrera aurreikusten du Estatutuak, kupoaren zenbatekoa zehazteko. Zenbateko hori, gerora, legez onartu beharko da.

1981eko Ekonomia Itunaren II. kapitulua finantza-harremanei buruzkoa da, eta haren izenburu orokorra Kupoa da. Kapitulu horrek autonomia-estatutuak araututakoa jaso zuen, eta adierazi zuen kupo orokor bat -hiru lurralde historikoen ekarpenez, bakoitzari dagokionez, osatua- izango dela Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuari egingo dion

límites especificados legalmente.

Como contrapunto, el País Vasco destina una parte de los recursos obtenidos a sus propios compromisos de gasto en el ejercicio de sus competencias y otra parte a contribuir a la financiación de los gastos que el Estado realiza en aquellas materias cuya competencia no ha sido asumida.

La filosofía que subyace en este sistema de financiación, y en el de la Comunidad Foral de Navarra, es bien diferente a la del resto de Comunidades Autónomas, e incluso de la existente en otros países de nuestro entorno, algunos con estructura federal. Mientras las Comunidades Autónomas de régimen común obtienen la mayor parte de sus ingresos del Estado en proporción a determinadas variables o a través de la cesión de tributos bajo el principio de corresponsabilidad fiscal, el País Vasco y Navarra contribuyen a financiar el gasto del Estado por las competencias no asumidas.

La fuente principal de recursos del conjunto de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi la constituyen los tributos concertados. En el capítulo anterior se han expuesto los puntos de conexión de la capacidad normativa y exaccionadora de estos tributos. En este capítulo se repasan las relaciones financieras entre las diferentes Instituciones involucradas.

2. RELACIONES FINANCIERAS

2.a. El Concierto Económico de 1981

El Estatuto de Autonomía del País Vasco (artículo 41) dispone que las relaciones de orden tributario entre el Estado y el País Vasco se regularan por el sistema foral tradicional de Concierto Económico o Convenios y define el concepto actual de cupo. Así, se dice que la aportación del País Vasco al Estado consistirá en un cupo global, como contribución a todas las cargas del Estado que no asuma la Comunidad Autónoma. También, en el Estatuto se prevé la formación de una comisión paritaria, con representantes del País Vasco y del Estado que tiene por función el señalamiento del cupo, que deberá luego ser aprobado por Ley.

El Concierto Económico de 1981, en su Capítulo II dedicado a las relaciones financieras y denominado genéricamente Cupo, recogía lo establecido en el Estatuto de Autonomía, determinando que la aportación del País Vasco al Estado consistirá en un cupo global, integrado por los correspondientes a cada uno de sus Territorios Históricos, como

ekarpena, Autonomia Erkidegoak bere egin gabeko Estatu-kargei aurre egiten laguntzeko. Horrekin batera, Kupoaren Batzorde Mistoa eratu zuen, osaera hau zuela: foru-aldundi bakoitzeko ordezkari bana; Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, aldundietako ordezkarien kopuru berean; eta, bestetik, Estatuko Administrazioko ordezkariak, aurrekoen kopuru berean.

Horrekin batera, 1981eko kupoa onartu zen, eta erabaki zen bost urtean behin, Kupoaren Batzorde Mistoaren aurretiazko erabakiz eta Gorte Nagusiek onartutako lege bidez, kupoaren zenbatekoa bosturtekoan zehazteko metodologia ezarriko zela; betiere, Ekonomia Itunean jasotako printzipio orokorrei jarraituz. Halaber, bosturtekoaren lehen urteko kupoa onartu beharra arautzen zen. Kupoaren Batzorde Mistoari zegokion Bosturtekoaren hurrengo urteetako kupoa eguneratzea, Bosturteko Legean araututako metodologiari jarraituz.

1981eko Ekonomia Ituna indarrean izan zen bitartean, zenbait aldaketa izan zituen (azaldu ditugu aurreko kapituluan), eta jarraian adierazitakoak dira Ituneko II. kapituluan xedatutako finantza-harremanak aldatu zituzten legeak:

- Abenduaren 27ko 49/1985 Legea, Balio Erantsiaren gaineko Zergara egokitzekoa. Kupoaren Batzorde Mistoak 1985eko irailaren 27an hartutako erabakia.

  Egokitzapen horren finantza-ondorioak adierazteko, zerga berri horren bilketari zegokion doikuntza bat egin zen.

- Abenduaren 13ko 11/1993 Legea, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legera eta Zerga Berezien Legera egokitzekoa. Kupoaren Batzorde Mistoak 1992ko abenduaren 17an hartutako erabakia.

  BEZaren doikuntza aldatu zen, zerga-egitate berri baten (Europako Erkidegoaren barruko eskurapenak, lehen inportaziotzat jotakoak) finantza-ondorioak adierazteko.

- Abuztuaren 4ko 38/1997 Legea, Ekonomia Itunaren aldaketa onartzen duena. Kupoaren Batzorde Mistoak 1997ko maiatzaren 27an hartutako erabakia.

  Fabrikazioko Zerga Bereziak itundu ziren eta horien bilketari zegozkien zenbait doikuntza

contribución a todas las cargas del Estado que no asuma la Comunidad Autónoma. También, se creaba la Comisión Mixta de Cupo, constituida, de una parte, por un representante de cada Diputación Foral y otros tantos del Gobierno Vasco y, de otra, por un número igual de representantes de la Administración del Estado.

Así mismo, se aprobaba el Cupo para 1981 y se establecía que cada cinco años, mediante Ley votada por las Cortes Generales previo acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo, se procedería a determinar su metodología de señalamiento para el quinquenio, conforme a los principios generales previstos en el Concierto, así como a aprobar el cupo del primer año del quinquenio. El cupo de los años siguientes del quinquenio se actualizaría en la Comisión Mixta de Cupo, aplicando la metodología de la Ley Quinquenal.

De entre las modificaciones de que fue objeto el Concierto Económico de 1981 durante su vigencia, y a las que ya se ha hecho referencia en el capítulo anterior, se destacan a continuación aquellas que supusieron cambios en las disposiciones relativas a las relaciones financieras, contenidas en el Capítulo II del Concierto:

- Ley 49/1985, de 27 de diciembre, de adaptación al Impuesto sobre el Valor Añadido. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 27 de septiembre de 1985.

  Con objeto de reflejar las consecuencias financieras derivadas de dicha adaptación se estableció un Ajuste a la recaudación por este nuevo Impuesto.

- Ley 11/1993, de 13 de diciembre, de adaptación a la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido y a la Ley de Impuestos Especiales. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 17 de diciembre de 1992.

  Se modificó el Ajuste IVA para reflejar las repercusiones financieras de la aparición de un nuevo hecho imponible, las adquisiciones intracomunitarias, antes consideradas importaciones.

- Ley 38/1997, de 4 de agosto, por la que se aprueba la modificación del Concierto Económico. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 27 de mayo de 1997.

  Se concertaron los Impuestos Especiales de Fabricación y se establecieron diversos ajustes

egin.

Bosturteko legeek aldatu egin zituzten kupoa zehazteko metodologiaren printzipioak. Uneko gertakariak eta kupoaren aplikazioan pilatutako esperientziak bultzatuta egin ziren aldaketak. Aldaketa hori eginda, bermatu egin zen Itunaren sistemak bete beharreko printzipio orokorrak egokitu egingo zirela errealitate ekonomikoaren bilakaerari.

1981eko Itun Ekonomikoa indarrean izan zen bitartean, Kupoa bost urterako zehazteko lau Lege onartu ziren:

- 43/1988 Legea, abenduaren 28koa, EAEko kupoa 1982-1986 bosturtekoan zehazteko metodologia onartzen duena.

- 44/1988 Legea, abenduaren 28koa, EAEko kupoa 1987-1991 bosturtekoan zehazteko metodologia onartzen duena.

- 7/1993 Legea, apirilaren 16koa, EAEko kupoa 1992-1996 bosturtekoan zehazteko metodologia onartzen duena.

- 37/1997 Legea, abuztuaren 4koa, EAEko kupoa 1997-2001 bosturtekoan zehazteko metodologia onartzen duena.

Bosturteko lehen legea onartu bitartean, Ekonomia Itunak berak bosgarren xedapen gehigarrian aratutako moduan finkatu ziren behin-behineko kupoak. 1981eko kupoa kalkulatzeko metodologia aplikatuz egin zen hori. Kupoaren Batzorde Mistoak 1987ko abenduaren 4an hartutako erabaki bidez, behin betikotzat jo ziren 1982 eta 1986 bitartean finkatutako behin-behineko kupoak, eta abenduaren 28ko 43/1988 Legeak onartu egin zituen haiek.

1987-1991, 1992-1996 eta 1997-2001 aldietan aplikatuko zen metodologia onartu zuten hurrengo hiru bosturteko legeek. Lege horiek bere egin zituzten Ekonomia Itunak araututako oinarri orokorrak. Metodologia horrek, lehenik, bosturteko bakoitzeko abiaburu-urteko kupoa kalkulatu (1988koa, 1992koa eta 1997koa, hurrenez hurren), eta horien zenbatekoa eguneratu zuen, eguneratze-indize bat aplikatuz. Itundutako zergengatiko dirusarreren igoera adierazten zuen indize horrek, baina autonomia-erkidegoei laga zitezkeen zergena (Estatuko Sarreren Aurrekontuko I. eta II. kapituluan adierazitakoak) aintzat hartu gabe, zegokion

a la recaudación por estos impuestos.

Por otro lado, las leyes quinquenales modificaron los principios que configuraban la metodología de determinación del cupo. Las circunstancias y la experiencia en su aplicación así lo aconsejaron. De esta forma, se garantizó que los principios generales que deben exigirse al sistema de Concierto se adecuasen a la evolución de la realidad económica.

Durante la vigencia del Concierto Económico de 1981 se aprobaron cuatro leyes quinquenales de Cupo:

- Ley 43/1988, de 28 de diciembre, por la que se aprueba la metodología de determinación del Cupo del País Vasco para el quinquenio 1982-1986.

- Ley 44/1988, de 28 de diciembre, por la que se aprueba la metodología de determinación del Cupo del País Vasco para el quinquenio 1987-1991.

- Ley 7/1993, de 16 de abril, por la que se aprueba la metodología de determinación del Cupo del País Vasco para el quinquenio 1992-1996.

- Ley 37/1997, de 4 de agosto, por la que se aprueba la metodología de determinación del Cupo del País Vasco para el quinquenio 1997-2001.

Hasta la aprobación de la primera ley quinquenal los cupos provisionales se fijaron, conforme a la Disposición Transitoria Quinta establecida en el propio Concierto Económico, por aplicación de la metodología para el cálculo del cupo de 1981. Los cupos provisionales fijados entre 1982 y 1986 fueron elevados a definitivos por acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 4 de diciembre de 1987 y aprobados por la Ley 43/1988, de 28 de diciembre.

Las siguientes tres leyes quinquenales aprobaron la metodología a aplicar en los períodos 1987-1991, 1992-1996 y 1997-2001, recogiendo las bases establecidas con carácter general en el Concierto Económico. Según esta metodología se calculaba el cupo del año base de cada quinquenio (1988, 1992 y 1997, respectivamente) y se actualizaba para los años restantes por aplicación de un índice de actualización, expresión porcentual del incremento de los ingresos por tributos concertados, excluidos los susceptibles de cesión a las Comunidades Autónomas, que figuraran en los Capítulos I y II del Presupuesto de Ingresos del Estado, entre el

kupoaren ekitaldiaren eta oinarri-urtearen artean.

Hiru salbuespen zeuden kupoen zehaztapen automatiko hori egiteko:

- Eskumen berriek kupoan zuten eragina.

- INSALUD, IMSERSO eta ISM (Osasuneko Institutu Nazionala, Migrazio eta Gizarte Zerbitzuetako Institutua eta Itsasoko Gizarte Institutua) erakundeen transferentzien finantzazioa.

  Transferentziak egiteko errege-dekretuek bi finantzazio-bide ezarri zituzten, bata kupoaren murrizketaren bidezkoa, eta bestea Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako transferentzien bidezkoa; betiere, horiei zegokien proportzioan, Estatuko ekarpenei erreparatuta eta kuotei eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaile horien bestelako sarrerei erreparatuta, hurrenez hurren. Kupoaren Bosturteko Legeek doikuntzak egiten zituzten ekitaldi guztietan, kupo-bidezko finantzazioa bermatzeko.

- Ertzaintzaren finantziazioa.

  Kupoaren Batzorde Mistoak urte bakoitzean onartutako moduluak aplikatuta lortua. Horien bidez, Ertzaintzak ekitaldiz ekitaldi izango zuen kostu efektiboa kalkulatzeko irizpideak finkatzen ziren.

Batera, Kupoaren bosturteko legeek arautzen zuten behin-behineko kupoen likidazioa, eta, eguneratzeetan erabilitako aldagaien egiazko balioak jakin ondoren, hura behin betiko kalkulatu beharra.

Itunak ezarritako oinarri orokorrei egindako aldaketen harian, Kupoaren Bosturteko Legeek unean-unean jaso dituzte Balio Erantsiaren gainerako Zergaren eta Fabrikazioko Zerga Berezien diru-bilketei dagozkien doikuntzak.

Halaber, Fabrikazioko Zerga Bereziak itundu ondoren, 1997-2001 Bosturteko Legeak zenbait finantza-konpentsazio ezarri zituen, EAEren eta Estatuaren arteko neutraltasun finantzarioaren helburua betetzeko.

2.b. 2002ko Ekonomia Ituna

Oinarrian, 2001. urtera arte indarrean izandako kupoaren jarraipena egiten badu ere, 2002an berritutako Ekonomia Itunak zenbait berritasun

ejercicio al que se refiriera el cupo y el año base.

Esta determinación automática de los cupos tenía tres excepciones:

- Efectos en el cupo derivados de la asunción de nuevas competencias.

- Financiación de los traspasos correspondientes a INSALUD, IMSERSO e ISM (Institutos Nacional de la Salud, de Migraciones y Servicios Sociales y Social de la Marina).

  En los Reales Decretos de traspaso se establecía una doble vía de financiación a través de minoración del cupo y transferencias de la Tesorería General de la Seguridad Social, en función de la proporción que representaran, respectivamente, las aportaciones del Estado y las cuotas y otros ingresos en la financiación total de estas entidades gestoras de la Seguridad Social. Las Leyes Quinquenales de Cupo articulaban un ajuste en cada ejercicio para garantizar la financiación vía cupo.

- Financiación de la Policía Autónoma.

  Resultado de la aplicación para cada año de los módulos aprobados por la Comisión Mixta de Cupo, por los que se fijaban los criterios para el cálculo del coste efectivo de la Policía Autónoma en cada ejercicio.

Al mismo tiempo, las Leyes Quinquenales de Cupo preveían la liquidación de los cupos provisionales y su cálculo definitivo, una vez conocidos los valores reales de las variables utilizadas en la actualización.

En relación con las modificaciones introducidas en las bases establecidas con carácter general en el Concierto, las Leyes Quinquenales de Cupo han recogido en cada momento el Ajuste a la recaudación por el Impuesto sobre el Valor Añadido y los Ajustes a la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación.

Así mismo, tras la concertación de los Impuestos Especiales de Fabricación, la Ley Quinquenal 1997-2001 estableció las compensaciones financieras necesarias para cumplir el objetivo de neutralidad financiera entre el País Vasco y el Estado.

2.b. El Concierto Económico de 2002

Aunque respecto al cupo es básicamente una continuación del vigente hasta 2001, el Concierto Económico renovado en 2002 introduce algunas

adierazgarri egin zituen.

II. kapituluaren izen berria “Finantza Harremanak” da. Kapitulu horrek berariaz eta batera jasotzen ditu, 48. artikuluan, Estatuaren eta EAEren arteko finantza-harremanetako printzipio orokorrak. Europar Batasunak onartutako Egonkortasun eta Hazkundeko Itunaren xede diren Herri Administrazioen jarduera ekonomikoen esparruaren baitan, printzipio horietako bat da koordinazioko eta lankidetzako konpromisoa hartzea Estatuarekin, aurrekontu-egonkortasunaren arloan.

Hau izan zen kupoaren zenbatekoa zehazteko metodologiari egin zitzaion berrikuntza nagusia: konpentsazioaren bidez, bertan sartu ziren INSALUD, IMSERSO eta ISM erakundeetatik transferitutako zerbitzuak finantzatzeko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik diru-transferentzien bidez jasotzen ziren diru-sarrerak.

Aldaketa hori derrigorrez egin behar izan zen, 2002tik aurrera erregimen komuneko autonomia-erkidegoetako osasun-sistema eta gizarte-zerbitzuak finantzatzeko sistemaren aldaketaren ondorioz; izan ere, INSALUD, IMSERSO eta ISM erakundeetako zerbitzuak transferitzeko Errege Dekretuetan ezarritako aurrekontu-erregimena egokitzea eta hura kupoa kalkulatzeko metodologian islatzea eskatzen zuen aldaketa horrek.

Bestalde, Kupoaren Batzorde Mistoak eutsi egin zion bere osaerari, baina Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoa izena jarri zitzaion, Batzordearen izena haren egitekoen errealitateari (finantza-harremanak eta zerga-harremanak, biak, biltzen dituena) egokitzeko. Batzordeak aho batez hartu behar ditu erabakiak.

3. PRINTZIPIO OROKORRAK

2002ko Ekonomia Itunak 48. artikulu berri bat jasotzen du, "Finantza Harremanak" izeneko II. kapituluan. Artikulu horrek arautzen du hauek izango direla Estatuaren eta EAEren arteko finantza-harremanetako printzipio orokorrak:

- Euskadiko erakundeek euren eskumenak garatu eta erabiltzeko autonomia izango dute, zergen eta finantzen eremuetan.

- Elkartasunari eutsiko zaio, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan ezarritako moduan.

novedades destacables.

El Capítulo II pasa a denominarse “De las Relaciones Financieras”. En él se recogen expresa y conjuntamente, en un nuevo artículo 48, los principios generales por los que se rigen las relaciones financieras entre el Estado y el País Vasco. Entre estos principios, y en el marco de la actividad económica de las Administraciones Públicas objeto del Pacto de Estabilidad y Crecimiento aprobado por la Unión Europea, se recoge el compromiso de coordinación y colaboración con el Estado en materia de estabilidad presupuestaria.

En relación a la metodología de determinación del cupo la principal novedad ha sido la integración, vía compensación, de los ingresos que anteriormente se recibían vía transferencias de la Tesorería General de la Seguridad Social para la financiación de los servicios transferidos del INSALUD, IMSERSO e ISM.

Esta obligada modificación, consecuencia del cambio en la financiación de la sanidad y de los servicios sociales derivado del nuevo sistema de financiación para las Comunidades Autónomas de régimen común a partir de 2002, exigía adaptar el régimen presupuestario establecido en los Reales Decretos de traspaso de los servicios del INSALUD, IMSERSO e ISM y su reflejo en el cálculo del cupo.

Por otro lado, la Comisión Mixta de Cupo, que mantiene su composición, pasa a denominarse Comisión Mixta del Concierto Económico, adecuándose de esta forma a la realidad del ámbito de sus funciones, que abarca tanto las relaciones financieras como tributarias. Sus acuerdos deben ser adoptados por unanimidad de todos los miembros integrantes.

3. PRINCIPIOS GENERALES

El Concierto Económico de 2002 introduce un nuevo artículo 48, dentro del Capítulo II “De las Relaciones Financieras”, en el que se establece que las relaciones financieras entre el Estado y el País Vasco se regirán por los siguientes principios generales:

- Autonomía fiscal y financiera de las Instituciones del País Vasco para el desarrollo y ejecución de sus competencias.

- Respeto de la solidaridad en los términos prevenidos en la Constitución y en el Estatuto de Autonomía.

- Aurrekontu-egonkortasunaren arloan, Euskadiko erakundeak Estatuarekin koordinatuko dira eta berarekin lankidetzan arituko dira.

- Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren zamak direla-eta, Euskadik kontribuzioa egingo du, Ekonomia Itun honetan zehaztu den eran.

- Toki-erakundeen eremuan Estatuak une bakoitzean egikaritzen dituen finantza-tutoretzako ahalmenak Euskadiko erakunde eskudunei dagokie; horrek ez du esan nahi, inola ere, Euskadiko toki-erakundeen autonomia araubide erkidea duten toki-erakundeena baino txikiagoa izango denik.

Horiek horrela, Estatuaren eta EAEren arteko finantza-harremanak bideratzeko Ekonomia Itunaren izaera orokorra aitortzeko urrats bat eman zen, berariaz arautu baitzen nola egin behar dituen EAEk finantza-jarduerak, oro har, Estatuko Ogasunarekin harremanak dituenean.

4. ESTATUARI ORDAINDU BEHARREKO KUPOA

4.a. Kontzeptua

2002ko Ekonomia Itunak 49. artikuluan ematen du kupoaren definizioa, eta definizio hori Autonomia Estatutuak eta 1981eko Ekonomia Itunak emandako definizio bera da; halaber, II. kapituluko 1. atalean arau orokorrak finkatzen ditu eta 2. atalean ezartzen du kupoa kalkulatzeko metodoa.

50. artikuluak dio bost urtero, Gorte Nagusietan bozkatutako lege bidez, eta aldez aurretik Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak akordioa lortuta erabakiko dela bosturtekoan aginduko duen kupoa zehazteko metodologia. Era berean, bosturtekoaren lehenbiziko urteko kupoa ere onetsiko da. Ondorengo urte bakoitzean, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak kupoa eguneratuko du, Bosturteko Legean onartutako metodologia aplikatuta.

Aurreko Ekonomia Itunean gertatzen zen moduan, kupoa zehazteko metodologiaren printzipioak aldatzeko aukera izango da Bosturteko legean, unean uneko egoerak eta hura aplikatzean izandako esperientziak hala egitea gomendatzen badute. Horrela, bermatu egiten da Itunaren sistemako printzipio orokorrak errealitate ekonomikoaren bilakaerara egokituko direla.

- Coordinación y colaboración con el Estado en materia de estabilidad presupuestaria.

- Contribución del País Vasco a las cargas del Estado que no asuma la Comunidad Autónoma, en la forma que se determina en el Concierto Económico.

- Las facultades de tutela financiera que en cada momento desempeñe el Estado en materia de Entidades Locales corresponderán a las Instituciones competentes del País Vasco, sin que ello pueda significar, en modo alguno, un nivel de autonomía de las Entidades Locales Vascas inferior al que tengan las de régimen común.

Ello supone un avance en el reconocimiento del carácter general del Concierto Económico en cuanto a las relaciones financieras entre el Estado y el País Vasco, articulándose expresamente el modo en el que han de ejercerse globalmente la actividad financiera del País Vasco en sus relaciones con la Hacienda del Estado.

4. CUPO A PAGAR AL ESTADO

4.a. Concepto

El Concierto Económico de 2002 define el cupo (artículo 49) de igual forma que el Estatuto de Autonomía y el Concierto Económico de 1981, desarrollando en la Sección 1º del Capítulo II las normas generales y estableciendo en la Sección 2ª del mismo la metodología de su cálculo.

Cada cinco años (artículo 50), mediante Ley votada por las Cortes Generales, y previo acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto Económico, se procede a determinar la metodología de señalamiento del cupo que ha de regir en el quinquenio, así como a aprobar el cupo del primer año del quinquenio. El cupo de los años siguientes se actualiza en la Comisión Mixta del Concierto Económico, aplicando la metodología de la Ley Quinquenal.

Del mismo modo de en el Concierto Económico anterior, la Ley Quinquenal puede modificar los principios que configuran la metodología de determinación del cupo cuando las circunstancias y la experiencia en su aplicación así lo aconsejen, garantizándose la adecuación de los principios generales del sistema de Concierto a la evolución de la realidad económica.

52. artikuluak arautzen du hauek direla Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko kargak: Autonomia Erkidegoak horiez baliatzeko benetan bereganatu ez dituen eskumenei dagozkienak.

Karga horien zenbateko osoa zein den zehazteko, eragiketa hau egingo da: kasuan kasuko dekretuan finkatutako transferentziak eraginkor diren egunetik Autonomia Erkidegoak bereganatutako eskumenei Estatu-mailan dagokien aurrekontuko zati osoa kenduko zaio Estatuko aurrekontuaren gastu osoari.

Besteak beste, hauek hartuko dira EAEk bereganatu gabeko kargatzat: Estatuaren Aurrekontu Orokorretan Lurralde-arteko Konpentsazio Funtserako izendatutako kopuruak; Estatuak erakunde publikoentzat egindako transferentziak edo erakunde horiei emandako dirulaguntzak, baldin eta erakunde horiek dituzten eskumenak ez baditu EAEkoak bereganatu; eta Estatuaren zorren korrituak eta amortizazio-kuotak.

Bereganatu gabeko kargengatik lurralde historikoei dagokien zenbatekoaren egozpena egiteko, 57. artikuluko egozpen-indizeak aplikatuko dira. Indize horiek, batik bat, lurralde historikoen errenta erlatiboari erreparatuta zehazten dira. Kupoaren Bosturteko Legean adierazten dira indize horiek, eta hura indarrean den bitartean aplikatzen dira.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren diru-sarrerengatiko egozpenak hobetzeko (53. artikulua) eta Alkoholaren eta Edari Eratorrien, Tarteko Ekoizkinen, Garagardoaren, Hidrokarburoen eta Tabako Moten Fabrikazioaren gaineko Zerga bereziengatik (54. artikulua) biltzen diren sarreren egozpena hobetzeko, Euskadiko zerga-bilketarako ahalbidearen indizea eta kontsumo-indizea elkarri doitzeko mekanismoa ezartzen da.

Horrekin batera, zergapetze zuzena hobetzeko (55. artikulua), doikuntzak egingo dira, Ekonomia Ituneko 9. bat lehenengoa b) artikuluan eta 7. bi artikuluan adierazitakoak aintzat hartu ondoren lortzen diren zenbatekoetan. Halaber, Kupoaren Bosturteko Legeak beste doitze-mekanismo batzuk ezar ditzake, Estatuari eta EAEri egozgarri zaien diru-sarrera publikoen zenbatespena hobetzeko.

Lurralde Historiko bakoitzari dagokion kupotik, konpentsazio gisa ondorengo kontzeptuei dagozkien kenketak egingo dira (56. artikulua):

Se considerarán cargas del Estado no asumidas por el País Vasco (artículo 52) las que correspondan a competencias cuyo ejercicio no haya sido asumido efectivamente por la Comunidad Autónoma.

Para la determinación del importe total de estas cargas no asumidas se deducirá del total de gastos del Presupuesto del Estado, la asignación presupuestaria íntegra que, a nivel estatal, corresponda a las competencias asumidas por la Comunidad Autónoma, desde la fecha de efectividad de la transferencia fijada en los correspondientes Decretos.

Entre otras, tendrán el carácter de cargas no asumidas: las cantidades asignadas en los Presupuestos Generales del Estado al Fondo de Compensación Interterritorial, las transferencias o subvenciones que haga el Estado en favor de Entes públicos en la medida en que las competencias desempeñadas por los mismos no estén asumidas, y los intereses y cuotas de amortización de las deudas del Estado.

La imputación a los Territorios Históricos de la parte correspondiente por cargas no asumidas se efectuará por aplicación de los índices de imputación (artículo 57), determinados básicamente en función de la renta relativa de los Territorios Históricos. Estos índices se señalarán en la Ley Quinquenal de Cupo y se aplicarán durante su vigencia.

También, con el objeto de perfeccionar las imputaciones de ingresos por el Impuesto sobre el Valor Añadido (artículo 53) y por los Impuestos Especiales de Fabricación sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas, Productos Intermedios, Cerveza, Hidrocarburos y Labores del Tabaco (artículo 54), se establecen los mecanismo de ajuste entre el índice de la capacidad recaudatoria y el índice de consumo del País Vasco para cada uno de estos impuestos.

Así mismo, para perfeccionar la imposición directa (artículo 55) se practicará un ajuste por las cantidades que resulten de considerar los supuestos establecidos en los artículos 9 Uno Primera b) y 7 Dos del Concierto Económico. Igualmente, en la Ley Quinquenal de Cupo podrán establecerse otros mecanismos de ajuste que puedan perfeccionar la estimación de los ingresos públicos imputables al País Vasco y al resto del Estado.

Del cupo correspondiente a cada Territorio Histórico se restarán por compensación (artículo 56) los siguientes conceptos:

- Itundu gabeko zergen zati egozgarria.

- Zerga-izaerarik ez duten aurrekontuko dirusarreren zati egozgarria.

- Estatuaren Aurrekontu Orokorrek izan dezaketen defizitaren zati egozgarria. Superabita izanez gero, kontrara jardungo da.

Halaber, lurralde historikoen kupotik kenduko dira, konpentsazio gisa, Gizarte Segurantzako osasun-arloan eta gizarte-zerbitzuen arloan Euskadiri intsuldatu zaizkion eginkizunak eta zerbitzuak finantzatzeko diren sarreretatik Euskadiri egotzi behar zaion zatia. Sarrera horiek, lege hau indarrean jarri aurretik, Euskadiri ordaindu izan zaizkio Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren transferentzien bitartez, azaroaren 6ko 1536/1987, urriaren 2ko 1476/1987, abuztuaren 23ko 1946/1996 eta apirilaren 2ko 558/1998 Errege Dekretuetan araututako aurrekontu-araubidea aplikatuta.

Ogasun Ministerioaren eta Arabako Foru Aldundiaren ordezkariek osatutako Batzorde Misto Parekatuak zehaztuko du (laugarren xedapen iragankorra) zenbateko konpentsazioa hartu behar duen foru-aldundi horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko eskumenak garatzen eta zerbitzuak egiten diharduen bitartean, araubide erkideko probintzietan Estatuak egiten baititu lan horiek. Halaber, batzorde mistoak arauak ezarriko ditu konpentsazio hori urtero berrikus dadin, Euskadiko Autonomia Erkidegoari eskumenak eskualdatzeko egutegian oinarrituta.

Bereganatutako eskumenak aldatzeak behin-behineko kupoan duen eragina ere arautzen du Ekonomia Itunak (58. artikulua).

Hasieran eta behin-behinean kupoa eta bidezkoak diren konpentsazioak zenbatekoak izango diren zehazteko (59. artikulua), kasuan kasuko urterako onetsitako Estatuaren aurrekontuko kopuruak hartuko dira kontuan. Ekitaldia amaitu eta Estatuaren aurrekontuen likidazioa egin ostean, dagozkion zuzenketak egingo dira magnitudeetan, behin betiko likidazioa egiteko.

Zuzenketa horien ondorioz alde edo kontra izango diren ezberdintasunak ezberdintasun horiek gauzatu diren urtearen hurrengo ekitaldiko behin-behineko kupoan gehituko dira algebraikoki. Euskal Autonomia Erkidegoak ordaindu beharreko kopurua hiru zenbateko berdinetan abonatuko zaio Estatuko Ogasun Publikoari urtero, maiatzean, irailean eta

- La parte imputable de los tributos no concertados.

- La parte imputable de los ingresos presupuestarios de naturaleza no tributaria.

- La parte imputable del déficit que presenten los Presupuestos Generales del Estado. Si existiera superávit se operará en sentido inverso.

También serán objeto de compensación del Cupo de cada Territorio Histórico la parte imputable al País Vasco por aquellos ingresos que financian las funciones y servicios traspasados al País Vasco en materia sanitaria y de servicios sociales de la Seguridad Social y que, con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ley, eran satisfechos al País Vasco mediante transferencias de la Tesorería General de la Seguridad Social, por aplicación de lo previsto en el régimen presupuestario regulado en los Reales Decretos 1536/1987 de 6 de noviembre, 1476/1987 de 2 de octubre y 1946/1996 de 23 de agosto y 558/1998 de 2 de abril, de traspaso del INSALUD, IMSERSO e ISM.

Por otra parte, una Comisión Mixta Paritaria, Ministerio de Hacienda - Diputación Foral de Álava (disposición transitoria cuarta), determinará la compensación que proceda en favor de la Diputación Foral, en tanto ésta continúe desarrollando competencias y prestando servicios no asumidos por la Comunidad Autónoma del País Vasco y que en provincias de régimen común corresponden al Estado, así como las normas para la revisión anual de esta compensación en base al calendario de transferencia de competencias al País Vasco

Del mismo modo, el Concierto contempla los efectos sobre el cupo provisional por la variación en las competencias asumidas (artículo 58).

El cupo y las compensaciones que procedan (artículo 59) se determinan inicial y provisionalmente partiendo de las cifras contenidas en los Presupuestos del Estado aprobados para el ejercicio correspondiente. Una vez terminado el ejercicio y realizada la liquidación de los Presupuestos del Estado se procederá a practicar las rectificaciones oportunas en las magnitudes, obteniéndose la liquidación definitiva.

Las diferencias, a favor o en contra, que resulten de estas rectificaciones se sumarán algebraicamente al cupo provisional del ejercicio siguiente. Así, la cantidad a ingresar en concepto de cupo por la Comunidad Autónoma del País Vasco se abonará a la Hacienda Pública del Estado en tres plazos iguales, durante los meses de mayo, septiembre y

abenduan (60. artikulua).

4.b. Kupoaren 2002-2006 Bosturtekorako Legea

13/2002 Legeak, maiatzaren 23koak, Euskadiko Kupoa 2002-2006 bosturtekorako zehazteko metodologia onartzen du, eta Ekonomia Itunaren edukia garatzen du (1. artikulua). Legeak eutsi egiten die aurreko bosturtekoaren metodologiako elementu nagusiei. Sistematika berdina denez, abiaburu-urteko kupoa zehazten da, eta hurrengo ekitaldietan hura eguneratu egiten da (2. artikulua).

Gizarte Segurantzako osasun-arloan eta gizarte-zerbitzuen arloan Euskadiri transferitutako eginkizunak eta zerbitzuak finantzatzeko modua arautzen duen aurrekontu-erregimenera egokitzeko aldaketak, ez besterik, egin ditu legeak, aldatu egin baita Estatuan zerbitzu horiek finantzatzeko sistema. Halaber, legeak egin duen beste aldaketa izan da Ertzaintzaren finantzazioaren tratamendu berria arautzea, Bosturtekorako Legearen indarraldirako.

Salbuespen gisa, legearen indarraldia behin amaiturik oraindik ez bada hurrengo ekitaldietarako kupoa zehazteko metodologia arautuko duen beste legerik onartu, lege horrek jasotzen duen metodologia bere osoan aplikatuko da hurrengo ekitaldietan, kupo likidoak eta konpentsazioak behin-behingoz zehazteko (amaierako lehen xedapena).

Euskadiko Kupoa 2002-2006 bosturtekorako zehazteko metodologia onartzekoa den maiatzaren 23ko 13/2002 Legeko atalak aztertuko ditugu jarraian.

4.b.1. Abiaburu-urteko kupo likidoa

2002-2006 bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa EAEk bereganatu ez dituen kargen zenbateko osoari egozpen indizea aplikatuz eta dagozkion doiketa eta konpentsazioak eginez kalkulatuko dela arautzen du 3. artikuluak.

Horrenbestez, hauek dira kupoa kalkulatzeko egin behar diren eragiketak:

1. <u>Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuko kargak zehaztu behar dira.</u>

Kupoa 2002-2006 Bosturtekorako zehazteko Legeko 4. artikuluak dio, Ekonomia Ituneko 52. artikuluak araututakoa bere eginez, Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen kargak

diciembre de cada año (artículo 60).

4.b. Ley Quinquenal de Cupo 2002-2006

La Ley 13/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba la metodología de señalamiento del cupo del País Vasco para el quinquenio 2002-2006, desarrolla el contenido del Concierto Económico (artículo 1). Respecto a la metodología del quinquenio anterior, se mantienen los elementos fundamentales. Permanece la sistemática utilizada, consistente en determinar el cupo del año base y su posterior actualización para los ejercicios siguientes (artículo 2).

Los cambios producidos han sido únicamente los derivados de la adaptación del régimen presupuestario que regulaba la financiación de las funciones y servicios traspasados en materia sanitaria y de servicios sociales de la Seguridad Social al País Vasco, con motivo del nuevo sistema de financiación de estos servicios en el Estado, y el nuevo tratamiento durante el periodo de vigencia de la Ley Quinquenal de la financiación específica de la Policía Autónoma.

Por otra parte, en la propia Ley 13/2002 se contempla la posibilidad excepcional de prorroga de la metodología a aplicar a partir de 2006, caso de no promulgarse una nueva Ley Quinquenal de Cupo con anterioridad a la finalización de su plazo de vigencia, para el señalamiento provisional de los cupos líquidos y las compensaciones financieras (disposición final primera).

El texto de la Ley 13/2002 de 23 de mayo, por la que se aprueba la metodología de señalamiento del cupo del País Vasco para el quinquenio 2002-2006, se estructura en varias partes diferenciadas que se analizan a continuación.

4.b.1. Cupo líquido del año base

Se establece que el cupo líquido del año base del quinquenio 2002-2006 se determinará (artículo 3) por la aplicación del índice de imputación al importe total de las cargas no asumidas por la Comunidad Autónoma y mediante la práctica de los correspondientes ajustes y compensaciones.

Por tanto, la operativa para el cálculo del cupo es la siguiente:

1. <u>Determinación de las cargas del Estado no asumidas por la Comunidad Autónoma.</u>

La Ley Quinquenal de Cupo recoge el contenido del Concierto (artículo 52), donde se definen las cargas no asumidas (CNA) como aquellas correspondientes a competencias cuyo ejercicio no

(CNA) hauek direla: Euskal Autonomia Erkidegoak horiez baliatzeko benetan bereganatu ez dituen eskumenei dagozkienak. Horrenbestez, kargen zenbatekoa zehazteko, Estatuaren Gastu Aurrekontuaren (PGE) zenbateko osoari kendu egin behar zaio EAEk bere egindako eskumenei edo kargei (CA) dagozkien aurrekontu-esleipenak, Estatu osoan baloratutakoak.

Bi zenbateko horien arteko aldea izango da EAEk bereganatu gabeko kargen zenbatekoa, oinarrizko kopurua kupo likidoa kalkulatzeko.

2. Egozpen-indizea aplikatu behar zaie bereganatu gabeko kargei.

Lurralde Historikoei dagozkien egozpenak egiteko, 4.4. artikuluko egozpen-indizeak (i) aplikatuko dira. Indize horiek, batik bat, Lurralde Historikoek Estatuarekiko duten errenta erlatiboari erreparatuta zehazten dira (7. artikulua).

Egozpen-indizea, 2002-2006 bosturtekorako, % 6,24koa da; ondorioz, eutsi egin zaio 1981eko Ekonomia Itunaren indarraldian aplikatutako indizeari.

KUPO = i CNA

KUPO = i (PGE - CA)

3. Doiketak.

Doiketen xedea da zuzeneko eta zeharkako zergengatiko egozpenak hobetzea. Hauek egiten dira:

- Estatuko Administrazioak bere funtzionarioei egindako atxikipenei dagozkien doikuntzak (Ekonomia Ituneko 7. bi artikulua).
- Erakunde publikoek jaulkitako zor eta jesapenetako korritu eta bestelako kontraprestazioei dagozkienak (9. lehenengoa, bat, b artikulua).
- Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion doiketa.
- Fabrikazioko Zerga Bereziei dagokien doiketa.

4. Konpentsazioak.

Estatuko Ogasunari dagozkion sarrera-kontzeptuak jasotzen dituzte Estatuko aurrekontu orokorrek; hau da, ez dituzte jasotzen foru-ogasunek bildurako diru-

ha sido asumido efectivamente por la Comunidad Autónoma (artículo 4), determinándose su importe al deducir del total de gastos del Presupuesto de Gastos del Estado (PGE) la asignación presupuestaria que corresponda a las competencias asumidas por el País vasco o cargas asumidas (CA), valoradas a nivel estatal.

La diferencia entre ambos importes constituirán las cargas no asumidas por el País Vasco, base de cálculo para la determinación del cupo líquido.

2. Aplicación del índice de imputación a las cargas no asumidas.

La asignación a los Territorios Históricos de la parte correspondiente a las cargas no asumidas (artículo 4.4) se efectuará por aplicación del índice de imputación (i), determinado básicamente en función de la renta de los Territorios Históricos en relación con el Estado (artículo 7).

El índice de imputación para el quinquenio 2002-2006 es el 6,24%, manteniéndose, por tanto, el índice aplicado durante toda la vigencia del Concierto de 1981.

CUPO = i CNA

CUPO = i (PGE - CA)

3. Ajustes.

Los ajustes tienen por objeto perfeccionar las imputaciones de ingresos por impuestos directos e indirectos, contemplándose los siguientes:

- Por retenciones relativas a las retribuciones satisfechas por la Administración del Estado a sus funcionarios (artículo 7. Dos).
- Por intereses y demás contraprestaciones de las deudas y empréstitos emitidos por las Instituciones Públicas (artículo 9. Uno. Primera. b).
- Por el Impuesto sobre Valor Añadido.
- Por los Impuestos Especiales de Fabricación.

4. Compensaciones.

En los Presupuestos Generales del Estado se incluyen conceptos de ingreso que sólo corresponden a la Hacienda del Estado, no

sarrerak. Horrenbestez, kupoa Estatuko gastuen aurrekontuarekiko bereganatu gabeko kargei erreparatuta zehazten dela ikusita, itundu gabeko sarrerei (INC) dagozkien konpentsazioak egin behar dira. Kupoak ordaintzen laguntzen dituen kargak finantzatzen dituzte sarrera horiek.

Ekonomia Ituneko 56. artikuluak araututakoa jasotzen du Kupoaren Bosturtekorako Legeko 6. artikuluak; horrela, konpentsazioengatik kendu beharreko kontzeptuak adierazi eta horiek egozpen-indizea aplikatuta zehazten ditu:

- Itundu gabeko tributuak.
- Tributu-izaera ez duten aurrekontuko dirusarrerak.
- Estatuko aurrekontu orokorren defizitak edo superabitak.
- Gizarte Segurantzako osasun-arloan eta gizarte-zerbitzuen arloan Euskadiri intsuldatu zaizkion eginkizunak eta zerbitzuak finantzatzeko diren sarreretatik Euskadiri egotzi behar zaion zatia. Sarrera horiek, lege hau indarrean jarri aurretik, Euskadiri ordaindu izan zaizkio Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren transferentzien bitartez, 1536/1987, 1476/1987, 1946/1996 eta 558/1998 Errege Dekretuetan –INSALUD, IMSERSO sta ISMren intsuldaketenetan– araututako aurrekontu-araubidea aplikatuta.
- Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko eskumen eta zerbitzuengatik Arabako Foru Aldundiari egindako konpentsazioak, araubide erkideko probintzietan Estatuari dagozkionak.

5. Kupo likidoa kalkulatzea.

2002 ekitaldia finkatu da bosturtekorako abiaburu-urte gisa (8. artikulua), eta kupo likidoaren kalkulua, aurrez adierazitako a), b) eta c) puntuetako konpentsazioak murriztuta ateratzen da.

recaudados, por tanto, por las Haciendas Forales. En consecuencia, dado que el cupo se determina sobre las cargas no asumidas del Presupuesto de Gastos del Estado, es preciso efectuar las compensaciones propias a esos ingresos no concertados (INC) y que financian las cargas a cuyo sostenimiento contribuye el cupo.

La Ley Quinquenal de Cupo (artículo 6) recoge lo dispuesto en el Concierto Económico (artículo 56), concretándose los conceptos a deducir por compensaciones y determinándolos según la aplicación del índice de imputación:

- De los tributos no concertados.
- De los ingresos presupuestarios de naturaleza no tributaria.
- Del déficit o superávit de los Presupuestos Generales del Estado.
- Por los ingresos que financian las funciones y servicios traspasados al País Vasco en materia sanitaria y de servicios sociales de la Seguridad Social y que, con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ley, eran satisfechos al País Vasco mediante transferencias de la Tesorería General de la Seguridad Social, por aplicación de lo previsto en el régimen presupuestario regulado en los Reales Decretos 1536/1987, 1476/1987, 1946/1996 y 558/1998 de traspaso del INSALUD, IMSERSO e ISM.
- Compensaciones a la Diputación Foral de Álava por competencias y servicios no asumidos por la Comunidad Autónoma del País Vasco y que en provincias de régimen común corresponden al Estado.

5. Cálculo del cupo líquido.

Se establece el ejercicio 2002 como año base del quinquenio (artículo 8) y el cupo líquido es el resultado de deducir las compensaciones a), b) y c) antes expuestas.

KUPO LIKIDOA / CUPO LÍQUIDO = i CNA - i INC

KUPO LIKIDOA / CUPO LÍQUIDO = i (CNA - INC)

KUPO LIKIDOA / CUPO LÍQUIDO = i (PGE - CA - INC)

Kupo likidoa kalkulatuta, d) eta e) letretan adierazitako zenbatekoez murriztu behar da hura.

Una vez determinado el cupo líquido, se minora en el importe de las compensaciones indicadas con las

letras d) y e).

4.b.2 Bosturtekoaren gainerako urteetako kupo likidoa eta behin betiko likidazioa

Bosturtekoaren gainerako urteetako kupo likidoak kalkulatzeko, eguneratze-indize bat aplikatzen zaio abiaburu-urteko kupo likidoari. Itundutako zergengatiko diru-sarreren igoera adierazten du eguneratze-indizeak, baina autonomia-erkidegoei laga daitezkeen zergen igoera (Estatuko Sarreren Aurrekontuko I. eta II. kapituluan adierazitakoak) aintzat hartu gabe, kupo likidoari dagokion ekitaldiko zenbatekoaren eta abiaburu-urteko sarrera homogeneizatuen kopuruaren arteko diferentziari erreparatuta.

Berdin jokatuko da abiaburu-urtearen ondoren datozen urteetan, Kupoaren Bosturtekorako Legearen 6.2. artikuluan araututako konpentsazioarekin. Konpentsazio horrek INSALUD, IMSERSO eta ISM erakundeetako zerbitzu transferituen finantziazio-zatia hartzen du; aurreko etapan Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiko transferentziatzat jotzen zirenak.

Aintzat hartu behar dira bereganaturiko eskumenak aldatzearen ondorioak hurrengo ekitaldietako kupoetan (11. artikulua).

Bosturtekoaren abiaburu-urtearen ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen berriak beregain hartzen baditu, eta eskumen horien estatu-mailako urteko kostua Estatuaren kargen barruan hartu bazen kontuan bosturtekoaren abiaburu-urteko kupoa zehazterakoan, orduan, eskumen-aldatzearen kostu osoa kalkulatu beharko da, Estatuan eta urtean, Estatuaren ekitaldi horretako aurrekontu orokorren arabera.

Eskualdatze berria indarrean jartzeko eguna ekitaldiko urtarrilaren bata ez bada, hainbanatu egin beharko da; hartara, eskualdatzearen estatu-mailako urteko kostu osoa hartuko da kontuan, eta Euskadik eskumen berriak bereganatu dituen egunetik hasita kalkulatuko da proportzioa. Kalkulu hori eskualdaketa gauzatu den ekitaldiko kupoa zehazteko erabiliko da soilik. Murrizketa horrek kontuan hartuko ditu gastu arrunten benetako aldizkakotasuna eta Estatuaren inbertsioen benetako gauzatze-maila.

Transferentziak egin ondorengo ekitaldietako kupo likidoa kalkulatzeko, abiaburu-urteko kupo likidoari ondoko kopuru hau kenduko zaio: eskualdaketaren

4.b.2. Cupo líquido de los restantes años del quinquenio y liquidación definitiva

Para los años siguientes del quinquenio se aplica sobre el cupo líquido del año base un índice de actualización. Este índice se define como el incremento experimentado en la previsión de ingresos por tributos concertados, excluidos los susceptibles de cesión a las Comunidades Autónomas, en la parte que haya sido cedida, que figure en los Capítulos I y II del Presupuesto de Ingresos del Estado, entre el ejercicio al que se refiere el cupo líquido y los ingresos, debidamente homogeneizados, del año base del quinquenio.

Igualmente se operará en los años del quinquenio siguientes al año base con la compensación establecida en el artículo 6.2 de la Ley Quinquenal de Cupo referida a la parte de la financiación de los servicios traspasados del INSALUD, el IMSERSO y el ISM, que en la etapa anterior se recibían como transferencias de la Tesorería General de la Seguridad Social.

Para los cupos de los ejercicios siguientes han de considerarse los efectos sobre el cupo de la asunción de nuevas competencias (artículo 11).

En el caso de que en cualquiera de los ejercicios siguientes al año base del quinquenio, la Comunidad Autónoma asumiera nuevas competencias cuyo coste anual a nivel estatal se incluyó dentro de las cargas del Estado que se computaron para la determinación del cupo del año base del quinquenio, se procederá a calcular el coste total anual a nivel estatal asociado al traspaso en el ejercicio en que éste se produzca, según los Presupuestos Generales del Estado para el referido ejercicio.

En el supuesto de que la efectividad del nuevo traspaso no coincidiese con el 1 de enero del ejercicio, se procederá a prorratear el coste total anual a nivel estatal asociado al traspaso en dicho ejercicio proporcionalmente a la parte del año en que el País Vasco hubiera asumido tales competencias, con efectos exclusivos para la determinación del cupo del ejercicio en que se produzca el traspaso. La citada reducción proporcional tendrá en cuenta la periodicidad real de los gastos corrientes, así como el efectivo grado de realización de las inversiones del Estado.

Para el cálculo del cupo líquido de posteriores ejercicios al del traspaso se procederá a minorar el cupo líquido del año base del quinquenio en el

garaiko ekitaldiko estatu-mailako urteko kostu osoa zati eguneratze-indizea eragiketaren emaitza. Bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likido berrikusia erabiliko da eskualdaketaren ekitaldiko eta hurrengo ekitaldietako kupoa zehazteko. Bereganatutako eskumenen bat utziko balu Euskal Autonomia Erkidegoak, azalduriko prozedura bera jarraituko litzateke, baina alderantziz.

Eguneratze-indizearen benetako balioa aplikatuta likidatuko dira behin betiko kupo likidoak (12. artikulua). Salbuespenez, bosturtekoaren abiaburu-urteari dagokion kupo likidoa behin betiko kitatzeko, honela egin behar da: Estatuak bosturtekoaren abiaburu-urtean benetan lortu duen diru-bilketa likidoari benetako eguneratze-indizea aplikatuz ateratzen den benetako balioa alderatuko da Estatuko diru-sarreren aurrekontuan ekitaldi berean agertzen den pareko diru-bilketaren aurreikuspenarekin.

Bosturtekoaren abiaburu-urtean eta ondorengo urteetan, berdin jokatuko da INSALUD, IMSERSO eta ISM erakundeen eskualdaketei dagozkien konpentsazioak zehazteko.

Kupo likidoaren ekitaldiaren hurrengoko maiatzean egingo da behin betiko kitapena. Behin-behinerako finkatu ziren kupo likidoarekin eta konpentsazioarekin sorturiko diferentziak maiatzean bertan erregularizatuko dira, eta, hala badagokio, aipaturiko hilerako aurreikusita dagoen diru-sarrerarekin batera zenbatuko dira.

4.b.3. Arau komunak

Kupoaren Bosturtekorako Legeko IV. kapituluko 13. artikuluak arautzen du, Ekonomia Ituneko 60. artikuluak arututakoa bere eginez, Euskal Autonomia Erkidegoak ordaindu beharreko kopurua hiru zenbateko berdinetan abonatuko zaiola Estatuko Ogasun Publikoari urtero, maiatzean, irailean eta abenduan.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari eta Fabrikazioko Zerga bereziei dagozkien doiketak, bosturtekoaren abiaburu-urterako eta gainerako urteetarako arau komunen kapituluan jasotzen badira ere, aparte aztertzen dira geroko beste atal batzuetan, duten berezitasunari eta garrantzi kuantitatiboari erreparatuta.

importe que resulte de aplicar al coste total anual a nivel estatal en el ejercicio en el que se produzca el traspaso por aplicación del índice de actualización. El cupo líquido del año base del quinquenio, así revisado, será el que se utilice para la determinación del cupo del ejercicio en que se produce el traspaso y de los ejercicios posteriores. El mecanismo descrito se aplicará de manera inversa en el caso de que la Comunidad Autónoma del País Vasco dejase de ejercer competencias que tuviera asumidas.

Los cupos provisionales se liquidarán definitivamente (artículo 12) por aplicación del valor real del índice de actualización. Excepcionalmente, la liquidación definitiva del cupo líquido del año base del quinquenio se efectuará considerando el valor real del índice de actualización, que se deduzca de la recaudación líquida realmente obtenida por el Estado en el año base del quinquenio, respecto a la previsión homogénea de recaudación para ese mismo ejercicio que figure en el Presupuesto de Ingresos del Estado.

Tanto en los años siguientes del quinquenio como en el propio año base, en el señalamiento de las compensaciones definitivas correspondiente a los traspasos del INSALUD, el IMSERSO e ISM, se operará del mismo modo.

La liquidación definitiva se efectuará en el mes de mayo del ejercicio siguiente al que se refiere el cupo objeto de la misma y las diferencias que origine con el cupo líquido y la compensación fijados provisionalmente para el citado ejercicio se regularizarán en el citado mes de mayo, computándose, en su caso, con el ingreso previsto en el citado mes.

4.b.3. Normas comunes

En el Capítulo IV de la Ley Quinquenal de Cupo se establece que la cantidad a ingresar del cupo (artículo 13) en cada ejercicio se abonará a la Hacienda Pública del Estado en tres plazos iguales, durante los meses de mayo, septiembre y diciembre, recogiendo lo dispuesto en el Concierto Económico (artículo 60).

Respecto a los ajustes del Impuesto sobre el Valor Añadido y por los Impuesto Especiales de Fabricación, aunque en la Ley Quinquenal del Cupo aparecen formando parte del capítulo dedicado a las normas comunes del año base y a los restantes ejercicios del quinquenio, se analizan por separado en apartados posteriores, dada su especificidad e importancia cuantitativa.

5. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGARI DAGOKION DOIKUNTZA

Estatuko Administrazioaren eta EAEko Administrazioaren arteko finantza-doiketa bat da BEZaren doiketa, eta zerga biltzaile diren Administrazioen diru-bilketa teorikoak eta errealak egokitzeko egiten da. Muga fiskalik gabeko eremuak izanda, Administrazio baterako zein besterako aurreikusitako diru-bilketak ez dira bat etortzen lurraldeotan benetan bildutako zenbatekoekin.

Ondasunen eta zerbitzuen kontsumoa zergapetzen du BEZak, eta kontsumitzaileari jasanarazten zaio oso-osorik. Hala ere, oro har, ondasuna entregatu edo zerbitzua eman duen enpresaburu edo profesionalak egin behar izaten du, subjektu pasiboa den aldetik, zergaren ordainketa efektiboa. Azken horrek ondasuna edo zerbitzua emateko ordaindu behar izan duen BEZaren kopurua murrizten dio, hark jasanarazi duen BEZaren zenbatekoari.

Horiek horrela, ondasunen edo zerbitzuen kontsumoa ez bada, zati batean edo osorik, ekoitzi diren lurraldetik kanpo egiten, ez dira bat etorriko zerga bildu duen lurraldeak egindako diru-bilketa eta ondasunaren benetako kontsumoa gertatu den lurraldeko diru-bilketa. Zerga hori biltzeko moduak sortzen dituen arazoak konpontzeko bide bat zerga-eskumenak dituzten Administrazioen artean finantza-doiketak egitea da, magnitude makroekonomikoak erabilita (2002ko Ekonomia Ituneko 53. artikulua eta Kupoaren Bosturtekorako Legearen 14. artikulua).

Horri erreparatuta, egoiliarren kontsumoaren batez bestekoa (a) hartzen da erreferentziatzat, eta Estatu osoan BEZaren bidez biltzen den diruaren % 6,875 esleitzen zaio Euskadiri. Urteak dira ehuneko hori aldatu ez dela, adierazle hori egonkorra baita eta urtero berrikusteak ziurgabetasuna sortuko bailuke finantza-esparruan; gainera, aldaketak egiteko, negoziazio nekezak egin behar izaten dira.

$$a = \frac{\text{Euskadiko Egoiliarren Kontsumoa}}{\text{Estatuko Egoiliarren Kontsumoa (Kanariak, Zeuta eta Melilla kontuan hartu gabe)}}$$

Estatuari dagokio inportazioetako BEZaren bilketa (Ekonomia Ituneko 5. artikulua), eta horixe da, hain zuzen, doiketaren lehen elementua, aduanetan bildutako BEZari % 6,875 aplikatuta zehaztutakoa.

5. AJUSTE POR EL IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO

El Ajuste IVA constituye un ajuste financiero entre las Administraciones del Estado y del País Vasco. Su existencia se fundamenta en la necesidad de adecuar las recaudaciones, teóricas y reales, entre Administraciones tributarias. En un espacio sin fronteras fiscales la recaudación que se asigna a una u otra Administración, conforme a los puntos de conexión, no responde a la efectivamente soportada en sus respectivos territorios.

El IVA grava el consumo de bienes y servicios, y es soportado por el consumidor en su totalidad. Sin embargo, generalmente, el responsable de efectuar el ingreso del Impuesto, en calidad de sujeto pasivo, es el empresario o profesional que ha efectuado la entrega del bien o prestado el servicio. Éste resta del IVA repercutido el IVA soportado al pagar a sus proveedores las compras precisas para la obtención del bien o servicio que ha transmitido.

De esta forma, en la medida que el consumo final se efectúe en un territorio diferente de aquél donde se realizó la fabricación, total o parcial, se produce un desajuste en la recaudación entre el territorio donde se ha ingresado el Impuesto y el territorio donde se va a producir el consumo real del bien. Una solución a esta distorsión, originada por la mecánica recaudatoria del Impuesto, es realizar un ajuste financiero entre las Administraciones tributarias, basado en magnitudes macroeconómicas (artículo 53 del Concierto de 2002 y artículo 14 de la Ley Quinquenal de Cupo).

Ello significa, tomando como referencia el consumo relativo de los residentes (a), atribuir al País Vasco el 6,875% de la recaudación por IVA en todo el Estado. Este porcentaje no ha variado a lo largo de los años, dada la estabilidad de este indicador y la incertidumbre financiera que supondría introducir revisiones anuales, fruto de arduas negociaciones.

$$a = \frac{\text{Consumo Residentes País Vasco}}{\text{Consumo Residentes Estado (menos Canarias, Ceuta y Melilla)}}$$

Así, la recaudación del IVA en las importaciones, que es realizada exclusivamente por la Administración del Estado (artículo 5 del Concierto Económico), constituye el primer componente del Ajuste, determinado por aplicación del 6,875% del

IVA recaudado en Aduanas.

Barne-eragiketen bidez egindako bilketetan sortutako distortsioak zuzentzeko, lotura-puntuak aplikatuta kalkulatzen da Euskadik bil dezakeena, zenbateko makroekonomikotan (b). Teorian kalkulatutako bilketa-ehuneko hori Estatuan egindakoaren % 5,765ekoa da. Ehuneko hori kalkulatzeko, kapital-eraketa gordinaren eta esportazioen zenbatekoa kentzen zaio erantsitako balio gordinari, eta zenbateko horri Europar Batasuneko herrialdeek Euskadin egindako inportazioen zenbatekoa gehitzen zaio, agregatu horrek Estatuan izan duen emaitzarekiko kalkulatuta. Hala, Euskadiren bilketa-ahalmen erlatiboa adierazten du bigarren ehuneko horrek.

Para la corrección de la distorsión en la recaudación por operaciones interiores, se considera la recaudación obtenible por el País Vasco por aplicación de los puntos de conexión, en términos macroeconómicos (b). Esta recaudación teórica se sitúa en el 5,765% del conjunto estatal, proporción determinada por el valor añadido bruto menos la formación bruta de capital y las exportaciones, más las importaciones de los países de la Unión Europea en el País Vasco, respecto del mismo agregado en el Estado. Este segundo porcentaje mide, por tanto, la capacidad recaudatoria relativa del País Vasco.

$$b = \frac{v - f - e + i}{V - F - E + I}$$

$$b = \frac{v - f - e + i}{V - F - E + I}$$

v: Euskadiko faktoreen kostuari erantsitako balio gordina.

V: Estatuko faktoreen kostuari erantsitako balio gordina (Kanariak, Zeuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

f: Euskadiko kapital-eraketa gordina.

F: Estatuko kapital-eraketa gordina (Kanariak, Zeuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

e: Euskadiko esportazioak.

E: Estatuko esportazioak (Kanariak, Zeuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

i: Euskadik Erkidegoan egindako ondasun-eskuraketak.

I: Estatuak Erkidegoan egindako ondasun-eskuraketak (Kanariak, Zeuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

v: Valor añadido bruto al coste de los factores del País Vasco.

V: Valor añadido bruto al coste de los factores del Estado (menos Canarias, Ceuta y Melilla).

f: Formación bruta de capital del País Vasco.

F: Formación bruta de capital del Estado (menos Canarias, Ceuta y Melilla).

e: Exportaciones del País Vasco.

E: Exportaciones del Estado (menos Canarias, Ceuta y Melilla).

i: Adquisiciones intracomunitarias de bienes en el País Vasco.

I: Adquisiciones intracomunitarias de bienes en el Estado (menos Canarias, Ceuta y Melilla).

Barne-eragiketengatik egindako diru-bilketarena da doiketaren bigarren elementua, eta horren zenbatekoa zehazteko, bi ehuneko hauen arteko diferentzia kalkulatzen da lehenbizi: % 6,875 (Euskadiko egoiliarren kontsumo erlatiboaren) eta % 5,765 (Euskadiren zerga-bilketako gaitasun teorikoaren). Ondoren, eragiketa horren emaitza den ehunekoa, % 1,110, barne-eragitetako BEZak Estatu osoan izandako diru-bilketari aplikatzen zaio; hau da, Aduanetan bildutakoa kenduta.

Hala ere, zenbaki teoriko horiek egiaz egindako barne-eragiketen zerga-bilketarekin bat etorri diren ala ez ikusteko, doiketa ez da egiten

El segundo componente del Ajuste, relativo a la recaudación por operaciones interiores, se determina, por tanto, por la diferencia entre el 6,875% (consumo relativo de los residentes del País Vasco) y el 5,765% (capacidad recaudatoria teórica obtenible por el País Vasco), aplicándose el porcentaje obtenido del 1,110% a la recaudación por IVA operaciones interiores en el total estatal, es decir, una vez excluida la obtenida en Aduanas.

Sin embargo, para contemplar la eficacia recaudatoria, respecto de las operaciones interiores, el Ajuste no se realiza sobre la suma de las

Administrazioek egindako zerga-bilketen baturarekiko. Kontuan hartu behar baita teorian dagokiona baino proportzio handiagoan bilduko balitu Administrazioren batek zergak, horiek biltzen izandako eraginkortasun handiago hori ere konpartitu behar lukeela Administrazio horrek. Horiek horrela, BEZagatik Estatuan egindako diru-bilketa teorikoari erreparatzen zaio, eta ez diru-bilketa errealari; ondorioz, bi aukera daude: Euskadiko zerga-bilketa erreala izatea handiagoa edo proportzio hura lurralde erkidean izatea handiagoa, eta horri erreparatuta aplikatuko dira, hurrenez hurrez, 5,765eko edo 94,235eko ehunekoak. Bi zerga-bilketa teoriko horietatik txikiena aukeratzen da, eta horri aplikatzen zaio % 1,110eko ehunekoa.

$$RF_{PV} = RR_{PV} + a^* RR_{AD} + (a - b)^* H$$

Non:

$$H = \frac{RR_{pv}}{d} \quad \text{baldin eta} \quad \frac{RR_{pv}}{RR_{TC}} \leq \frac{d}{1-d}$$

$$H = \frac{RR_{TC}}{1-d} \quad \text{baldin eta} \quad \frac{RR_{pv}}{RR_{TC}} \geq \frac{d}{1-d}$$

RF_{PV}: Urteko azken zerga-bilketa Euskadin.

RR_{PV}: Urteko benetako zerga-bilketa Euskadin.

RR_{TC}: Urteko benetako zerga-bilketa lurralde erkidean.

RR_{AD}: Urteko benetako zerga-bilketa inportazioak direla-eta

Apirilean, uztailean, urrian eta abenduan egiten da BEZaren doiketa, igarotako hiruhilekoetan zerga horrek bildutakoari erreparatuta (abenduan, azaroko datuak estrapolatzen dira).

Hil horietan, zenbatekoak Euskadira transferitzen dira; hala ere, hurrengo urteko apirilean dagokion kitapena egin beharko da, behin betiko bildutako zenbatekoaren berri izatean.

Azkenik, nabarmentzekoa da sistema hori eta Erkidegoko BEZa biltzeko onartzekoa den erregimena oso antzekoak direla. Jatorrian zergapetuko da, eta Europar Batasuneko Estatuen artean muga fiskalik ez denez, lehen aipatutakoen antzeko distortsioak edo bat ez etortzeak gertatuko dira.

Estatuaren eta Euskadiren artean adostu denaren antzeko formularen bat erabil dezake Europar Batasunak horiek konpontzeko, baina, noski,

recaudaciones obtenidas por las Administraciones. En caso que una Administración recaudara en mayor proporción que lo que teóricamente le corresponde, ello implicaría compartir su mayor eficacia. Así, se considera una recaudación teórica por IVA total estatal y no la real, surgiendo dos posibilidades, según se eleven las recaudaciones reales obtenidas en el País Vasco o en Territorio Común, aplicando los porcentajes 5,765 ó 94,235. De estas dos recaudaciones teóricas se toma la menor y sobre ella se aplica el porcentaje del 1,110%.

$$RF_{PV} = RR_{PV} + a^* RR_{AD} + (a - b)^* H$$

Siendo:

$$H = \frac{RR_{pv}}{d} \quad \text{si} \quad \frac{RR_{pv}}{RR_{TC}} \leq \frac{d}{1-d}$$

$$H = \frac{RR_{TC}}{1-d} \quad \text{si} \quad \frac{RR_{pv}}{RR_{TC}} \geq \frac{d}{1-d}$$

RF_{PV}: Recaudación final anual para el País Vasco.

RR_{PV}: Recaudación real anual del País Vasco.

RR_{TC}: Recaudación real anual del Territorio Común.

RR_{AD}: Recaudación real anual por importaciones

Es en los meses de abril, julio, octubre y diciembre cuando se efectúa el Ajuste IVA, de acuerdo a las recaudaciones de los trimestres vencidos (extrapolándose los datos de noviembre en el mes de diciembre).

Su importe es transferido durante esos meses a la Comunidad Autónoma, sin perjuicio de la liquidación que deba producirse en abril del ejercicio siguiente, una vez conocida la recaudación definitiva.

Por último, cabe señalar la similitud existente entre este sistema y el previsible régimen definitivo del IVA comunitario. La tributación se efectuará en origen y, al no existir fronteras fiscales entre los Estados miembros, se producirán desajustes del mismo tipo que los reseñados.

La solución que la Unión Europea tenga que ofrecer podría basarse en una fórmula similar a la acordada entre el Estado y el País Vasco, aunque

zenbait egokitzapen egin beharko ditu.

6. FABRIKAZIOKO ZERGA BEREZIEI DAGOKIEN DOIKETA.

BEZaren doiketari buruz esandakoa errepikatu dezakegu hemen; izan ere, Fabrikazioko Zerga Berezien doiketa finantza-doiketa bat da, zerga-biltzaile diren Administrazioen diru-bilketa teorikoak eta errealak egokitzeko egiten da.

Lau doiketa egiten dira fabrikazioko zerga berezietan: baterako doiketa bat egiten zaie Alkoholaren eta Edari Eratorrien eta Tarteko Ekoizkinen zergei, eta beste bana Garagardoaren gainekoari, Hidrokarburoen gainekoari eta Tabako Moten Fabrikazioaren gaineko Zergari.

Doiketa horien oinarri teorikoa Balio Erantsiaren gaineko Zergak duen bera da, eta indarreko Ekonomia Ituneko 54. artikuluak arautzen du haren adierazpen matematikoa.

BEZaren doiketako eskemari jarraitzen diote doiketa horiek, kontsumo-indizeei eta zergei egozgarri zaien diru-bilketako gaitasunari erreparatzen baitiote.

Horrenbestez, foru-aldundiek Fabrikazioko Zerga Bereziengatik bildutako zenbatekoei inportazioengatiko doiketa bat egingo zaie, Estatuko Ogasuna baita haiek bil ditzakeen bakarra, eta barne-eragiketengatiko beste doiketa bat egingo zaie, zerga horiek zergapetutako produktuen azken kontsumoa fabrikazio-lurraldetik kanpo egin izanak sor dezakeen distortsioa zuzentzeko. Parametro hauek arautu dira doiketak egiteko:

evidentemente con las necesarias adaptaciones.

6. AJUSTES POR LOS IMPUESTOS ESPECIALES DE FABRICACIÓN

Al igual que se ha apuntado en relación al Ajuste IVA, los Ajustes a los Impuestos Especiales de Fabricación constituyen ajustes financieros, cuyo fundamento es la necesidad de adecuar las recaudaciones, teóricas y reales por estos impuestos, entre Administraciones tributarias.

Los Ajustes por impuestos especiales de fabricación son cuatro: uno conjunto para los impuestos de Alcohol y Bebidas Derivadas y de Productos Intermedios, uno para el Impuesto sobre la Cerveza, otro para el Impuesto sobre Hidrocarburos y el último para el Impuesto sobre las Labores del Tabaco.

El fundamento teórico de estos ajustes es idéntico al recogido en relación al Impuesto sobre el Valor Añadido, y su expresión matemática está recogida en el artículo 54 del actual Concierto Económico.

Estos ajustes, repiten el esquema ya utilizado en el IVA, recurriendo para ello a los índices de consumo y la capacidad recaudatoria atribuibles a cada uno de los impuestos.

Así, la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación obtenida en las Diputaciones Forales será objeto de un ajuste por importaciones, ya que su recaudación es realizada exclusivamente por la Hacienda del Estado, y un ajuste por operaciones interiores, para corregir la distorsión derivada del hecho de que el consumo final de los productos gravados por estos impuestos se produzca en un territorio distinto al que se realiza la fabricación. Los parámetros tipificados para la práctica de estos ajustes son los siguientes:

%

	Aduana-doiketa Ajuste aduanas	**Zerga-bilketako Indizea** Índice de recaudación	**Barne-Eragiket. Doiketak** Ajuste operac. interiores
Alkohola Alcohol	7,13	1,932	5,198
Garagardoa Cerveza	7,13	1,731	5,399
Hidrokarburoak Hidrocarburos	6,56	8,26	-1,7

Ez dira parametroak zehaztu Tabako Moten Fabrikazioaren gaineko Zergarako; izan ere, Zazpigarren Xedapen Orokorrak arautzen du, tabakoak fabrikatzeko eta merkaturatzeko egungo

En el caso del Impuesto sobre las Labores del Tabaco, los parámetros anteriores no han sido determinados, puesto que, según se prevé en la Disposición Transitoria Séptima, en tanto no se

erregimena aldatzen ez den bitartean, adierazpen matematiko hau aplikatuko dela (54. artikulua) haren doiketa egiteko:

$$RF_{PV} = RR_{PV} + c' * RR_{TC} - (1-c') * RR_{PV}$$

Non:

RF_{PV}: Urteko azken zerga-bilketa Euskadin, Tabako Motak direla-eta.

RR_{PV}: Urteko benetako zerga-bilketa Euskadin, Tabako Motak direla-eta.

RR_{TC}: Urteko benetako zerga-bilketa lurralde erkidean, Tabako Motak direla-eta

$$c' = \frac{\text{Euskadiko tabako eta tinbre saltokiei emandako tabako-motak}}{\text{Zergaren ezarpen-eremuan kokatutako tabako eta tinbre saltokiei emandako tabako-motak}}$$

Beste zergak doitzeko finkatutako parametroetan ez bezala, c´ adierazlearen balioa ekitaldi bakoitzean zehaztuko da, Tabakoaren Merkatuko Komisarioak emandako informazioa oinarritzat hartuta. Adierazle horrek neurtu egiten du Euskadiko tabako- eta tinbre-saltokiei emandako tabako-moten balioaren eta zergaren ezarpen-eremuan kokatutakoei emandakoen balioaren arteko erlazioa.

Hori dela-eta, Kupoaren 2002-2006 Bosturtekorako Legeak arautzen du formulazio hori erabiliko dela Tabako Moten Fabrikazioaren gaineko Zergaren doiketa egiteko.

Hala ere, Fabrikazioko Zerga Berezien doiketek badute diferentzia bat BEZa doitzeko metodologiarekiko. Zerga-bilketaren datu errealen bilakaera atipiko batek izan dezakeen eragina ahalik eta gehien txikitzeko, kupoa 2002-2006 bosturtekorako finkatzeko metodologia onartzekoa den 13/2002 Legeko 15. artikuluak arautzen du, datu teorikoen eta errealen aldea % 10ekoa baino handiagoa bada alkoholaren, eratorritako edarien, tarteko produktuen eta garagardoaren gaineko zergetan eta % 7koa baino handiagoa hidrokarburoen gainekoan, hasiera finkatutako parametroak zuzendu egingo direla, harik eta datuak muga horien barruan kokatu arte.

modifique el actual régimen de fabricación y comercio de las Labores del Tabaco, el ajuste para este Impuesto (artículo 54) será el resultante de aplicar la siguiente expresión matemática:

$$RF_{PV} = RR_{PV} + c' * RR_{TC} - (1-c') * RR_{PV}$$

Siendo:

RF_{PV}: Recaudación final anual para el País Vasco por Labores de Tabaco.

RR_{PV}: Recaudación real anual del País Vasco por Labores de Tabaco.

RR_{TC}: Recaudación real anual del Territorio Común por Labores de Tabaco

$$c' = \frac{\text{Labores del tabaco suministradas a expendedurías de tabaco y timbre situadas en el País Vasco}}{\text{Labores de tabaco suministradas a expendedurías de tabaco y timbre situadas en territorio de aplicación del Impuesto}}$$

A diferencia de los parámetros fijados para los ajustes de los otros impuestos, el valor del indicador c' que mide la relación entre el valor de las Labores del Tabaco suministradas a expendedurías de Tabaco y Timbre situadas en el País Vasco y el de las suministradas a expendedurías situadas en el territorio de aplicación del Impuesto, se determina en cada ejercicio, en función de la información suministrada por el Comisionado del Mercado de Tabacos.

Por ello, la Ley Quinquenal de Cupo 2002-2006 determina el cálculo del ajuste por el Impuesto Especial sobre las Labores del Tabaco de acuerdo con esta última formulación.

Ahora bien, los Ajustes por Impuestos Especiales de Fabricación presentan una novedad respecto a la metodología del Ajuste IVA. A fin de minimizar el efecto de un comportamiento atípico de los datos reales de recaudación, el artículo 15 de la Ley 13/2002, que aprueba la metodología de determinación del cupo del País Vasco para el quinquenio 2002-2006, señala que en el caso de que los datos reales difieran de los teóricos en más de un 10% en el de Alcohol, Bebidas Derivadas y Productos Intermedios y en el de Cerveza, y en más del 7% en el de Hidrocarburos, los parámetros inicialmente fijados se corregirán de forma que los nuevos parámetros se encuentren dentro de los respectivos límites.

7. FINANTZA-KONPENTSAZIOAK

13/2002 Legeko lehen xedapen gehigarriak eutsi egiten die Kupoaren 1997-2001 Bosturtekorako Legeak (37/1997 Legea) lehen aldiz ezarritako finantza-konpentsazioei, eta horren helburua da, 2.a atalean adierazi den moduan, Fabrikazioko Zerga Berezien ituntzeen finantza-neutraltasuna bermatzea.

Finantza-konpentsazio horiek abiaburuko 2002. urtean eta bosturtekoaren gainerako urteetan izango duen kopurua zehazteko eta horiek behin-behinean eta behin betiko kalkulatzeko, aldaketa-indize bat aplikatuko zaie 1997an finkatutako konpentsazioei. Zatiketa hau egingo da aldaketa-indize hori zehazteko: dagokion ekitaldian zerga bereziengatik haien aplikazio-eremuan biltzea aurreikusten den zenbatekoa zati kontzeptu horietan 1997an aurreikusi ziren diru-sarreren zenbatekoa.

Kupoa ordaintzeko hiletan (maiatzean, irailean eta abenduan) egiten dira, bosturtekoaren ekitaldi bakoitzean, Administrazio baten ala bestearen aldeko behin-behineko finantza-konpentsazioak. Behin betiko likidazioak egin ondoren gerta daitezkeen aldeak hurrengo ekitaldiko maiatzean ordainduko dira.

7. COMPENSACIONES FINANCIERAS

La disposición adicional primera de la Ley 13/2002 mantiene la vigencia de las compensaciones financieras establecidas por vez primera en la Ley Quinquenal de Cupo 1997-2001 (Ley 37/1997), a fin de garantizar la neutralidad financiera de la concertación de los Impuestos Especiales de Fabricación, como ya se ha expuesto en el apartado 2.a anterior.

El importe de estas compensaciones financieras tanto para el año base 2002 como para los siguientes del quinquenio, así como para su cálculo provisional y definitivo, por aplicación de un índice de variación, definido como el cociente entre la previsión de ingresos por Impuestos Especiales del ejercicio en el conjunto del territorio de aplicación de dichos Impuestos y los ingresos previstos por idénticos conceptos en el año 1997, a las compensaciones fijadas en dicho ejercicio 1997.

Las compensaciones financieras provisionales que resulten a favor de una u otra Administración para cada ejercicio del quinquenio, se hacen efectivas junto con los plazos de pago del cupo, esto es, en los meses de mayo, setiembre y diciembre. La diferencia que pueda resultar de su liquidación definitiva se hará efectiva en el mes de mayo del ejercicio siguiente.

8. EUSKADIKO ERAKUNDEEN ARTEKO BALIABIDE-BANAKETA

8.a. Ezaugarri nagusiak

Autonomia Estatutuko 42. artikuluak arautzen du lurralde historikoen ekarpenak izango direla Euskadiko Ogasun Orokorrak izango dituen sarreretako batzuk, eta horiek Euskadiko aurrekontu-gastuak estaltzeko lagungarri izango direla. Halaber, Autonomia Estatutuak xedatzen du Eusko Legebiltzarreko lege batek arautuko dituela lurralde historikoen ekarpenak ekitatez banatzeko irizpideak eta prozedura.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak finkatzen du eskumenak Euskadiko bi instituzio-maila horien artean banatzeko arau-esparrua, baliabideak finantzatzeko eta banatzeko mekanismoak ezartzen ditu, eta horiek zehazteko irizpideak eta prozedurak arautzen. Lege hori Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoen Foruzko Jardute-erakundeen arteko Harremanei buruzkoa da, Lurralde Historikoen Lege (LHL)

8. DISTRIBUCIÓN DE RECURSOS ENTRE LAS INSTITUCIONES DEL PAÍS VASCO

8.a. Características generales

El Estatuto de Autonomía prevé que los ingresos de la Hacienda General del País Vasco estarán constituidos, entre otros, por las aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales, como expresión de la contribución de los Territorios Históricos a los gastos presupuestarios del País Vasco (artículo 42). Así mismo, se dice que una Ley del Parlamento Vasco establecerá los criterios de distribución equitativa y el procedimiento por el que se convendrá y harán efectivas las aportaciones de cada Territorio Histórico.

La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, más conocida como Ley de Territorios Históricos (LTH), es en consecuencia la que determina el marco interno de distribución de competencias y establece los mecanismos de financiación y distribución de recursos entre ambos niveles institucionales, estableciendo los criterios y procedimientos que deben seguirse para su

esaten zaio gehienetan.

Euskal autonomiak eta lurralde historikoek beren eskumenak erabiltzeko finantza- eta aurrekontu-autonomia dutela adierazten du 14.1 artikuluak. Halaber, 16. artikuluak arautzen du lurralde historikoek lagundu egingo dutela beren gain hartu ez dituzten EAE osoko karga orokorrak, eta horretarako foru-aldundiek ekarpenak egingo dizkiotela Euskadiko Ogasun Orokorrari.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartu behar ditu, gutxienez hiru aurrekontu-ekitaldirako, Ekonomia Itunetik eratorritako baliabideak banatzeko metodologia eta lurralde historikoek Euskadiko Ogasun Orokorrari egin beharreko ekarpenak; hala ere, epe hori laburragoa izan daiteke, baldin eta aparteko inguruabarrek hala eskatzen badute (22.8 artikulua). Eusko Jaurlaritzak artikulu bakarreko lege-proiektu baten bidez helarazi behar dio metodologia hori Eusko Legebiltzarrari, onar dezan.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak sei kide izango ditu (28. artikulua); Eusko Jaurlaritzak hiru izendatuko ditu eta foru-aldundiek bana. Kontseiluak aho batez hartuko ditu erabakiak, LHLak gehiengo kualifikatua eskatzen duenean izan ezik.

Horrez gain, Lurralde Historikoen Legeak arautzen du Ekonomia Ituna kudeatzetik sortutako diru-sarrerak, Estatuari ordaindu beharreko kupoa deskontatu ondoren, Euskadiko Ogasun Orokorrari eta foru-ogasunei banatuko zaizkiela (20.1 artikulua), Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak adostutakoari jarraituz (22.1 artikulua) eta indarreko ordenamendu juridikoak batari zein besteari ematen dizkien eskumenei eta/edo zerbitzuei erreparatuta (22.2 artikulua).

Foru-aldundien ekarpena, funtsean, lurralde historiko bakoitzaren errentarekiko proportzio zuzenean zehaztuko da. Halaber, haztapena alderantziz proportzionala izango da lurralde historiko bakoitzaren ahalegin fiskalaren eta Euskadi osoko batez besteko ahalegin fiskalaren arteko erlazioarekiko (22.6 artikulua). Zerga-kontzeptu guztiengatik (udal-ordainarazpen zuzenekoak barne) urte batean bildutako zenbatekoen eta urte horretako errentaren arteko erlazioa adierazten du ahalegin fiskalak.

Arrisku konpartituaren printzipioa finkatu zuen Lurralde Historikoen Legeak, eta, gerora, Ekarpen Legeek zehaztu egin dute printzipio hori. Hala, bi instituzio-maila horien arteko harreman-eredu bati

determinación.

Se reconoce la autonomía financiera y presupuestaria de la Comunidad Autónoma y cada Territorio Histórico para el ejercicio de sus respectivas competencias (artículo 14.1). Al mismo tiempo, los Territorios Históricos contribuirán al sostenimiento de todas las cargas generales del País Vasco no asumidas por los mismos, a cuyo fin las Diputaciones Forales efectuarán sus aportaciones a la Hacienda General del País Vasco (artículo 16).

La metodología de distribución de los recursos derivados del Concierto Económico y la determinación de las aportaciones de cada Territorio Histórico a la Hacienda General del País Vasco deben aprobarse por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas para períodos mínimos de tres ejercicios presupuestarios, salvo circunstancias excepcionales que aconsejen periodos inferiores (artículo 22.8). Esta metodología debe elevarse por el Gobierno Vasco al Parlamento en forma de proyecto de Ley de artículo único.

El Consejo Vasco de Finanzas Públicas (articulo 28) estará integrado por seis miembros, tres designados por el Gobierno y los otros tres por las Diputaciones Forales, uno por cada una de ellas. Sus acuerdos se adoptaran por mayoría absoluta de sus miembros, salvo en aquellos casos en que la LTH exige una mayoría cualificada

La LTH establece, también, que los ingresos derivados de la gestión del Concierto, una vez descontado el cupo a satisfacer al Estado, se distribuirán entre la Hacienda General del País Vasco y las Haciendas Forales (artículo 20.1), según acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas (artículo 22.1), en función de las competencias y/o servicios de los que sean titulares de acuerdo con el ordenamiento jurídico vigente (artículo 22.2).

La aportación de cada Diputación Foral se determinará básicamente en proporción directa a la renta de cada Territorio Histórico. Así mismo, se ponderará necesariamente en forma inversamente proporcional a la relación entre el esfuerzo fiscal de cada Territorio Histórico y el esfuerzo fiscal medio en el conjunto del País Vasco (artículo 22.6). El esfuerzo fiscal reflejará la relación existente entre el importe de la recaudación anual por todos los conceptos tributarios, incluidos los de exacción municipal directa, y la renta del mismo año.

Por tanto, en la LTH se consagra el principio del riesgo compartido, posteriormente desarrollado por las sucesivas Leyes de Aportaciones, se define un modelo de relaciones entre los dos niveles

helduz, erakunde bakoitzaren eskumenei erreparatuta banatzen dira baliabideak, eta lurralde historiko bakoitzaren errentarekiko proportzio zuzenean kalkulatzen foru-aldundiek egin beharreko ekarpenen zenbatekoa.

Horrenbestez, hauek dira Euskadiko Administrazio Orokorraren eta lurralde historikoen artean baliabideak banatzeko ereduaren ezaugarri orokorrak:

- Ekonomia Ituna kudeatzetik lortutako baliabideak foru-ogasunen eskumenetan eta aurrekontuetan jasotzen dira.

- Instituzio-maila bakoitzari dagozkion eskumenen arabera banatzen dira baliabide horiek.

- Alde biko finantza-harremanak egiten dira, Euskadiko erakunde orokorren eta foru-organoen artean.

- Arrisku konpartituaren irizpidea da banaketa-ereduaren ardatza, lau erakunde horiek konpartitzen baitute lurralde historikoek bildutako zerga itunduek berez dakarten arriskua.

Ezaugarri horiek banaketa-ereduaren ikuspegi bat deskribatzen dute, baliabideen "banaketa-eredu bertikala" deritzona; hau da, Euskadiko erakunde orokorren eta foru-organoen arteko harremanak deskribatzen dituzte. Ezaugarri horiez gain, lurralde historiko bakoitzaren ekarpena erabakitzeko eta zehazteko ereduaren ezaugarriak ditugu; hau da, baliabideen "banaketa-eredu horizontalarenak".

Ekarpen Legeek garatu dute baliabideak banatzeko eredu hori, indarraldi-epe hauetarako:

- Otsailaren 15eko 2/1985 legeak, 1985 urterako.

- Irailaren 26ko 7/1985 Legeak, 1986-1988 eperako.

- Ekainaren 29ko 9/1988 Legeak, 1989-1991 eperako.

institucionales, estableciendo el reparto de los recursos en función de la competencia de cada uno de ellos y se regula que la aportación de cada Diputación Foral se determinará básicamente en proporción directa a la renta de cada Territorio Histórico.

Así, el modelo de distribución de recursos entre Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma de Euskadi y los Territorios Históricos cuenta con las siguientes características generales:

- Los recursos procedentes del Concierto Económico se asignan, competencial y presupuestariamente, a las Haciendas Forales.

- Estos recursos se distribuyen en función de las competencias de las que sea titular cada nivel institucional.

- Las relaciones financieras se producen de forma bilateral, entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y el conjunto de los Órganos Forales.

- El modelo de reparto atiende al criterio de riesgo compartido, configurando un modelo en el que las cuatro instituciones comparten el riesgo inherente a la recaudación por tributos concertados de cada uno de los Territorios Históricos.

Estas características generales se refieren especialmente a una parte del modelo, lo que se ha dado en llamar "modelo de distribución vertical" de los recurso, que trata las relaciones entre las Instituciones Comunes y el conjunto de los Órganos Forales. A estas características han de añadirse las correspondientes al mecanismo que determina y especifica la contribución de cada Territorio Histórico, es decir, el "modelo de distribución horizontal" de los recursos.

Este modelo de distribución de recursos se ha venido desarrollando en las sucesivas Leyes de Aportaciones, con diferentes períodos de vigencia:

- Ley 2/1985, de 15 de febrero, vigente para el año 1985.

- Ley 7/1985, de 26 de septiembre, aplicable al período 1986-1988.

- Ley 9/1988, de 29 de junio, para el período 1989-1991.

- Azaroaren 15eko 5/1991 Legeak, 1992-1996 eperako.

- Urriaren 31ko 6/1996 Legeak, 1997-2001 eperako.

- Urriaren 4ko 6/2002 Legeak, 2002-2006 eperako.

6/1996 Legeak (gerora, 14/1997 Legeak egokitutakoa) berretsi egin zuen, funtsean, baliabideak banatzeko aurreko legeek erabili zuten sistema. Alabaina, berrikuntza nabarmenak ere arautu zituen:

- Baliabideen banaketa bertikala egiteko koefizientea aldatu zuen, 1994an, 1996an eta 1997an hartutako eskumen berriak jasotzeko.

- Ereduan jaso zituen Kupoaren Bosturtekorako Legean araututako finantza-konpentsazioak.

- Finantza-konpentsazioak eta Fabrikazioko Zerga Bereziengatiko doiketa berriak lurralde historikoei egozteko irizpideak zehaztu zituen.

- Barne-produktu gordinak azken lau urteetan izandako pisu erlatiboen batez besteko aritmetikoa erabili zuen errenta-adierazletzat, lurralde bakoitzeko merkatu-prezioek Euskadi osokoekiko zuten erlazioari erreparatuta.

- Ekonomia Itunaren azken egokitzapena medio, bi ekonomia-adierazle gehiago erabili zituen bilketa-ahalmena kalkulatzeko; hala nola, Erkidego barruan egindako eskurapen ez energetikoak eta matrikulatutako autoen kopurua.

- Zerga itunduetatik eskuratutako ondasun eta eskubideetarako erregistro bateratu bat sortu zuen.

- Foru-organoei gomendatzen zien toki-erakundeetara bidera zezatela, zerga itunduen bilketaren partaidetza gisa, foru-aldundi bakoitzari dagozkion baliabideen, gutxienez, % 53.

- Urteko Elkartasun Funts bat sortu zuen, Euskadi osoko erakundeek eta foru-aldundiek egindako ekarpenez osatua. Funts horren helburua zen Euskadi osoko diru-bilketan

- Ley 5/1991, de 15 de noviembre, para el período 1992-1996.

- Ley 6/1996, de 31 de octubre, vigente para el período 1997-2001.

- Ley 6/2002, de 4 de octubre, aplicable al período 2002-2006.

La Ley 6/1996, posteriormente adaptada por la Ley 14/1997, reitera en lo sustancial el sistema de distribución de recursos utilizado en las Leyes anteriores. Sin embargo, se incorporaron algunas novedades reseñables:

- Se modifica el coeficiente vertical de distribución para recoger las nuevas competencias asumidas en 1994, 1996 y 1997.

- Se incorpora al modelo las compensaciones financieras establecidas en la Ley Quinquenal de Cupo.

- Se definen los criterios para la imputación de las compensaciones financieras y de los nuevos Ajustes por Impuestos Especiales de Fabricación a los Territorios Históricos.

- Utilización como indicador de renta de la media aritmética de los pesos relativos de los datos de los cuatro últimos años del Producto Interior Bruto a precios de mercado de cada territorio relativo al total de la Comunidad Autónoma.

- Se incluyen dos nuevos indicadores económicos en el cálculo de la capacidad recaudatoria, adquisiciones intracomunitarias no energéticas y número de turismos matriculados, motivado en la nueva adaptación del Concierto Económico.

- Se crea un registro conjunto de todos los bienes y derechos obtenidos como consecuencia de la recaudación de los tributos concertados.

- Se recomienda a los Órganos Forales que destinen a sus Entes Locales, en concepto de participación en la recaudación por tributos concertados, como mínimo el 53% de los recursos que corresponden a cada Diputación Foral.

- Se crea un Fondo de Solidaridad anual, al que contribuirán las Instituciones Comunes y las tres Diputaciones Forales, con el objeto de asegurar que la participación relativa en la

lurralde historiko bakoitzak izango zuen partaidetza haren koefiziente horizontalaren % 99ra iritsiko zela bermatzea.

recaudación total del País Vasco para cada Territorio Histórico alcance el 99% de su coeficiente horizontal.

Urriaren 31ko 6/1996 Legearen indarraldia amaitu aurretik (2001eko abenduaren 31n amaitzen zen), beharrezkoa zen Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak erabaki bat hartzea, hurrengo ekitaldietako ekarpenei buruz. Hala ere, Ekonomia Ituna berritzeko Estatuarekin egin daitezkeen negoziazioen harian, euskal Administrazioen arteko finantza-neutraltasunaren printzipioari eutsi behar zitzaiola argi izanda, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak erabaki zuen Estatuarekin aldaketak adostu arte atzeratu behar zirela baliabideak banatzeko eta ekarpenak zehazteko metodologia berri bati buruzko erabakiak.

Antes de la finalización de la vigencia de la Ley 6/1996, de 31 de octubre (el 31 de diciembre de 2001), se hacía necesario que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas adoptase un acuerdo en relación a la determinación de las Aportaciones para los próximos ejercicios. Sin embargo, al objeto de mantener el principio de neutralidad financiera entre las Administraciones públicas vascas en las modificaciones que pudieran introducirse en el proceso de renovación del Concierto Económico con el Estado, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas consideró conveniente que el acuerdo sobre una nueva metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones se pospusiera hasta que se alcanzasen los acuerdos con el Estado.

Hala ere, 2002 ekitaldiko aurrekontuak egiteko, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek beharrezkoa zuten Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren ekitaldi horretako ekarpenei buruzko erabaki har zezaten eta hura Eusko Legebiltzarrak onar zezan. Hori dela-eta, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2001eko urriaren 15ean egindako bilkuran erabaki zuen zer ekarpen egin behar zuten foru-aldundiek Euskadi osoko erakundeen 2002an izango zituzten kargei eusten laguntzeko. Zenbateko hori kalkulatzeko, urriaren 31ko 6/1996 Legeko metodologia erabili zen. Azaroaren 30eko 2/2001 Legearen bidez onartu zuen erabaki hori Eusko Legebiltzarrak.

Sin embargo, la elaboración de los Presupuestos para el ejercicio 2002 del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales exigía un acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, y su posterior aprobación por el Parlamento Vasco, en relación con las Aportaciones para dicho ejercicio. Por ello, en sesión celebrada el 15 de octubre de 2001, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas acordó la previsión de las Aportaciones de las Diputaciones Forales al sostenimiento de las cargas de las Instituciones Comunes para el ejercicio 2002, utilizando para su cálculo la metodología de la Ley 6/1996, de 31 de octubre. Dicho acuerdo fue aprobado por el Parlamento Vasco por Ley 2/2001, de 30 de noviembre.

Estatuko Administrazioak eta Euskadiko administrazioek 2002ko martxoan Kupoaren Batzorde Mistoan erabaki zuten Ekonomia Ituna berritzea eta Kupoa 2002-2006 bosturtekoan zehazteko metodologia. Maiatzaren 23ko 12/2002 eta 13/2002 Legeek onartu zituzten, hurrenez hurren, erabaki horiek.

En marzo de 2002 la administración del Estado y las administraciones del País Vasco acordaron, en el seno de la Comisión Mixta de Cupo, la renovación del Concierto Económico y la metodología de determinación del Cupo para el quinquenio 2002-2006. Dichos acuerdos han sido aprobados respectivamente por las Leyes 12/2002 y 13/2002, de 23 de mayo.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2002ko uztailaren 22an, onartu egin zuen baliabideak banatzeko prozedura eta lurralde historikoek Euskadiko aurrekontu-gastuak estaltzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologia, 2002, 2003, 2004, 2005 eta 2006 urteetarako. Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrera igorri zuen Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak adostutako metodologia jasotzen zuen lege-proiektua, onartua izan zedin.

En este contexto, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas acordó el día 22 de julio de 2002 la metodología de distribución de recursos y la determinación de las Aportaciones de cada Territorio Histórico a los gastos presupuestarios de la Comunidad Autónoma aplicable a los ejercicios 2002, 2003, 2004, 2005 y 2006. El Gobierno elevó al Parlamento, para su aprobación, el correspondiente proyecto de Ley que incorporaba la metodología acordada por el Consejo vasco de Finanzas Públicas.

Eusko Legebiltzarrak lege hau onartu zuen: 6/2002 Legea, urriaren 4koa, Baliabideen Banaketarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak

El 4 de octubre, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 6/2002, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las Aportaciones de las

finantzatzeko Foru Aldundien Ekarpenak zehazteko metodologiaren Legea, 2002-2006 urteetako aldiari aplikatzeko.

Onartutako metodologiak, oro har, eutsi egin zien 1985etik aurrera aplikatutako sistemari eta haren oinarrizko eskema eta printzipioei. Halaber, zenbait alderdi aldatu edo egokitu zituen, Estatuarekiko finantza-harremanen aldaketak, eskarmentuak edo igarotako denborak hala eskatzen baitzuten.

Horrela, besteak beste, koefiziente bertikala aldatu zen, kontzeptu hauek integratzeko: Ertzaintzaren eta Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileen finantziazioan izandako aldaketak, 1997-2001 bosturtekoan transferitutako eskumenak, eta bertan behera utzitako probintzia-zergengatik foru-aldundiei ematen zitzaien konpentsazioaren galera.

Horrekin batera, Elkartasun Funtseko gehienezko muga aldatu zen, haren zenbatekoa balio absolutuetan handituz, eta, halaber, kendu egin zen Euskadiren garapen ekonomikorako proiektu adierazgarrietara baliabideak esleitzeko kantitate-muga.

Azkenik, Ekonomia Ituneko 62. artikulua betetzeko, Euskadiko erakunde publikoen aurrekontu-egonkortasuneko helburuak erabakitzeko ardura eman zitzaion Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari.

8.b. Banaketa bertikaleko eredua

Baliabideen banaketa bertikala egiteko aplikatu behar den kalkulu-eredua zehazten du 6/2002 Legeko I. kapituluak; hau da, foru-aldundiek egin beharreko ekarpen orokorra kalkulatzeko. Lege horrek zenbait aldaketa egiten ditu, aurreko legeekiko. Jarraian, labur aztertuko dira baliabideak banatzeko banaketa bertikaleko ereduaren elementuak.

8.b.1. Banatu beharreko diru-sarrerak

1. artikuluak arautzen du Ekonomia Ituna kudeatzetik eskuratutako zer diru-sarrera banatu behar diren Euskadiko Ogasun Orokorraren eta foru-ogasunen artean, LHLren 20. artikuluan araututakoari jarraituz.

Horrenbestez, hauek dira banatu beharreko diru-sarrerak (R):

1. Zerga itunduak direla-eta, betetzen ari den ekitaldian bildutakoetatik eratorritakoak, zerga

Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aplicable al período 2002-2006.

La metodología aprobada mantiene en sus grandes líneas el sistema aplicado desde 1985, continuando con los mismos esquemas y principios básicos, y modificando o adaptando aquellos aspectos que los cambios en el marco de las relaciones financieras con el Estado, la experiencia o el propio transcurso del tiempo aconsejaron.

Así, entre otras cuestiones, se modificó el coeficiente vertical, con objeto de integrar las variaciones producidas en la financiación de la Policía Autónoma y las entidades gestoras de la Seguridad Social, así como por la valoración de las nuevas competencias transferidas en el quinquenio 1997-2001 y por la desaparición de la compensación a favor de las Diputaciones Forales por impuestos provinciales extinguidos.

Se modificó, también, el límite máximo del Fondo de Solidaridad, elevando su dotación en valores absolutos y se eliminó el límite cuantitativo para la asignación de recursos a los proyectos de relevancia para el desarrollo económico del País Vasco.

Por último, se asignó al Consejo Vasco de Finanzas Públicas la función de acordar los objetivos de estabilidad presupuestaria de las Instituciones Públicas del País Vasco que deban adoptarse en cumplimiento de lo previsto en el artículo 62 del Concierto Económico.

8.b. Modelo de distribución vertical

En el Capítulo I de la Ley 6/2002 se define el modelo de cálculo a aplicar para la distribución vertical de los recursos y, por tanto, la Aportación General de las Diputaciones Forales, incorporando algunas variaciones respecto a las Leyes anteriores. A continuación, se analiza brevemente cada uno de los elementos del modelo de distribución vertical de distribución de recursos.

8.b.1. Ingresos sujetos a reparto

Se determina (artículo 1) los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico a distribuir entre la Hacienda General y las Haciendas Forales, conforme a lo previsto en la LTH (artículo 20).

A este respecto, son ingresos afectos al reparto (R) los siguientes:

1. Los procedentes de la recaudación por tributos concertados, con independencia del año de su

horiek beste urte batean sortu izan arren; zehazki:

- Zuzeneko zerga itunduak.
- Zeharkako zerga itunduak.
- Ausazko konbinazioen eta jokoaren gaineko tasa fiskalak.
- Premiamenduzko gainordainak, epez kanpo aurkeztearren ezarritako gainordainak, berandutzeagatiko interesak, eta zerga itunduei dagozkien zergapeko egitateengatik sartutako diru-zehapenak.

2. Ekitaldi bakoitzean diru-sarrera fiskal itunduak direla-eta, foru-aldundien alde sortutako interes likidoak.

8.b.2. Kenkariak

Banatu beharreko baliabideen zenbatekoa kalkulatzeko, kupoaren metodologiako kenkariak aplikatu behar dira (2. artikulua), baita kenkari berezi bat ere (3. artikulua), Eusko Jaurlaritzak ekonomiaren plangintza-, sustapen eta garapen-politikak egin ditzan, LHLko 22.3 artikuluarekin bat etorriz.

Hauek dira kupoaren metodologiatik aplikatzen diren kenkariak (D):

- Estatuari kupo likido moduan ordaindu beharreko kopurua, eta, hala dagokionean, kupoa zehazteko metodologiaren lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusitako konpentsazioak direla-eta Estatuaren alderako den zenbatekoa.
- Estatuari egindako transferentzia da eta baliabideak banatzeko sistemari exogenoak zaizkion aldagaien menpe dago; beraz, banaketako eredu orokorretik kanpo uzten da.
- Kupoaren Bosturtekorako Legean araututako konpentsazioen zenbatekoa (6.2. artikulua), INSALUD, IMSERSO eta ISM erakundeen eskumenak Euskadira transferitzearen ondorio (lehen, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren transferentzien bidez gauzatzen ziren), eta Kupoaren Bosturtekorako Legeko lehen xedapen gehigarrian araututako konpentsazioak, Euskadiren aldekoak. Biek ere zeinu negatiboak dituzte.
- Ertzaintzako plantillaren handitzeak finantzatzeko zenbatekoak, Kupoaren

devengo o generación, durante el ejercicio en curso, compuestos por:

- Los impuestos directos concertados.
- Los impuestos indirectos concertados.
- Las tasas fiscales de combinaciones aleatorias y juego.
- El recargo de apremio y por presentación fuera de plazo, los intereses de demora y las sanciones pecuniarias ingresadas por hechos imponibles referidos a los tributos concertados.

2. Los intereses líquidos devengados a favor de las Diputaciones Forales, por razón de ingresos fiscales concertados durante cada ejercicio.

8.b.2. Deducciones

Para el cálculo de los recursos a distribuir es preciso efectuar las deducciones procedentes de la metodología del cupo (artículo 2), así como una deducción especial (artículo 3) para la realización por el Gobierno Vasco de las políticas de planificación, promoción y desarrollo económico contempladas en el artículo 22.3 de la LTH.

Las deducciones procedentes de la metodología del cupo (D) son las siguientes:

- Cupo líquido a pagar al Estado y, en su caso, el importe resultante a favor del Estado por las compensaciones financieras previstas en la Ley Quinquenal del Cupo, en su Disposición Adicional Primera.
- Al tratarse de una transferencia al Estado que depende de variables exógenas al sistema de distribución de recursos, se excluye del modelo general de reparto.
- El importe de las compensaciones previstas en la Ley Quinquenal del Cupo (artículo 6.2) por los ingresos que financian los traspasos al País Vasco del INSALUD, IMSERSO e ISM antes satisfechos mediante transferencias de la Tesorería General de la Seguridad Social, así como, el importe que resulte a favor del País Vasco por las compensaciones previstas en la Disposición Adicional Primera de la Ley Quinquenal del Cupo. En ambos casos con signo negativo.
- El importe de la financiación de las ampliaciones de la plantilla de la Policía

Bosturtekorako Legeak bosgarren xedapen gehigarrian jasotakoak.

Aurreko metodologiarekiko, Kupoaren Bosturtekorako Lege berriak ezabatu egin ditu berariaz aplikatzen ziren kenkariak Ertzaintzaren finantziazioagatik eta Euskadiri transferitutako osasun- eta gizarte-zerbitzuengatik. Baliabideen banaketa orokorreko ereduan jasotzen da eskumen horien finantziazioa.

Banatu beharreko baliabideak murriztu egingo dira, halaber, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko ekonomiaren plangintza-, sustapen- eta garapen-politikak egiteko eta, oro har, Euskadiren politikaren eta ekonomiaren egonkortasuna bermatzeko neurrietarako bideratzen dituen zenbatekoetan.

LHLko 22.3. artikuluak arautzen du kontzeptu horri (P) dagokion murrizpena: “Jaurlaritzari, bere agintepeko zerbitzuengatik egin dakion eskuarte-izendapenaz gainera, ekonomiaren plangintza-, sustapen- eta garapen-politikak egiteko une bakoitzean egoki iritzitako diru-izendapena egingo zaio”.

Horrenbestez, eskumen horien finantzaketa banaketako eredu orokorretik at uzten du xedapen horrek.

8.b.3. Banatu beharreko baliabideak

Baliabideen banaketa bertikala egiteko elementuak aztertuta, banatu beharreko baliabideen guztizkoa finka daiteke (5. artikulua):

$$RD = R - (D + P)$$

hor:

R, Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortu eta banaketa-gai diren diru-sarrerak dira.

D, kupoaren metodologiatik sortutako kenkariak dira.

P, kenkari berezia da, LHLko 22.3. artikuluan adierazitako politikak egiteagatik.

8.b.4. Banaketa bertikaleko koefizientea

LHLko 22.2 artikuluari jarraituz, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien eskumenei erreparatuko zaie koefiziente bertikala zehazteko; betiere, Euskadi

Autónoma prevista en la Ley Quinquenal del Cupo, en su Disposición Adicional Quinta.

Respecto a la metodología anterior, y derivado de las modificaciones introducidas por la nueva Ley Quinquenal del Cupo en la financiación de la Policía Autónoma y los servicios sanitarios y sociales de la Seguridad Social traspasados, desaparecen las deducciones específicas por estos conceptos. La financiación de estas competencias se integra en el modelo de distribución general.

Los recursos sujetos a reparto, también, se minorarán en la cantidad que el Gobierno Vasco destine a la realización de las políticas de planificación, promoción y desarrollo económico, y en general para la adopción de medidas tendentes a asegurar la estabilidad política y económica de la Comunidad Autónoma.

La minoración correspondiente a este concepto (P) está prevista en la LTH (artículo 22.3), al afirmarse que "con independencia de la asignación que conceda en favor del Gobierno en razón de los servicios de su competencia, se atribuirá a éste la consignación que en cada momento se estime adecuada para la realización de las políticas de planificación, promoción y desarrollo económico".

Por tanto, esta es la disposición que establece la exclusión de la financiación de estas competencias del modelo general de reparto.

8.b.3. Recursos a distribuir

Una vez analizados los elementos a tener en cuanta para la distribución vertical de los recursos, puede determinarse (artículo 5) el total de recursos a distribuir:

$$RD = R - (D + P)$$

donde:

R: Recaudación derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto.

D: Deducciones procedentes de la metodología del Cupo.

P, es la deducción especial por la realización de políticas contempladas en el artículo 22.3 de la LTH.

8.b.4. Coeficiente de distribución vertical

El coeficiente vertical debe determinarse en proporción de las competencias ejercidas por el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales respecto

osoko eskumen guztiak aintzat hartuta.

del global de competencias del conjunto de la Comunidad Autónoma, conforme al artículo 22.2 de la LTH.

7/1985 Legeak onartu zuen koefiziente hori kalkulatzeko metodoa, 1986-1988 hirurtekorako. Funtsean, Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako aurrekontu orokorrak aztertuta, erakunde horien gastuak kalkulatzen dira, dagozkion doiketak eta kenketak egin ondoren. Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzari % 64'25 eta foru-aldundiei % 35'75 egokitu zitzaien, hurrenez hurren.

El método de cálculo de este coeficiente aprobado en la Ley 7/1985 para el trienio 1986-1988 consistió en determinar, a partir de los Presupuestos Generales del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales, los gastos correspondientes a cada una de las Instituciones, tras los ajustes y deducciones pertinentes. Así, se obtuvo un 64'25% y 35'75% para el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales, respectivamente.

Aldaketa txiki batzuk eginda, metodologia hori erabili zuen 9/88 Legeak 1989-1991 hirurtekoko ehunekoak (% 65,14 Jaurlaritzari eta % 34,86 aldundiei) kalkulatzeko. Koefiziente bertikalak gora egin zuen, eskumen-transferentzia gehienak Euskadiko erakunde orokorrek hartu baitzituzten beren gain.

Esta metodología, con algunas pequeñas variaciones, sirvió de base en la Ley 9/88 para el trienio 1989-1991, quedando fijado en el 65'14% para el Gobierno Vasco y 34'86% para las Diputaciones Forales. El coeficiente vertical creció, ya que los nuevos traspasos correspondieron, en su mayor parte, a las Instituciones Comunes.

Ondoren, % 66,30eko koefizientea finkatu zuen 5/1991 Legeak 1992-1996 bosturtekorako, bertan sartu baitzen Lurralde arteko Konpentsazio Funtsaren aldi baterako konpentsazioa. 1997-2001 eperako banaketa bertikaleko koefizientea % 66,25ekoa izan zen; hala finkatu zuten 6/1996 Legeak eta hura egokitzeko eman zen 14/1997 Legeak.

En la Ley 5/1991 se determinó el coeficiente en el 66'30%, aplicable para el quinquenio 1992-1996, resultado de integrar la compensación transitoria por el Fondo de Compensación Interterritorial. Para el período 1997-2001, conforme a la Ley 6/1996, luego adaptada por la Ley 14/1997, se fijó el coeficiente de distribución vertical en el 66’25%.

Azkenik, banaketa bertikalerako % 70,44ko koefizientea arautu zuen 6/2002 Legeko 6. artikuluak, 2002-2006 eperako. Koefiziente horrek kontzeptu hauek jaso zituen: Ertzaintzaren eta Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileen finantziazioan izandako aldaketak, 1997-2001 bosturtekoan transferitutako eskumenen urteko balorazioa eta BEZak foru-aldundien probintzia-sarreratan eragindako galeren konpentsazioa.

Por último, en la Ley 6/2002 se estableció (artículo 6) el coeficiente de distribución vertical para el período 2002-2006 en el 70,44%. Este coeficiente resulta de integrar las variaciones en la financiación de la Policía Autónoma y las entidades gestoras de la Seguridad Social, la valoración anual económica asociada a las nuevas competencias transferidas entre 1997 y 2001, así como la compensación de ingresos provinciales de las Diputaciones Forales sustituidos por el IVA.

Legeko I. eranskinak arautzen du hura kalkulatzeko metodologia, eta taula adierazten da, xeheki:

La metodología seguida para su cálculo se recoge en el Anexo I de la Ley y se especifica en el cuadro siguiente:

KOEFIZIENTE BERTIKALAREN KALKULUA / CÁLCULO DEL COEFICIENTE VERTICAL

ooo€

	f. aldundiak diputac. forales	**eusko jaurlar.** gobierno vasco	**guztira** total
1. Itunaren kudeaketatik sortutako diru-sarrerekin finantzatu beharreko gastuak 1. Gastos a financiar con ingresos derivados de la gestión del Concierto	8.622.196,6	5.420.628,1	14.042.824,7
2. Kenkariak / 2. Deducciones	-6.360.160,7	-30.881,6	-6.391.042,3
Estatuari ordaindu beharreko 2002ko kupo likidoa eta konpentsazioak Cupo líquido al Estado y compensaciones 2002	-980.996,4		-980.996,4
2001eko kupoaren likidazioa eta konpentsazioak Liquidación cupo y compensaciones 2001	36.887,2		36.887,2
2001eko kupoaren likidazioa egokitzapena Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileengatik Ajuste entidades gestoras Seg. Social en liquidación cupo 2001	4.576,6	-13.202,3	-8.625,7
EAErako ekarpenak Aportaciones a la CAPV	-5.420.628,1		-5.420.628,1
Lurralde Historikoen Legeko 22.3 artikuluko politikoak Políticas artículo 22.3 Ley de Territorios Históricos		-17.679,3	-17.679,3
3. Finantzatu beharreko gastuak / 3. Gastos a financiar	2.262.035,9	5.389.746,5	7.651.782,3
Ateratzen den koefizientea / Coeficiente resultante	**29,6%**	**70,4%**	

*** 2002an finantzatu beharreko gastuak, 2002ko martxoaren 6ko Kupoaren Bitariko Batzordearen eta 2001eko kupoaren likidazioaren akordioak oinarri direla aztertuta.**

* Gastos a financiar en 2002 revisados a partir de los acuerdos de la CMC de 6-3-2002 y de la liquidación del cupo 2001.

KOADROA / CUADRO II.1

8.b.5. Ekarpen orokorra

Foru-aldundiek Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen zama orokorrei eusteko egin beharreko ekarpena kalkulatzeko (7. artikulua), banaketa bertikalerako koefizientea aplikatuko zaie banatu beharreko baliabideei:

Ekarpen orokorra = %70,44 [R - (D+P)]

8.b.6. Ekarpen bereziak

Ekarpen orokorraz gain, banaketa-eredu orokorretik baztertutako kontzeptuak finantzatzen laguntzen dute aldundiek. Kontzeptu horiek banatzekoak diren diru-sarreren kenkaritzat jotzen dira, baldin eta Euskadiko erakunde orokorrei esleitutako eskumenei badagozkie. Hauek dira ekarpen berezi horiek (8. artikulua):

- Ertzaintzaren plantillaren handitzeen finantziazioa, Kupoan kendutako zenbatekoagatik.
- LHLko 22.3 artikuluan araututako politikak eta funtzioak egiteko ekarpena, aurrez zehaztutako kenkariaren zenbateko berean.

8.b.5. Aportación General

La Aportación General de las Diputaciones Forales (artículo 7) al sostenimiento de las cargas comunes de la Comunidad Autónoma se calcula aplicando el coeficiente de distribución vertical al total de recursos a distribuir:

Aportación General = 70,44% [R-(D+P)]

8.b.6. Aportaciones Específicas

Además de la Aportación General, las Diputaciones Forales contribuyen a la financiación de los conceptos excluidos del modelo de reparto general, contemplados como deducciones de los ingresos objeto de reparto, en la medida que estos conceptos correspondan a competencias asignadas a las Instituciones Comunes. Estas denominadas Aportaciones Específicas (artículo 8) son las siguientes:

- Financiación de las ampliaciones de la plantilla de la Policía Autónoma, por el importe de la deducción efectuada en el Cupo.
- Contribución a la realización de las políticas y funciones recogidas en el artículo 22.3 de la LTH, por igual importe a la deducción definida anteriormente.

Horrenbestez, foru-aldundiek Euskadiko Ogasun Orokorrari egindako ekarpen osoa kalkulatzeko, ekarpen orokorra eta ekarpen bereziak gehitu behar dira.

6/2002 Legeak, hurrengo artikuluetan, zenbait arau zehazten ditu, ekarpenak aldatzen badira aplikatzeko; hala nola, Euskadiri zerbitzu-transferentzia berriak egiten bazaizkio (9. artikulua), zerbitzu-transferentziak egiten badira Euskadiko erakundeen artean (10. artikulua), Ertzaintzaren finantziazio-modua aldatzen bada (11. artikulua), eta kupoaren eta konpentsazioen behin betiko likidazioak aldaketak badakartza (12. artikulua).

8.c. Banaketa horizontalaren eredua

Banaketa bertikaleko ereduaren bidez, ekarpen orokorra eta bereziak zehaztuta, lurralde historiko bakoitzaren ekarpena zehaztu behar da. Banaketa horizontalaren eredua esaten dio eredu horri 6/2002 Legeko II. kapituluak.

Baliabideak banatzeko eredu horrek ehuneko bat esleitzen dio lurralde historiko bakoitzari, eta hura aplikatzen da, Euskadiko erakunde orokorren gastuak estaltzeko egin behar duten ekarpenaren zenbateko kalkulatzeko (15. artikulua). Aurreko legeek araututako aplikatutako metodologiari eusten zaio; hau da, errentari eta ahalegin fiskalari erreparatzen zaie, berariaz arautzen baititu LHLko 22.6. artikuluak.

8.c.1. Koefiziente horizontalak

6/2002 Legeko 13. artikuluak arautzen du irizpide hauei erreparatuko zaiela, lurralde historiko bakoitzak Autonomia Erkidegoko erakundeei egin beharreko ekarpenei erantzuteko, 2002-2006 bosturtekoaren ekitaldietan:

- Koefizientearen % 70 lurralde historiko bakoitzaren errenta erlatiboaren arabera aterako da zuzenean.

- Ehuneko 30a lurralde historiko bakoitzaren zerga-ahalegin erlatiboaren alderantzizkoaren arabera aterako da zuzenean, lurralde bakoitzak diru-bilketarako duen gaitasunarekin ahalegin hori haztatuta.

Ai, Lurralde historiko bakoitzak ekarpenei erantzuteko duen koefizientea da, ekarpen osoaren ehunekoaren arabera.

En consecuencia, las aportaciones totales de las Diputaciones Forales a la Hacienda General del País Vasco están constituidas por la suma de la Aportación General y de las Aportaciones Específicas.

La Ley 6/2002 contiene a continuación una serie de reglas relativas a las variaciones en las Aportaciones derivadas tanto de nuevos traspasos de servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco (artículo 9) como entre las instituciones del País Vasco (artículo 10), así como de modificaciones en la financiación de la Policía Autónoma (artículo 11) y de la liquidación definitiva del cupo y de las compensaciones (artículo 12).

8.c. Modelo de distribución horizontal

Una vez definidas las Aportaciones, General y Específicas, derivadas del modelo de distribución vertical, se procede a determinar la contribución de cada uno de los Territorios Históricos. El Capítulo II de la Ley 6/2002 lo denomina modelo de distribución horizontal.

Este modelo de distribución de recursos asigna a cada Territorio Histórico un porcentaje, que se aplica al total de aportaciones para obtener el importe de su contribución a los gastos de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma (artículo 15). Se mantiene la metodología aplicada en las Leyes anteriores, basado en los criterios de renta y esfuerzo fiscal, por otra parte, expresamente recogidos en el artículo 22.6 de la LTH.

8.c.1. Coeficientes horizontales

En la Ley 6/2002 se especifica (artículo 13) que los coeficientes de contribución de cada Territorio Histórico a las aportaciones a efectuar a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma, con vigencia para los ejercicios del período 2002-2006, se obtendrán conforme a los criterios siguientes:

- El 70% se obtendrá en función directa de la renta relativa de cada territorio histórico.

- El 30% se obtendrá en función directa de la inversa del esfuerzo fiscal relativo de cada Territorio Histórico, ponderado por la capacidad recaudatoria del mismo.

Ai, es el coeficiente de contribución de cada Territorio Histórico, en % de la aportación total.

Yi, i lurraldearen errenta da.

Y, Euskal Autonomia Erkidegoaren errenta da.

Ti, i lurraldearen diru-bilketa da.

T, hiru lurraldeen diru-bilketa osoa da.

CRi, i lurraldeak diru-bilketarako duen gaitasuna da.

6/2002 Legeak 14. artikuluan zehaztutako aldagaiak eta datuak baliatzen dira formula hori aplikatzeko. Lurralde historiko bakoitzak ekarpenei erantzuteko koefizienteak, ekitaldi bakoitzerako kalkulatu ondoren, ez dira aldatuko ekitaldian zehar.

8.c.2. Koefiziente horizontalak kalkulatzeko aldagaiak

Banaketa horizontaleko ereduaren ekarpen-irizpideak aplikatzeko, bosturtekoaren ekitaldi bakoitzean erabili beharreko estatistika-aldagaiak definizio hauetara egokitu beharko dira:

- Errentarako, lurralde historiko bakoitzaren barne produktu gordina hartuko da, merkatu-prezioetan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren guztizkoarekin erkatuta; eta Euskal Estatistika Erakundeak argitaratutako azken lau urteetako datuen pisu erlatiboen batez besteko aritmetikoa hartuko da.

- Ahalegin fiskala, LHLarekin bat etorriz, honela definitzen da: zerga-kontzeptu guztiak direla-eta urteko diru-bilketaren zenbatekoaren eta errentaren artean dagoen erlazioa da, udalen zuzeneko ordainarazpeneko zergak diru-bilketaren barne hartuta. Aipatutako zerga-kontzeptuak foru-aldundietako eta udaletako aurrekontuetako I. eta II. kapituluetan jasotakoak dira. Amaitutako azken ekitaldikoak izan behar dute erabilitako diru-bilketako datuek.

Bilketarako gaitasuna kalkulatzeko, Euskal Autonomia Erkidego osoko zerga-bilketako egitura kontuan hartzen da, eta bilketa orokorrean duen ehunekoa esleitzen zaio zerga-kontzeptu bakoitzari.

Diru-bilketako kontzeptu bakoitzari eta lurralde historiko bakoitzari zergak ordaindu beharra sorrarazten duen ekonomia-adierazle egokia lotuko zaio, Euskal Autonomia Erkidego osoarekiko ehunekoetan.

Yi, es la renta del territorio histórico i.

Y, es la renta de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Ti, es la recaudación del territorio histórico i.

T, es la recaudación total de los tres territorios históricos.

CRi, es la capacidad recaudatoria relativa del territorio histórico i.

Para la aplicación de esta fórmula se utilizan las variables y datos especificados en la propia Ley 6/2002 (artículo 14). Los coeficientes de contribución de cada Territorio Histórico calculados para cada ejercicio no serán modificados a lo largo del mismo.

8.c.2. Variables para el cálculo de los coeficientes horizontales

Las variables estadísticas a utilizar en cada ejercicio del quinquenio, a los efectos de aplicar los criterios de aportación del modelo de distribución horizontal, deberán ajustarse a las siguientes definiciones:

- Para la renta se utilizará el Producto Interior Bruto a precios de mercado de cada Territorio Histórico relativo al total de la Comunidad Autónoma, tomándose la media aritmética de los pesos relativos de los datos de los últimos cuatro años publicados por el Instituto Vasco de Estadística-Eustat.

- El esfuerzo fiscal se define, conforme a la LTH, como la relación entre el importe de la recaudación anual por todos los conceptos tributarios, incluidos los de exacción municipal directa, y la renta. Los conceptos tributarios citados son los recogidos en los Capítulos I y II de los Presupuestos de las Diputaciones Forales y Ayuntamientos. Los datos de recaudación y de renta corresponderán a los del último ejercicio finalizado.

Por otro lado, el cálculo de la capacidad recaudatoria se efectúa partiendo de la estructura recaudatoria del conjunto de la Comunidad Autónoma, atribuyendo a cada concepto tributario su parte porcentual en la recaudación total.

A cada concepto se le asocia, para cada Territorio Histórico, y en términos porcentuales respecto al total de la Comunidad Autónoma, el indicador económico adecuado que da origen a la tributación.

Osagai bi horietatik abiatuta eta lehenengoarekin bigarrena haztatuta kalkulatuko da lurralde historiko bakoitzerako adierazle bakoitzaren diru-bilketa teorikoa edo diru-bilketarako batez besteko gaitasuna, guztizkoarekiko ehunekoetan.

Adierazle guztietan lortutako emaitzen baturak adieraziko du lurralde historiko bakoitzaren bilketa-gaitasuna. 6/2002 Legeko II. eranskinak zehazten ditu gaitasun hori kalkulatzeko aintzat hartu behar diren zerga-kontzeptuak eta bakoitzari dagozkion ekonomia-adierazleak. Ondorengo taulan ikus daitezke horiek guztiak.

A partir de estos dos elementos, mediante ponderación del segundo por el primero, se calcula, igualmente en términos porcentuales respecto del total, la recaudación teórica o capacidad de recaudación media de cada indicador para cada Territorio Histórico.

La suma de los resultados obtenidos para cada uno de los indicadores representa la capacidad recaudatoria de cada Territorio Histórico. Los conceptos tributarios a tener en cuenta para el cálculo de esta capacidad, así como los indicadores económicos para cada uno de ellos se detallan en el Anexo II de la Ley 6/2002 que se reproduce a continuación.

DIRU-BILKETARAKO GAITASUNA / CAPACIDAD RECAUDATORIA

KONTZEPTUA / CONCEPTO	**ADIERAZLEA** / INDICADOR
Bakoitzaren lanagatiko atxikipenak Retenciones trabajo personal	**Lansariak eta soldatak** Sueldos y salarios
PFEZaren kuota diferentziala Cuota diferencial IRPF	(1)
Kapitalaren atxikipenak eta ordainketa zatikatuak Retenciones de capital y pagos fraccionados	**Ustiaketaren gaindikin garbia** Excedente neto de explotación
BEZ, bakoitzaren kudeaketa IVA gestión propia	(2)
BEZ, egokitzapena IVA Ajuste	**Ekarpen-indizea** Índice de aportación
Garraiobideen gaineko zerga berezia Impuesto especial sobre medios de transporte	**Matrikulatutako beribil-kopurua** Número de turismos matriculados
Fabrikazioko zerga berezien guztizkoa (bakoitzaren kudeaketa + egokitzapenak) Total ii. ee. de fabricación (gestión propia + ajustes)	**Ekarpen-indizea** Índice de aportación
Hidrokarburoen txikizkako salmentaren zerga Impuesto s/ las ventas minoristas de hidrocarburos	**Ekarpen-indizea** Índice de aportación

(1) PFEZaren kuota diferentzial garbiari dagokion zenbatekoa proportzioan egotziko zaio zerga horren bilketako osagarri bakoitzari / El importe correspondiente a la cuota diferencial neta del IRPF se atribuirá proporcionalmente a cada uno de los componentes de la recaudación de dicho impuesto.

(2) BEGd mp - enpresaren KEG - energiakoak ez diren esportazioak + energikoak ez diren erkidego barruko eskuraketak / VAB pm - FBC empresarial - exportaciones no energéticas + adquisiciones intracomunitarias no energéticas

KOADROA / CUADRO II.2

8.c.3. Lurralde historiko bakoitzaren ekarpena

Lurralde historiko bakoitzak Autonomia Erkidegoko erakunde orokorrei egin beharreko ekarpenen zenbatekoa kalkulatzeko, lurralde bakoitzari dagokion koefiziente horizontala aplikatu behar zaio ekarpen orokorreko eta ekarpen berezietako zenbatekoei.

Bestalde, Estatuari ordaindu beharreko kupo likidoari lurralde historiko bakoitzak egin beharreko

8.c.3. Aportación de cada Territorio Histórico

La aportación de cada Territorio Histórico a las Instituciones Comunes se obtiene por aplicación del coeficiente horizontal correspondiente al Territorio Histórico al importe de las Aportación General y Específicas.

Por otra parte, la contribución de cada Territorio Histórico al cupo líquido a pagar al Estado y su

ekarpena eta 2002-2006 bosturtekoari dagozkion kupoak zehazteko metodologian jasotako konpentsazioetan duten partaidetza zehazteko (16. artikulua), koefiziente horizontala aplikatu beharko zaie bakoitzari dagozkien zenbatekoei.

Halaber, lurralde historiko bakoitzari dagozkion koefiziente horizontalak aplikatuz banatuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren bilketari dagozkion doiketak eta Fabrikazioko Zerga Bereziei dagozkienak, hurrenez hurren, Ekonomia Ituneko 53. eta 54. artikuluetan arautuak.

Azkenik, egiturazko izaera ematen zaio foru-aldundien artean Fabrikazioko Zerga Berezi bakoitzagatik egindako bilketa-errealaren doiketari; urriaren 31ko 6/1996 Legeak hamaikagarren xedapen gehigarrian jasotzen zuenari, hain zuzen. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak urtero luzatu zuen doiketa hori 1997/2001 bosturtekoan. Foru-aldundien arteko doiketa bat ere jasotzen da, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga berriaren bilketarako. Hala, zerga-kontzeptu horien bidez lortutako diru-sarrerak doitzeko, haiek noiz sortu diren alde batera utzita, zerga-kontzeptu bakoitzagatik Euskal Autonomia Erkidegoan egindako benetako diru-bilketari lurralde historikoari ekitaldian dagokion koefiziente horizontala aplikatuko zaio, eta zenbateko hori kenduko zaio zerga-kontzeptu horregatik benetan bildu den diruari.

8.d. Elkartasun Funtsa

6/1996 Legeko hamargarren xedapen gehigarriak ezarri zuen lehen aldiz Elkartasun Funtsa. 1997-2001 epean indarrean jarrita, egiturazko elementutzat jo zen aurrerantzean. 6/2002 Legeko III. kapituluak arautzen du Elkartasun funtsa, eta hark arautzen ditu haren hiru elementuak: xedea, mugak eta zenbatekoa, ekarpenak eta banaketa.

17. artikuluak arututakoari jarraiki, Elkartasun Funtsaren xedea da, batetik, arauen artean edo kudeaketa egiteko moduan dauden ezberdintasunetatik sortutako arrazoiak salbu, eta funtsera egin beharreko ekarpena kendu ondoren, lurralde historiko bakoitzak Euskadiko diru-bilketa osoan izango duen parte-hartze erlatiboa bere koefiziente horizontalaren % 99ra iritsiko dela bermatzea, eta, bestetik, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren iritziz funts horrekin erantzun behar den ohiz kanpoko beste edozein gorabeherari erantzutea.

participación en las compensaciones previstas en la metodología de señalamiento del cupo para el quinquenio 2002-2006 se determinará (artículo 16) por aplicación sobre los respectivos importes del correspondiente coeficiente horizontal.

Así mismo, la distribución por Territorios Históricos del ajuste a la recaudación por el Impuesto sobre el Valor Añadido y de los Ajustes a la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación previstos en los artículos 53 y 54 del Concierto Económico se efectuará en proporción a los coeficientes horizontales de cada Territorio Histórico.

Por último, se le da carácter estructural al ajuste a la recaudación real por cada uno de los Impuestos Especiales de Fabricación entre la Diputaciones Forales, que la Ley 6/1996, de 31 de octubre recogía en la Disposición Adicional Undécima. Este ajuste durante el quinquenio 1997/2001 ha estado sujeto a prórroga anual por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas. Así mismo, se incorpora un ajuste entre las Diputaciones Forales para la recaudación derivada del nuevo Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Hidrocarburos. De esta forma, los ingresos por todos estos conceptos tributarios, independientemente del año de su devengo o generación, se ajustarán por la diferencia entre el resultado de aplicar el coeficiente horizontal de su Territorio Histórico para dicho ejercicio a la recaudación real del conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco por cada uno de dichos conceptos tributarios, y su correspondiente recaudación real por el mismo concepto tributario.

8.d. Fondo de Solidaridad

En la disposición adicional décima de la Ley 6/1996, se estableció por primera vez el Fondo de Solidaridad. Tras su funcionamiento en el período 1997-2001, el Fondo de Solidaridad adopta un carácter estructural, pasando a configurar el nuevo Capítulo III de la Ley 6/2002. En él se recogen los elementos que caracterizan el Fondo: objetivo, límites e importe, contribución y distribución.

El objeto del Fondo de Solidaridad (artículo 17) continúa siendo asegurar que, salvo causas derivadas de diferencias normativas o de gestión, la participación relativa en la recaudación total del País Vasco para cada Territorio Histórico, una vez deducida su contribución al propio Fondo, alcance el 99% de su coeficiente horizontal, así como cualquier otra circunstancia que a juicio del Consejo Vasco de Finanzas Públicas deba atenderse con dicho Fondo.

18. artikuluak arautzen du zer arau bete behar diren Funtsaren zenbatekoa behin behinean eta behin betiko kalkulatzeko eta hura erakundeen artean banatzeko:

1. Elkartasun Funtsaren zenbatekoa.

Elkartasun Funtsaren zenbatekoa zatiketa honen araberako zatidura izango da:

- batetik, koefiziente horizontalaren % 99aren eta lurralde historiko bakoitzak Euskadiko diru-bilketa osoan daukan parte-hartze erlatiboaren arteko diferentzia 1.1 artikuluan zehaztutako moduan banaketa-gai den diru-bilketari aplikatuta ateratako zeinu positiboko zenbateko guztien batuketa hartuko da; eta

- bestetik, erakunde erkideen eta foru-aldundien koefiziente bertikalen batuketa, baldin eta ekarpen-koefizientearen % 99tik gora badago bakoitzaren diru-bilketa erlatiboa. Ondorio horietarako, lurralde historiko bakoitzari dagokion koefiziente bertikala zehazteko, bakoitzaren koefiziente horizontala aplikatu behar zaio erakunde erkideen koefiziente bertikalaren osagarriari.

Elkartasun Funtsaren gehienezko zenbatekoak ezingo du gainditu 6/2002 Legearen 5. artikuluak zehazten dituen banatu beharreko baliabideen % 0,75.

Gehienezko muga hori, lehen, banatu beharreko baliabideen % 1ekoa bazen ere, funtsaren zenbateko kuantitatibo osoa hazi egin da, ehuneko horren aplikazioaren xedeko oinarriaren zenbatekoa nabarmen handitu baita, kupoaren metodologiak ezartzen zituen kenkari espezifikoak ezabatu ondotik.

2. Elkartasun Funtserako ekarpena.

- EAEko erakunde orokorrek Elkartasun Funtsari egin beharreko ekarpena kalkulatzeko, banaketa bertikaleko koefizientea aplikatuko zaio funtsaren zenbateko osoari; betiere, zenbateko hori ez bada hura koefiziente bertikalaren % 99,25aren eta banatzeko baliabide haietan duten benetako parte-hartzearen arteko diferentzia banatzeko baliabideei aplikatuta lortzen den zenbatekoa (balio absolutuetan) gainditzen, gainditzen gero, azken hori izango baita egin beharreko ekarpena.

- Gainerakoa foru-aldundiei egokituko zaie, bakoitzari dagokion koefiziente horizontalaren

El importe y la distribución institucional del Fondo, para su cálculo tanto provisional como definitivo, se determinará (artículo 18) de acuerdo con las siguientes reglas:

1. Importe del Fondo de Solidaridad.

La cuantía del Fondo de Solidaridad se determinará por el cociente entre:

- la suma de los importes de signo positivo que resulten de aplicar a la recaudación sujeta a reparto (artículo 1.1) la diferencia entre el 99% del coeficiente horizontal y la respectiva participación relativa en la recaudación total del País Vasco para cada Territorio Histórico, y

- la suma de los coeficientes verticales de las Instituciones Comunes y de las Diputaciones Forales cuya recaudación relativa se haya situado por encima del 99% de su coeficiente de aportación. El coeficiente vertical de cada uno de los Territorios históricos se deriva de aplicar el coeficiente horizontal al complementario del coeficiente vertical de las Instituciones Comunes.

El importe máximo del Fondo de Solidaridad no superará el 0,75% de los recursos a distribuir definidos en el artículo 5 de la Ley 6/2002.

A pesar de que anteriormente, este límite máximo era del 1% de los recursos a distribuir, la modificación realizada ha significado una ampliación de la cuantía absoluta, ya que la base sobre la que se aplica el porcentaje ha experimentado un fuerte crecimiento, tras haber desaparecido las deducciones específicas procedentes de la metodología del cupo.

2. Contribución al Fondo de Solidaridad.

- La contribución de las Instituciones Comunes será el resultado de aplicar a la cuantía total del Fondo de Solidaridad el coeficiente de distribución vertical, siempre que este importe no supere la cuantía, en valores absolutos, que se obtiene de aplicar a los recursos a distribuir la diferencia entre el 99,25% de su coeficiente vertical y su participación real en los recursos a distribuir, en cuyo caso alcanzará esta última.

- El resto corresponderá a las Diputaciones Forales de acuerdo a sus respectivos

arabera. Foru-aldundien ekarpenak, bakoitzaren diru-bilketa erlatiboa bere koefiziente horizontalaren % 99tik gora badago, balio absolutuetan ez du gainduko koefiziente bertikalaren % 99,25aren eta banatzeko baliabide haietan duen benetako parte-hartzearen arteko diferentzia banatzeko baliabideei aplikatuta lortzen den zenbatekoa (delako parte-hartze hori metodologia honetan jasotako eredua aplikatzetik sortua da).

3. Elkartasun Funtsaren banaketa

Bi lurralde historikoren diru-bilketa bakoitzaren koefiziente horizontalaren % 99tik beherakoa den kasuetan, Elkartasun Funtsaren zenbateko osoa nahikoa ez bada bermatutako ehunekoa lor dezaten bi lurralde historikok, % 99a lortzeko horietako bakoitzak behar duen besteko proportzioan egingo da funtsaren banaketa, lurralde horien ekarpena kenduta.

Aurreko 1. paragrafoan jasotako muga aplikatuta ezin bada lurralde historiko guztietarako koefiziente horizontalaren % 99ko diru-bilketa erlatiboa bermatu, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak egokitu egingo du Elkartasun-Funtsaren zenbatekoa, artikulu honetako 2. paragrafoan erakunde bakoitzaren ekarpenerako ezarritako mugak errespetatuz.

8.e. Eragiketa-arauak

Lurralde Historikoen Legeko 25.1 artikuluak berariaz arautzen du ekarpenak sei zati berdinetan ordainduko direla, hain justu, urte bakoitzeko otsailaren, apirilaren, ekainaren, uztailaren, urriaren eta azaroaren lehenengo hamabost egunetan.

Ekarpenen urteko zenbatekoak kalkulatzeko eragiketak arautzen ditu 6/2002 Legeko IV. kapituluak, baita foru-aldundien eta Elkartasun Funtsaren arteko doiketen behin-behineko kalkulua eta haien kitapena egitekoak ere (19. artikulutik 25. artikulura).

Ekarpenen hasierako kalkulua egiteko, zerga itunduengatiko diru-sarreren aurreikuspen bat onartuko du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, eta hura hartuko dute oinarritzat Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek, haien aurrekontu orokorrak egiteko. Ekitaldian zehar ekarpenek izan ditzaketen aldaketak zati berdinetan banatuko dira, Lurralde Historikoen Legeko 25. artikuluak adierazitako epeetan; hau da, ekitaldi horretan muga-egunera iritsi gabeko ordainketa-epeetan.

coeficientes horizontales. La contribución de aquellas cuya recaudación relativa se haya situado por encima del 99% de su coeficiente horizontal no superará la cuantía en valores absolutos que se obtiene de aplicar a los recursos a distribuir la diferencia entre el 99,25% de su coeficiente vertical y su participación real en los recursos a distribuir derivada de la aplicación de la metodología.

3. Distribución del Fondo de Solidaridad

En el supuesto de que, situándose la recaudación relativa de dos Territorios Históricos por debajo del 99% de su respectivo coeficiente horizontal, la cuantía total del Fondo resulte insuficiente para que ambos alcancen el porcentaje garantizado, la distribución, excluida la contribución de dichos territorios, se realizará de forma proporcional al importe que cada uno de ellos necesita para alcanzar dicho 99%.

Si aplicando el límite del apartado 1 anterior no es posible garantizar una recaudación relativa del 99% del coeficiente horizontal para todos los Territorios Históricos, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, adecuará la cuantía del Fondo, respetando en todo caso los límites a la contribución de cada institución previstos en el apartado 2.

8.e. Reglas operativas

La LTH señala expresamente en el artículo 25.1 que las Aportaciones se harán efectivas en seis plazos iguales, fijándose éstos dentro de la primera quincena de los meses de febrero, abril, junio, julio, octubre y noviembre de cada año.

En el Capítulo IV de la Ley 6/2002, se contempla los mecanismos operativos que permiten determinar los correspondientes cálculos anuales de las Aportaciones, así como el cálculo provisional y la liquidación de los Ajustes entre las Diputaciones Forales y del Fondo de Solidaridad (artículos 19 a 25).

Así, se establece que para el cálculo inicial de las Aportaciones de cada ejercicio se realizará una previsión de ingresos por tributos concertados aprobada por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas a los efectos de elaborar los Presupuestos Generales del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales. Las modificaciones de las Aportaciones que se produzcan durante el ejercicio serán distribuidas por partes iguales entre los plazos señalados en el artículo 25 de la LTH aún pendientes de vencimiento.

Ekitaldia amaitu aurretik, azken ordainketa-epean (azaroko lehen hamabostaldian), ekitaldiaren amaierarako aurreikusitako diru-bilketaren aurre-likidazio bat egingo du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, ekitaldiaren hasieran ordaindutako ekarpenen eta behin betiko ekarpenen zenbatekoen artean izan daitezkeen aldeak txikitzeko, azken horien zenbatekoa ezin baita ekitaldiaren hasieran kalkulatu.

Antes de la finalización de cada ejercicio, en el último plazo, primera quincena de noviembre, se realiza una preliquidación sobre una estimación de cierre del ejercicio de la recaudación del País Vasco aprobada por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, con el objeto de aproximar las aportaciones iniciales abonadas a las aportaciones definitivas, que no pueden ser calculadas hasta el cierre del ejercicio.

Hurrengo ekitaldian egingo da behin betiko likidazioa, otsailaren lehen hamabostaldian. Kontuan hartuko dira erreferentziazko ekitaldian egindako diru-bilketa erreala eta hasierako kalkulua egiteko erabilitako eguneratze-indizeen balio errealak.

La liquidación definitiva se realiza en la primera quincena de febrero del ejercicio siguiente. Se considerará la recaudación real obtenida durante el ejercicio de referencia y los valores reales de los índices de actualización utilizados en el cálculo inicial.

Bestalde, aurreko Legeak lehen urratsak eman zituen banatu beharreko diru-sarreren artean sartzeko zerga itunduengatik bildutako ondasunak eta eskubideak; izan ere, berariazko erregistro bat sortu zen, haiek inskribatzeko. Hala ere, ondasun eta eskubide horien heterogeneotasuna dela-eta, ez ziren arau zehatzak eman horiek baloratzeko eta inskribatzeko.

Por otro lado, en la Ley anterior se dieron los primeros pasos para la incorporación a los ingresos sujetos a reparto de los bienes y derechos derivados de la recaudación por tributos concertados, creando un registro específico, aunque dada la heterogeneidad de estos bienes y derechos no se establecieron reglas estrictas para su valoración e incorporación.

Lege berriak, erregistro horri eusteaz gain, sarrera horiek integratzeko modua hobetzen du. Horrela, foru-aldundiek, zorren ordainketarako borondatezko epean, zerga-zorra ondasunak eta eskubideak entregatuz ordaintzea baimentzen badute, kitatutako zorraren zenbatekoa ekitaldi horretako diru-sarreren artean jasoko da.

En la nueva Ley, además de mantener el registro, se avanza en una mejor integración de estos ingresos, disponiendo que en periodo voluntario, cuando son las Haciendas Forales las que admiten el pago de la deuda tributaria mediante la entrega de bienes y derechos, el importe de la deuda cancelada se integre con la recaudación en efectivo del ejercicio.

Ondasun eta eskubide horiek premiamendu-bidea erabiliz biltzen badira, aurreko prozedurari jarraitzen zaio; hau da, ondasun eta eskubide horiek besterendu edo esleitutakoan, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak baloratu egiten ditu. Hala, ekarpenen likidazioa egitean, banatu beharreko sarreren arten jasotzen dira. Dena dela, azken bosturtekoan bildutako esperientziari erreparatuta, aukera eman da Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, komenigarritzat jotzen badu, denbora-epe bat ezar dezan onartutako balorazioak aplikatzeko.

En cuanto a la recaudación en vía de apremio de estos bienes y derechos, se mantiene el procedimiento establecido hasta ahora, es decir, cuando se realice la enajenación o adjudicación de dichos bienes y derechos, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas procederá a su valoración, al objeto de que a efectos de realizar la liquidación de Aportaciones se incorporen a los ingresos sujetos a reparto. En cualquier caso, y a la vista de la experiencia del último quinquenio, se contempla la posibilidad en este supuesto de que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, cuando lo considere conveniente, periodifique el importe de la valoración aprobada.

Halaber, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartutako prozedura erabiliko da foru-aldundiek bildutako Fabrikazioko Zerga Berezien eta Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergaren doiketak egiteko. Doiketa horiek apirilean, uztailean eta urrian egingo dira, eta likidazioa, berriz, hurrengo ekitaldiko urtarrilaren lehen hamabostaldian egingo da.

Por otra parte, los ajustes por Impuestos Especiales de Fabricación y por el Impuesto sobre la Venta Minorista de Hidrocarburos de las Diputaciones Forales se realizarán, de acuerdo con el procedimiento aprobado por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, durante los meses de abril, julio y octubre, practicándose la liquidación dentro de la primera quincena del mes de enero del ejercicio siguiente.

Legearen 24. artikuluak arautzen du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak finkatuko duela, aurrekontu-aurreikuspenak aintzat hartuta, Elkartasun Funtsaren behin-behineko zenbatekoa. Hori eginda, erakunde bakoitzari dagokion behin-behineko zuzkidura jarriko du. Ekainean aplikatuko dira, ekarpenaren lehen ordainketa-epean, behin-behineko funtseko bi heren, eta behin betiko likidazioa, berriz, ekarpenen likidazioarekin batera egingo da.

Azkenik, metodologia behar bezala aplikatzeko behar den informazioa emateko betebeharrak arautzen ditu kapituluak.

8.f. Bestelako xedapenak

Baliabideak banatzeko barne-eredua finkatuta, zortzi xedapen gehigarri eta azken xedapen bat jasotzen ditu 6/2002 Legeak. Hau da arau horien funtsezko edukia:

- Bigarren xedapen gehigarriak, Ekonomia Ituneko 62. artikuluak Autonomia Erkidegorako finkatutako konpromisoak betetzeko, Euskadiko erakunde publikoen aurrekontu-egonkortasuneko helburuak erabakitzeko ardura eman zitzaion Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari. Halaber, bigarren xedapen horrek 27/1983 Legearen (LHL) xedapen bat jasotzen du, zeinaren bidez Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari esleitzen zaion Euskadiko herri-erakundeetako finantza-jarduerak koordinatzeko eta harmonizatzeko egitekoa.

- Hirugarren xedapen gehigarriak arautzen du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak aho batez zehaztuko dituela zenbait proiektu burutzeko zenbatekoak finantzatzeko modua, bai Estatuko Administrazioaren eskumenetan eragina dutelako, bai Euskadiren sustapenerako eta ekonomia-garapenerako berebiziko garrantzia dutelako, baldin eta garrantzi handiko baliabide-izendapenak behar badituzte eta erakunde guztietan eragina badute.

- Aurreko araudiak ez zuen uzten banatzeko baliabideen % 3 baino gehiago bideratzen proiektu horietara, baina muga hori kendu egin da Lege honetan. Finean, baliabideak banatzeko eredu malgu bat finkatzen da, hura erakundeen premietara eta egoera ekonomiko eta finantzariora egokitzeko.

Además, en el artículo 24 se recoge que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, de acuerdo con las previsiones presupuestarias, establecerá el importe provisional del Fondo de Solidaridad, consignando cada institución la dotación provisional que le corresponda. Dos terceras partes del fondo provisional se aplicarán en el mes de junio, coincidiendo con el plazo de pago de la aportación, practicándose la liquidación definitiva simultáneamente a la liquidación de las Aportaciones.

Por último, en este capítulo se recogen las obligaciones de información para la correcta aplicación de la metodología.

8.f. Otras disposiciones

Establecido el modelo interno de distribución de recursos, la Ley 6/2002 incluye ocho disposiciones adicionales y una disposición final. Los aspectos más relevantes en ellas contenidos son los siguientes:

- Se asigna al Consejo Vasco de Finanzas Públicas la función de acordar los objetivos de estabilidad presupuestaria de las instituciones públicas del País Vasco, en el marco de los compromisos que se adopten para la Comunidad Autónoma en aplicación de lo previsto en el artículo 62 del Concierto Económico (Disposición Adicional Segunda). Así mismo, en esta disposición, también, se recogen las funciones que en materia de coordinación y armonización de la actividad financiera de las Instituciones Públicas del País Vasco ya le asignaba al Consejo Vasco de Finanzas Públicas la Ley 27/1983 (LTH).

- Se determina que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas acordará por unanimidad la forma de financiar determinados proyectos que, bien por incidir en competencias del Estado, bien por tener una relevancia capital para la promoción y el desarrollo económico del País Vasco, precisen de una asignación de recursos muy importante y afecten al conjunto de las Instituciones del País Vasco (Disposición Adicional Tercera).

- Como novedad, se suprime el límite del 3% de los recursos a distribuir de la normativa anterior, permitiendo asignar mayores recursos a la ejecución de estos proyectos. En definitiva, se dota de una gran flexibilidad al propio modelo de distribución de recursos en función de las necesidades y situación económico-financiera de las Instituciones.

- Toki-erakundeek Ekonomia Ituna kudeatzetik eskuratutako sarreretan izango duten partaidetzari buruz dihardu laugarren xedapenak, eta foru-aldundiek gutxienez % 53ko partaidetza izan behar dutela gomendatzen jarraitzen badu ere, hura kalkulatzeko formula aldatzen du. Aldaketa hori, ordea, banaketa bertikaleko eredu erraztura egokitzeko egin zen.

- Amaitzeko, azken xedapen bakarrak berritasun bat dakar: bosturtekoa amaituta ez bada beste lege bat ematen, 6/2002 Legean araututako metodologiaren indarraldia luzatuko da.

- En lo referente a la participación de los Entes Locales en los ingresos procedentes de la gestión del Concierto Económico (Disposición Adicional Cuarta), aunque se mantiene la recomendación de participación mínima del 53% de los recursos correspondientes a cada Diputación Foral, se modifica la fórmula para el cálculo. Esta modificación responde únicamente a la adaptación derivada de la simplificación del modelo de distribución vertical.

- Por último, se incluye una novedosa Disposición Adicional Única, que determina la prórroga de la metodología contenida en la Ley 6/2002 en el caso de que concluido el quinquenio no se hubiera promulgado una nueva ley.

9. EUROPAR BATASUNETIK DATOZEN FUNTSAK

9.a. Europar Batasuneko eskualde-politika

Erromako Ituneko Atarikoan (1957ko idazketan), eskualde-politikari buruzko erreferentzia txiki bat dago: “kideen ekonomien bateratasuna sendotu eta garapen harmoniatsua lortzea, eskualdeen arteko aldeak murriztuz eta egoera okerrenean daudenen atzerapena murriztuz”. Eta hortik abiatuta, eskualde-politika sendoa sortu da, gero eta garrantzia handiagoa duena, gainera.

Europako Agiri Bakunean ez zuten esplizituki adierazi ekonomia- eta gizarte-kohesioa sendotzea Europako Ekonomia Erkidegoaren helburuen artean, baina titulu berri bat sartu zuten, kohesioari buruzkoa, eta horrek eskualde-politika “konstituzionalizatu” egiten du, nolabait.

Dena den, Europar Batasuna eratzeko Itunari esker (indarrean dago 1993ko azaroaren 1etik), EE eratzeko Itunak era esplizituan aitortzen du, bere egitekoen artean, ekonomia- eta gizarte-kohesioa sendotzea, eta, horrenbestez, Europar Batasunaren berariazko helburu bihurtu da.

Estatusean izan duen bilakaerarekin batera, tresnetan ere aldaketa garrantzitsuak izan dira (EGEF, EGF, NBBEF-O egitura-funtsak). Eta gauza bera gertatu da funtzionamenduarekin ere: diru-zuzkidura txikia zuten eta politika nazionalen osagarriak ziren, eta horregatik ez zen aurrerapen nabarmenik lortzen.

1984an, goitik behera aldatu ziren eskualde-politikaren tresna nagusiak, EGEF funtsak. Eta hori, izan ere, eskualde-garapeneko erkidegoko politika

9. FONDOS PROCEDENTES DE LA UNIÓN EUROPEA

9.a. La Política Regional Europea

A partir de la pequeña referencia en el Preámbulo del Tratado de Roma, en su redacción de 1957, que apuntaba a "reforzar la unidad de sus economías y asegurar el desarrollo armonioso reduciendo las diferencias entre las diversas regiones y el retraso de las menos favorecidas", se ha construido una política regional de importancia creciente.

El Acta Única Europea no consiguió explicitar el fortalecimiento de la cohesión económica y social como uno de los fines de la Comunidad Económica Europea, pero sí introducir un nuevo título dedicado a la cohesión que "constitucionaliza" la política regional.

Sin embargo, gracias al Tratado de la Unión Europea, vigente desde el 1 de noviembre de 1993, el Tratado CE pasa a reconocer explícitamente entre sus misiones el fortalecimiento de la cohesión económica y social, constituyendo así un objetivo expreso de la Unión.

Paralelamente a esta evolución en su estatus, se produjeron reformas relevantes en sus instrumentos (los fondos estructurales FEDER, FSE, FEOGA-O) y su funcionamiento, habida cuenta de las reducidas dotaciones financieras y su carácter complementario de las políticas nacionales, que no permitían lograr avances significativos.

En 1984 tuvo lugar una importante reforma del FEDER, principal instrumento de la política regional, que se aproximaba más a lo que podría ser una

dei dakiokeenari gehien hurbiltzen zaion tresna da, baliabide asko dituelako, horiek herrialdeen artean banatzeko moduagatik eta finantzatzen dituen ekintzengatik. Egun badiren gainerako egitura-funtsekin eta finantza-tresnekin koordinatzeko oinarriak sartu ziren.

Egitura-funtsek sakoneko aldaketa izan zuten 1988an. Barne-merkatura egokitzeko arazoak izan ziren, eta horrek argi utzi zuen ekonomia- eta gizarte-kohesioaren beharra zegoela. Horretarako, gainera, beharrezkoa zen estatu kideen politikak gehiago elkarganatzea, bai eta eskualdeen arteko aldeak murriztea ere.

Lehen ere eskualdeen arteko aldeak handiak ziren, baina are handiagoak bihurtu ziren Espainia eta Portugal sartu zirenean. Bi aldiz gehiago ziren, ordudanik, erkidegoko batez besteko per capita BPGren % 50etik behera zuten eskualdeetan bizi ziren biztanleak, eta doitzeko beharra are eta premiazkoagoa bihurtu zen. Horrela, bada, 1987. eta 1993. urteen artean, hiru egitura-funtsen konpromiso-krediituak bikoiztu egin ziren, termino errealetan: 7.000 milioi ecutik 14.000ra igo ziren. Horren asmoa egitura-funtsak ekonomia- eta gizarte-garapeneko tresna bihurtzea zen, eskualdeen arteko aldeak murrizten eta kohesioa handitzen laguntzeko tresna, alegia.

Erreformaren oinarriak bi zutabe zituen: kontzentrazio-ahalegina -eskualdeen artean eta esku-hartze motetan-, eta funtsen koordinazioa -bai elkarren artean, bai eta gainerako finantza-tresnekin-. Lehentasunezko bost helburu zituen:

1) Garapen txikiena duten eskualdeen garapena sustatzea. EGEF, EGF eta NBBEF-O esku-hartzeak.

2) Industria-krisiak larri eragin dituen eskualdeak birmoldatzea. EGEF eta EGF.

3) Iraupen luzeko langabeziaren aurkako borroka. EGF.

4) Gazteen laneratzea erraztea. EGF.

5a) Nekazaritzako eta basogintzako egiturak egokitzea. FEOGA-O.

5b) Landa-eremuaren garapena sustatzea. EGEF, EGF eta NBBEF-O.

3, 4 eta 5a helburuak helburu horizontalak dira, eta ez da beharrezkoa lurralde-eremu jakin bat jomuga izatea. Aitzitik, 1, 2 eta 5b helburuek ezinbestekoa dute lurralde-eremua egitura-funtsak ezarri ahal izateko. Eskualdeak aukeratzeko, irizpide hauei

política comunitaria de desarrollo regional, por el volumen de sus recursos, el sistema de reparto entre países y las acciones a financiar. Se incluían ya las bases para la coordinación con el resto de fondos estructurales e instrumentos financieros existentes.

Los fondos estructurales conocieron una reforma global en profundidad en 1988. Los problemas de adaptación al mercado interior pusieron de relieve las necesidades de cohesión económica y social, que exigía, además de una mayor convergencia de las políticas económicas de los Estados miembros, la reducción de las disparidades regionales.

Estas disparidades, ya notorias, se acentuaron con la adhesión de España y Portugal. Se dobló la población en regiones con un PIB per cápita inferior al 50% de la media comunitaria, haciendo de la necesidad de ajuste un requisito aún más acuciante. Así, se duplicaron en términos reales los créditos de compromiso de los tres fondos estructurales entre 1987 y 1993, pasando de 7.000 a 14.000 millones de ecus, intentando convertir los fondos estructurales en instrumentos de desarrollo económico y social, que contribuyeran a reducir las desigualdades y a dar una mayor cohesión al conjunto de las regiones.

La reforma se fundamenta en un esfuerzo de concentración, tanto regional como en los tipos de intervenciones, y en la coordinación de los fondos entre sí y con los demás instrumentos financieros, a fin de abordar los cinco objetivos prioritarios:

1) Fomentar el desarrollo de las regiones menos desarrolladas. Intervención FEDER, FSE y FEOGA-O.

2) Reconversión de regiones gravemente afectadas por la crisis industrial. FEDER y FSE.

3) Lucha contra el desempleo de larga duración. FSE.

4) Facilitar la inserción profesional de los jóvenes. FSE.

5a) Adaptación de las estructuras en la agricultura y silvicultura. FEOGA-O.

5b) Fomentar el desarrollo de las zonas rurales. FEDER, FSE y FEOGA-O.

Los objetivos 3, 4 y 5a de carácter horizontal no exigen una cobertura territorial definida. Sin embargo, los objetivos 1, 2 y 5b requieren de un ámbito territorial para la intervención de los fondos estructurales. Su selección debe respetar unos

jarraitu behar zaie:

- 1. helburua: erkidegoko per capita errentaren % 75 baino txikiagoa edo haren hurbilekoa duten eskualdeak.

- 2. helburua: batez besteko langabezia-tasa erkidegokoa baino handiagoa duten eskualdeak, industria-enplegua erkidegoko batez bestekoa baino handiagoa izan eta industria-enplegua krisian dutenak.

- 5b. helburua: nekazaritzako enpleguaren pisu handia guztizko enpleguan, nekazarien errenta-maila txikia, eta garapen sozioekonomiko txikia, per capita errentan neurtuta.

Euskadi 2. zenbakiko helburutzat hartu zuten, batez besteko langabezia-maila erkidegokoa baino handiagoa zelako, industria-enpleguaren batez bestekoa, guztizko enpleguarekiko, erkidegokoa baino handiagoa edo berdina zelako 1975etik geroko edozein erreferentzia-urtetarako, eta industria-enplegua jaitsi egin zelako urte horrekiko. Bada salbuespen bat, Arabako Haranak eta Arabako Mendialdea, nekazaritza-eremu baitira erabat eta 5b. helburukotzat har daitezkeenak. Euskadik Europaren finantzazioa jaso zuen 3., 4. eta 5a. helburuak lortzeko aurkeztu ziren proiektuak (bakarka edo programa moduan aurkeztutakoak) finantzatzeko ere. Horrenbestez, 1. helburuko esku-hartzetik kanpo bakarrik geratu zen.

Erreformaren alderdi nabarmenetako bat lankidetza-printzipioa izan zen. Batzordea, interesa duen estatu kidea eta estatu horrek izendatutako agintari eskumenduna (naziokoa, eskualdekoa, tokikoa edo bestelako maila batekoa) adostasun estuan jardutea, helburu komuna lortzeko: horri esan zitzaion lankidetza-printzipioa.

Lankidetza-printzipioa honetan gauzatu zen, bereziki: planak egitean (ahalik eta adostasun handiena izatea komeni da), erkidegoko laguntzako egiturak negoziatzean, bereziki deszentralizatuak diren programa operatiboak ezartzean, diru-laguntza globalak ematean, eta hartutako neurrien jarraipenean eta ebaluazioan.

Egiturazko esku-hartzearen eta interesa duten estatuen ekonomia- eta gizarte-politiken artean sinergia eta koherentzia handiagoa egotea proposatzen da. Erkidegoaren laguntzako planek eta egiturek beharrezko elementu guztiak izango dituzte funtsen jarduera-lehentasunak eta estatu kideen aukera ekonomikoak antolatzeko.

criterios:

- Objetivo nº 1: regiones con renta per cápita inferior o próxima al 75% de la media comunitaria.

- Objetivo nº 2: regiones con tasas de desempleo medio superior a la media comunitaria, índice de empleo industrial superior a la media comunitaria y situación de crisis del empleo industrial.

- Objetivo nº 5b: regiones con elevado índice de empleo agrario respecto al empleo total, bajo nivel de renta de los agricultores y bajo nivel de desarrollo socioeconómico medido en términos de renta per cápita.

El País Vasco resultó elegible como objetivo nº 2, al tener una tasa media de desempleo superior a la media comunitaria, un porcentaje de empleo industrial, en relación con el empleo total, igual o superior a la media comunitaria para cualquier año de referencia a partir de 1975, y una disminución del empleo industrial en relación con ese año. Una excepción son los Valles Alaveses y Montaña Alavesa que son zonas puramente agrícolas y elegibles como objetivo nº 5b. El País Vasco recibió también financiación comunitaria para proyectos que individualmente o en forma de programa se presentaron para la consecución de los objetivos nº 3, 4 y 5a, quedando sólo fuera de la intervención del objetivo nº 1.

Punto destacado de la reforma fue el principio de cooperación, definido como una estrecha concertación entre la Comisión, el Estado miembro interesado y las autoridades competentes designadas por él mismo a nivel nacional, regional, local u otro tipo, para la consecución del objetivo común.

El principio de cooperación se concretó básicamente en la elaboración de planes (en los que conviene una máxima concertación), en la negociación de las estructuras de apoyo comunitarias, en la implantación de programas operativos especialmente descentralizados y en la concesión de subvenciones globales, así como en el seguimiento y evaluación de las medidas adoptadas.

Se propone, también, una mayor sinergia y coherencia de la intervención estructural y las políticas económicas y sociales de los Estados interesados. Los planes y estructuras de apoyo comunitarias incluirían los elementos necesarios para articular las prioridades de actuación de los fondos y las opciones económicas de los Estados

miembros.

Funtsen diru-kopurua handitu zen heinean, kudeaketa egokiagoa egiteko beharrak sortu ziren. Urte anitzeko programazio egiteari ekin zitzaion, proiektuetan artean jarraitu zen moduari jarraitu beharrean; erkidegoko funtsei partaidetza publikoko beste funts batzuk erantsi behar zitzaizkien, erkidegoaren ahaleginak estatuaren ordaina izan dezan; eta bateko eta besteko funtsak ez biltzeko xedapenak ezarri ziren.

Con el incremento de la dotación de los fondos, surgen las exigencias de una gestión más adecuada. Se acude a la programación presupuestaria plurianual en sustitución de la práctica precedente de los proyectos, a la adicionalidad de los fondos comunitarios a otras participaciones públicas para garantizar la existencia de contrapartida nacional al esfuerzo comunitario y al establecimiento de disposiciones para evitar la acumulación.

1988ko erreformen arrakasta txikiaren eta Maastrichteko goi-bileran -1991ko abenduan- hartutako konpromisoen ondorioz, beste erreforma bat egin zen 1994-1999 aldirako, baina ez aurrekoa bezain sakona. Estatuburuek eta gobernuburuek, Maastrichten bilduta, ezinbestekotzat jo zuten erkidegoko egitura-helburuko politika bultzatzea, eta ekonomiaren elkarganatzea gero eta premiazkoagotzat jo zuten, Ekonomia eta Diru Batasunaren erronkari begira. Horrenbestez, Kohesio Funtsa sortu zen, tresna berezi bat, ekonomiaren elkarganatzeko prozesuan atzerapen handiena zuten estatu kideei laguntza ematekoa. Horren helburua ingurumeneko eta garraioko azpiegituretako proiektu jakin batzuk finantzatzea da.

El éxito limitado de las reformas de 1988 y los compromisos adquiridos en la cumbre de Maastricht, en diciembre de 1991, dan paso a una nueva reforma, de menor calado, de la política estructural para el período 1994-1999. Los Jefes de Estado y de Gobierno, reunidos en Maastricht, observaron la necesidad de reforzar la política comunitaria con finalidad estructural, así como la creciente urgencia de convergencia económica para la Unión Económica y Monetaria. Así, se creó el Fondo de Cohesión, un instrumento específico de ayuda a los Estados miembros más rezagados en el proceso de convergencia económica, destinado a proyectos concretos en los sectores de infraestructura medioambiental y de transporte.

Batzordeak onargarritzat jo zituen 1988ko erreforma-printzipioak (kontzentrazioa, programazioa, lankidetza eta eransgarritasuna) eta indarrean zeudela adierazi. Horrenbestez, egitura-jarduerak zehaztu eta berriro diseinatzeari ekin zion. Proposatutako aldaketak eta hobekuntzak Batzordearen 1992ko otsaileko Komunikazioan islatu ziren: “Agiri bakunetik Post-Maastrichtera: gure anbizioen bitartekoak”. “Delors II neurri-multzoa” ere esaten zaio, eta finantzen aldetik aztertzen ditu kohesio-politikaren indartzea, eta 1997. urtera arteko finantza-aurreikuspenak. Erkidegoko politikan egitura-ekintzen eta beste erkidego-politika batzuen garrantzia handitzen ditu, nekazaritzarakoarena salbu.

Considerando aceptables y vigentes los principios reformistas de 1988 (concentración, programación, cooperación y adicionalidad) la Comisión acometió la definición y rediseño de las acciones estructurales. Las modificaciones y mejoras propuestas se plasmaron en la Comunicación de la Comisión de febrero de 1992, “Del Acta Única al Post-Maastricht: los medios de nuestras ambiciones”, conocida como el “paquete Delors II”, que evalúa en términos financieros el reforzamiento de la política de cohesión y las perspectivas financieras hasta el año 1997, aumentando del peso de las acciones estructurales y otras políticas comunitarias, salvo la agrícola, en el presupuesto comunitario.

Edinburgoko goi-bileran, 1992ko abenduan, erkidegoko finantza-baliabideak handitzearen aurkako giroa zegoela, Batzordeak proposatutako finantza-aurreikuspenak onartu ziren, baina epe luzeagorako. Izan ere, 1999. urtera bitartekoak onartu ziren. 1993ko uztailean, 1994-1999 aldirako egitura-funtsen araudi berriak onartu ziren. 21 bilioi pezetatik gora banatuko ziren horiei jarraiki.

La Cumbre de Edimburgo, en diciembre de 1992, en un clima de enorme resistencia al incremento de recursos financieros comunitarios aprobó las perspectivas financieras propuestas por la Comisión, si bien más dilatadas en el tiempo, de forma que abarcaban hasta 1999. En julio de 1993 fueron aprobados los nuevos reglamentos de los fondos estructurales para el período 1994-1999, de los que dependió la distribución de más de 21 billones de pesetas.

Erreformak 1988an sortutako egiturak sendotu eta finkatu, eta ezartzerakoan alferrikako atzerapenak eta zalantzak gertatzea eragotzi zuen, kohesio-

La reforma consolida y mejora las estructuras creadas en 1988, evitando retrasos inútiles e incertidumbres en su aplicación, en un momento

ahaleginaren arrakasta une kritikoan zegoenean.

Berrikuntza formal hauek zituen aurreko aldiarekiko:

- Finantza-kontzentrazio handiagoa. Egitura-funtsetarako baliabideen % 70 inguru 1. helburuko eskualdeetarako dira, eta aurrekoan, aldiz, EGEF funtsetan bakarrik % 80 erabiltzen zen. Horrez gain, bi eskualde-multzo bereizten dira: Kohesio Funtsa duten herrialdeak eta horrelakorik ez dutenak. Lehenengoei baliabide gehiago emango zaizkie. Malgutasun handiagoa dago hezkuntzaren eta osasunaren alorreko inbertsioak egiteko. 1. helburuko eskualdeen zerrenda handiagoa da (Kantabria sartu zen, esaterako), eta aurreko aldian zeuden beste eskualde batzuetarako, haren indarraldia mugatzen da.

- 2. helburuan ez dago aldaketa nabarmenik, baina malgutasun handiagoa dago aukeratzeko irizpideetan. Aintzat har daitezke, industria-gainbehera izan dezaketen zenbait eremu, estatuak arrisku hori badutela irizten badu, nahiz eta horrelakotzat jotzeko irizpideak ez bete.

- Giza baliabideak garatzen laguntzeko ekintzen eremua zabaldu eta erabat aldatzen da. 3. helburu berriak iraupen luzeko langabeziari aurre egiteko esku-hartzeak laguntzen ditu, bai eta gazteen laneratzea errazten dutenak ere. Malgutasun handiagoa du, langabezian hamabi hil baino gutxiago daramatenentzat ere badirelako eta gizarte-bazterketari aurre egiteko esku-hartzeak ere barne hartzen ditu. 4. helburuak eduki berria du. Izan ere, aldaketa sakonak izan dira industrian, merkatu bateratua sortu izanak eraginda, batez ere; eta horrenbestez, industria-aldaketetara eta ekoizpen-sistemen bilakaerara egokitzen lagundu nahi da, lanbide-prestakuntzaren eta birziklatze-ikastaroen bidez.

- 5a helburuak, NPBaren erreformaren baitan nekazaritza-egiturak egokitzea sustatzeaz gain, beste helburu bat sartu du bere egitekoan: arrantza modernizatu eta berregituratzen laguntzea. Lehen 4028/86 eta 4042/89 Erregelamenduen ardura zen, eta sektorekoak ziren, ez egitura-ekintzetan sartutakoak. Hemendik aurrera, beste funts bat osatuko dute: Arrantza Bideratzeko Finantza Tresna (ABFT).

- “Eransgarritasuna” printzipioa leuntzea, aintzat

crítico para el éxito del esfuerzo de cohesión.

Destacan, respecto de la etapa anterior, las novedades formales siguientes:

- Mayor concentración financiera. Cerca del 70% de los recursos asignados a los fondos estructurales se dirige a las regiones objetivo nº 1, frente al anterior 80% de los créditos FEDER solamente. Además, se distinguen dos grupos de regiones, de países con o sin Fondo de Cohesión, atrayendo las primeras más recursos. Se permite una mayor flexibilidad para promover inversiones en educación y sanidad. Se amplía la lista de regiones del objetivo nº 1, incorporándose Cantabria, y se limita su período de vigencia para otras regiones incluidas en la anterior etapa.

- En el objetivo nº 2, sin grandes cambios, se introduce una mayor flexibilidad en los criterios de elegibilidad. Las zonas que un Estado miembro considera vulnerables al declive industrial, aunque no cumplan los criterios, pueden ser consideradas.

- Se amplía el campo de acción en apoyo al desarrollo de los recursos humanos con una modificación sustancial. El nuevo objetivo nº 3 cubre las intervenciones contra el paro de larga duración y que faciliten la inserción profesional de los jóvenes. Se flexibiliza al extender las medidas a parados de menos de doce meses y cubre las actuaciones contra la exclusión social. El objetivo nº 4 toma un nuevo contenido, dados los profundos cambios en la industria, consecuencia especialmente de la creación del mercado único, dirigido a facilitar la adaptación a las mutaciones industriales y a la evolución de los sistemas de producción, en particular mediante la formación profesional y el reciclaje.

- El objetivo 5a, además de impulsar la adaptación de las estructuras agrarias en el marco de la reforma de la PAC, incorpora a su misión la ayuda a la modernización y reestructuración de la pesca, que era atendida por los Reglamentos 4028/86 y 4042/89, de carácter sectorial y no encuadrados en la acción estructural, pasando a conformar un nuevo fondo, el Instrumento Financiero de Orientación Pesquera (IFOP).

- Atemperación del principio de “adicionalidad”,

hartzen baitira herrialde bakoitzaren egoera makroekonomikoa, aurreko aldian egindako egitura-ahalegin publikoaren ezohiko maila eta herrialdearen koiunturaren bilakaera.

- Elkarrekin finantzatutako ekintzen aurretiko ebaluazioan, jarraipenean eta ondorengo ebaluazioan sakontzea, ekintzen kostuaren eta eraginkortasunaren arteko erlazioa zernolakoa den balioesteko.

Aldi horretan, honela esleitu ziren funtsak helburuka:

1. Garapen txikiena duten eskualdeen garapena eta egitura-doikuntza sustatzea. EGEF, EGF eta NBBEF-O esku-hartzeak.

2. Muga-eskualdeak birmoldatzea, bai eta industria-gainbeherak larri kaltetutako eskualdeen zatiak ere (enplegu-arroak eta hiri-guneak barne). EGEF eta EGF esku-hartzeak.

3. Iraupen luzeko langabeziari aurre egitea eta gazteen eta lan-merkatutik baztertuta geratzeko arriskua duten pertsonen laneratzea sustatzea. EGF.

4. Langileak industria-aldaketetara eta ekoizpen-sistemen bilakaerara egokitu daitezen erraztea. EGF.

5a. Nekazaritza Politika Bateratuaren erreformaren baitan nekazaritza-egiturak egokitu daitezen azkartzea, arrantza-jarduera modernizatzeko eta berregituratzeko laguntzak barne. NBBEF-O eta ABFT.

5b. Landa-eremuen garapena eta egitura-doikuntza erraztea. EGEF, EGF eta NBBEF.

1, 2 eta 5b helburuek, lehengo aldian bezalatsu, eskualdeko edo lurraldeko izaera dute, eta zenbait ezaugarri betetzen dituzten eremu batzuetarako dira. Gainerako helburuak Europako Erkidegoko lurralde osorako dira.

Hona hemen eskualdeko izaerako helburuetan sartzeko irizpideak:

- 1. helburua: Azken hiru urteetako per capita BPG erkidegoko batez bestekoaren % 75 baino txikiagoa duten eskualdeak. Gainera, nahiz eta aurreko baldintza ez bete, badira berariazko arrazoiak direla-eta sartu diren eremu edo eskualde batzuk. Erkidegoko biztanleen % 26,6 bizi da helburuko

al considerar las condiciones macroeconómicas de cada país, el nivel extraordinario de esfuerzo público estructural de la anterior etapa y la evolución de la coyuntura nacional.

- Profundización en la evaluación previa, el seguimiento y la evaluación posterior de las actuaciones cofinanciadas, para valorar la relación coste-eficacia de las actuaciones.

En esta etapa la asignación de fondos por objetivos quedó del siguiente modo:

1. Fomentar el desarrollo y el ajuste estructural de las regiones menos desarrolladas. Intervención FEDER, FSE y FEOGA-O.

2. Reconvertir las regiones fronterizas o partes de regiones (incluidas las cuencas de empleo y los núcleos urbanos) gravemente afectadas por el declive industrial. Intervención FEDER y FSE.

3. Combatir el paro de larga duración y facilitar la inserción profesional de los jóvenes y de las personas expuestas a la exclusión del mercado laboral. FSE.

4. Facilitar la adaptación de los trabajadores a las mutaciones industriales y a la evolución de los sistemas de producción. FSE.

5a. Acelerar la adaptación de las estructuras agrarias en el marco de la reforma de la política agraria común, incluyendo también la ayuda a la modernización y reestructuración de la actividad pesquera. FEOGA-O e IFOP.

5b. Facilitar el desarrollo y ajuste estructural de las zonas rurales. FEDER, FSE y FEOGA.

Los objetivos 1, 2 y 5b tienen, como en el periodo anterior, carácter regional o territorial, afectando sólo a determinadas zonas que cumplan ciertas características. El resto de objetivos afectan a todo el territorio de la Comunidad Europea.

Los criterios para pertenecer a cada uno de los objetivos de carácter regional quedan establecidos de la manera siguiente:

- Objetivo nº 1: regiones cuyo PIB per cápita de los últimos tres años sea inferior al 75% de la media comunitaria. Además, aún no cumpliendo el requisito mencionado, existen algunas zonas o regiones que se incluyen por razones específicas. Las regiones afectadas suponen un 26,6% de la población comunitaria, frente al 21,7% en la etapa

eskualdeetan, eta lehen aldian, berriz, % 21,7.

- 2. helburua: Batez besteko langabezia-maila erkidegoko batez bestekoa baino handiagoa, industria-enplegua erkidegoko batez bestekoaren berdina edo hori baino handiagoa eta industria-enplegua galtzen ari dela frogatuta duten eskualdeak. Hemen sartzen dira gainera, bigarren mailako irizpideak betetzen dituztenak, arrantzaren birmoldaketa, adibidez. Helburu honetako eremuek ezin izango dute erkidegoko biztanleen % 15 gainditu.

- 5b. helburua: Landa-eremuak, 1. helburuko eskualdeak ez direnak, ekonomia-garapen txikikoak, eta gutxienez honako baldintza hauetako bi betetzen dituztenak: nekazaritza-enpleguaren maila handia, nekazaritza-errenta eskasa, populazio-dentsitate txikia edota despopulaziorako joera handia. Horrez gain, bigarren mailako zenbait irizpide betetzen dituzten eremuak ere sartzen dira.

EGEFek honetan laguntzen du, bereziki: ekoizpen-inbertsioetan, azpiegiturak sortzen edo modernizatzen, potentzial endogenoa garatzen, 1. helburuko eskualdeetako hezkuntza- eta osasun-alorretako inbertsioetan, eta erkidegoko eskualdeen garapenari buruzko azterketetan eta plan pilotuetan.

EGFak, honetan laguntzen du erkidego osoan: lan-merkatuan sartzen errazten eta horretan sartzeko aukera-berdintasuna sustatzen; laneko trebetasunak, gaitasunak, eta kualifikazioak garatzen; eta aldi berean estatu bati baino gehiagori dagozkion alderdiei buruzko azterketak eta plan pilotuak egiten.

NBBEF-Orientazioak eginkizun hauek ditu: nekazaritzako eta basogintzako egiturak - merkaturatzeko eta eraldatzeko egiturak barne-sendotu eta berrantolatzea, eta naturaren oztopoek nekazaritzan dituzten eraginak konpentsatzen laguntzea.

Beste egiteko batzuk ere baditu: nekazaritza-ekoizpenen birmoldaketa bermatzea eta nekazarientzako jarduera osagarriak sustatzea; nekazarien bizi-maila bermatzen saiatzea; landa-eremuan gizarte-egitura garatzen laguntzea; ingurumena babesten laguntzea; landa-espazioa sortzen laguntzea; eta aholkularitza teknikoa eta informazioa ematea azterketak eta plan pilotuak egiteko, erkidegoan nekazaritza-egiturak egokitzeko eta landa-garapena sustatzeko.

anterior.

- Objetivo nº 2: regiones con una tasa media de paro superior a la media comunitaria, porcentaje de empleo industrial igual o superior a la media comunitaria y caída comprobada del empleo industrial. Además de aquéllas que respondan a criterios secundarios, como reestructuración de la pesca. Las zonas de este objetivo no podrán superar el 15% de la población comunitaria.

- Objetivo nº 5b: zonas rurales, situadas fuera de las regiones Objetivo nº 1, con un bajo nivel de desarrollo económico, y que reúnan al menos dos de los tres criterios siguientes: elevado índice de empleo agrícola, bajo nivel de la renta agrícola y baja densidad de población y/o importante tendencia al despoblamiento. Además de las zonas que cumplan una serie de criterios secundarios.

El FEDER contribuye, en particular, a apoyar las inversiones productivas, la creación o modernización de infraestructuras, el desarrollo del potencial endógeno, las inversiones en el ámbito educativo y sanitario en las regiones objetivo nº 1 y los estudios o planes piloto relativos al desarrollo regional a escala comunitaria.

El FSE contribuye, en toda la Comunidad, a facilitar el acceso y fomentar la igualdad de oportunidades en el mercado laboral, a desarrollar las competencias, aptitudes y cualificaciones profesionales, favorecer la creación de empleo y a la elaboración de estudios o planes piloto, especialmente en aspectos comunes a varios Estados.

El FEOGA-Orientación, tiene las funciones de reforzar y reorganizar las estructuras agrarias y forestales, incluidas las estructuras de comercialización y transformación, y contribuir a compensar los efectos de los obstáculos naturales en la agricultura.

También, sus funciones se extienden a garantizar la reconversión de las producciones agrícolas y promover el desarrollo de actividades complementarias para los agricultores, contribuir a garantizar un nivel de vida de la población agraria, al desarrollo del entramado social de las zonas rurales, a la protección del medio ambiente, y a la consecución del espacio rural, así como a la asistencia técnica e información para estudios o planes piloto relativos a la adaptación de las estructuras agrarias y a fomentar el desarrollo rural

a escala comunitaria.

ABFTaren egitekoak hauek dira: arrantza-baliabideen eta horien ustiapenaren artean oreka iraunkorra lortzen laguntzea; ustiapen-egituren lehiakortasuna handitu eta ekonomikoki bideragarriak diren enpresak sortzen laguntzea; arrantzako eta akuikulturako produktuen balioa handitu eta produktu horien hornikuntza hobetzea; eta aholkularitza teknikoa ematea sektorearen egiturak egokitzeari buruzko azterketak eta esperientzia pilotuak egiteko.

El IFOP tiene las funciones de contribuir a alcanzar un equilibrio sostenible entre los recursos pesqueros y su explotación, a incrementar la competitividad de las estructuras de explotación y el desarrollo de empresas económicamente viables, a revalorizar los productos de la pesca y de la acuicultura y mejorar su abastecimiento, y a la asistencia técnica para estudios o experiencias piloto sobre adaptación de las estructuras del sector.

Erregelamendu berriek -Edinburgoko Kontseilu Europarraren finantza-erabakien ondorio dira- zehazten dute zer finantza-baliabide dauden 1994. eta 1999. urteen artean konprometitzeko egitura-funtsen eta ABFTaren kontura. Baliabideak, guztira, 141.471 milioi ecu izan ziren (1992ko prezioetan). EEren guztizko aurrekontuaren herena da; 1987koa, berriz, aurrekontuaren % 9 izan zen, eta 1989-1993 aldikoa, % 25.

En los nuevos Reglamentos, derivados de los acuerdos financieros del Consejo Europeo de Edimburgo, se determinan los recursos financieros disponibles para ser comprometidos entre 1994-1999 con cargo a los fondos estructurales y al IFOP. Recursos que ascendieron a 141.471 millones de ecus (a precios de 1992), lo que representa un tercio del Presupuesto total de la CE, frente al 9% de 1987 y al 25% del período 1989-1993.

Kohesio Funtsak oso egiteko espezifikoa du. Europar Batasuna eratzeko Itunean (1992ko otsailaren 7an sinatu zen Maastrichten eta indarrean dago 1993ko azaroaren 1etik), 130D artikuluan aurreikusita dago, eta hor ezartzen du 1993ko abenduaren 31 baino lehen eratu behar dela. Europako Erkidegoak bere ekonomia- eta gizarte-kohesioa sendotzeko ekintzaren barnean, Kohesio Funtsak finantza-laguntza ematen die ingurumenaren sektoreko proiektuei eta garraio-azpiegituren Europan batetik besterako sareak sortu eta garatzeko proiektuei.

El Fondo de Cohesión tiene una finalidad muy específica. Previsto en el artículo 130D del Tratado de la Unión Europea (firmado en Maastricht el 7 de febrero de 1992 y vigente desde el 1 de noviembre de 1993), en el que se establece su creación antes del 31 de diciembre de 1993. Dentro de la acción de la Comunidad dirigida a reforzar su cohesión económica y social, proporciona apoyo financiero a proyectos en los sectores del medio ambiente y de redes transeuropeas de infraestructuras del transporte.

Ekonomia eta Moneta Batasuna lortzeko elkarganatze-irizpideak betetzeko zailtasun handienak dituzten estatuak izango dira onuradunak. Aukeratuak izan ahal izateko irizpidea hau izango da: Europako batez besteko per capita errentaren % 90 baino txikiagoa izatea (Greziak % 53 du; Portugalek, % 55; Irlandak, % 67, eta Espainiak % 79).

Los beneficiarios son los Estados miembros que presentan mayores dificultades para cumplir con los criterios de convergencia para la Unión Económica y Monetaria. Como criterio de elegibilidad, deben tener una renta per cápita inferior al 90% de la media comunitaria (Grecia 53%, Portugal 55%, Irlanda 67% y España 79%).

Itunean ezarritako baldintzak betetzea dakarten Elkarganatze Programak egotea estatu onuradunak beharrezko ahalegina egiten duten berme dira. Berme hori handitzeko, beste printzipio bat dago, funtsaren baldintzazkotasuna: laguntza emateko, ezinbestekoa da Elkarganatze Programan ezarritako helburuak betetzea.

La existencia de Programas de Convergencia que conduzcan al cumplimiento de las condiciones fijadas en el Tratado es garantía de que los Estados beneficiarios acometen el esfuerzo preciso. Garantía que se refuerza con el principio de condicionalidad del fondo, de forma que la concesión de la ayuda queda supeditada al cumplimiento de los objetivos fijados en los respectivos Programas de Convergencia.

Europar Batasuna eratzeko Ituna indarrean sartzean atzerapena zegoela ikusita (izan ere, 1993ko urtarrilean sartu behar zuen indarrean), eta Edinburgoko Kontseilu Europarraren ondorioekin bat, Kontseiluak 792/93 EEE Erregelamendua

Dados los retrasos en la entrada en vigor del Tratado de la Unión Europea, prevista inicialmente para el 1 de enero de 1993, y acorde con las conclusiones del Consejo Europeo de Edimburgo de diciembre de 1992, el Consejo aprobó el 30 de

onartu zuen 1993ko martxoaren 30ean. Erregelamendu horretan, lehen aipatutako herrialdeei finantza-laguntza emateko kohesioko finantza-tresna bat ezarri zen. Tresna hori 1993ko apirilaren 1ean jarri zen martxan, eta luzatzeko aukera zegoen benetako Kohesio Funtsa eratu arte. Hori 1994ko maiatzaren 24an eratu zen, Kontseiluaren 1164/94 Erregelamendua, maiatzaren 14koa, indarrean sartu zenean.

Edinburgoko Kontseilu Europarraren finantza-aurreikuspenekin bat, Kohesio Funtsari esleitutako konpromiso-krediduak 15.150 milioi ecukoak (1992ko prezioak) dira 1993-1999 aldirako, eta honela banatuta daude:

marzo de 1993 el Reglamento CEE 792/93. En él se estableció un instrumento financiero de cohesión que permitiera la concesión de una contribución financiera a los países antes mencionados. Este instrumento entró en funcionamiento el 1 de abril de 1993, con posibilidad de prórroga hasta la creación del auténtico Fondo de Cohesión el 26 de mayo de 1994, con la entrada en vigor del Reglamento del Consejo 1164/94, de 16 de mayo.

De acuerdo con las previsiones financieras del Consejo Europeo de Edimburgo, los créditos de compromiso asignados al Fondo de Cohesión ascienden a 15.150 millones de ecus (precios de 1992) para el período 1993-1999 y repartidos del siguiente modo:

URTEA / AÑO	**1993**	**1994**	**1995**	**1996**	**1997**	**1998**	**1999**	**GUZTIRA /** TOTAL
MM ECU	1.500	1.750	2.000	2.250	2.500	2.550	2.600	15.150

KOADROA / CUADRO II.3

Egitura-funtsek programei ematen zien laguntza, eta Kohesio Funtsak, berriz, proiektu jakinei. Gainera, laguntza handiagoa izaten da, proiektuaren guztizko kostuaren % 80-85ekoa ere izan daiteke eta. Ez ohiko kasuetan, prestakuntzako azterketen eta aholkularitza teknikoaren % 100 ere estal dezake laguntzak. Sektorekako banaketan, Europako Batzordeak hitza eman zion Europako Parlamentuari ingurumen-alorretako proiektuei eta garraioko proiektuei emandako laguntzen artean oreka egongo zela.

Funtsaren erregelamenduak berak tarte batzuk ezartzen ditu baliabideak estatu onuradunen artean banatzeko. Eta, horrenbestez, Espainiak % 52-58 lortuko luke; Greziak, % 16-20; Portugalek, % 16-20, eta Irlandak, % 7-10. Tarte horietan, ekitaldi guztietan eta lau estatu onuradunei, tartearen erdiari dagokion kopuruan eman zaizkie laguntzak. Horrela, bada, Espainiari esleitu zitzaizkion urteko konpromiso-krediduak konpromiso-kredituen % 55ekoak izan dira. Hona hemen:

A diferencia de los fondos estructurales, la asistencia es otorgada a proyectos específicos, no a programas, y el nivel de ayuda es superior, alcanzando el 80-85% del coste total del proyecto. En casos excepcionales puede llegar al 100% del coste de los estudios preparatorios y de asistencia técnica. En cuanto a la distribución sectorial, la Comisión Europea se comprometió ante el Parlamento Europeo a mantener un equilibrio entre proyectos en materia medioambiental y proyectos de transportes.

El reparto indicativo de recursos entre Estados beneficiarios se realiza conforme a la horquilla establecida por el propio reglamento del fondo de forma que España obtendría el 52-58%, Grecia 16-20%, Portugal 16-20% e Irlanda 7-10%. En estos márgenes, las asignaciones se han efectuado en todos los ejercicios y para los cuatro Estados miembros beneficiarios a la mitad de la horquilla. Así, la asignación de créditos anuales de compromiso correspondiente a España, equivalente al 55% de los de los créditos de compromiso totales:

URTEA / AÑO	**1993**	**1994**	**1995**	**1996**	**1997**	**1998**	**GUZTIRA** / TOTAL
Banatutakoa, guztira Total distribuido	1.563,6	1.854,5	2.151,2	2.443,7	2.748,7	2.871,0	13.632,7
Espainiari esleitutakoa Asignación España	859,0	1.018,0	1.184,4	1.341.9	1.514,6	1.576,0	7.493,9

KOADROA / CUADRO II.4

1993 eta 1994 ekitaldietan Espainiari esleitutako konpromiso-krediduen barne-banaketari ekinda, adierazi behar da estatuko administrazioak ez zuela mekanismorik jarri autonomia-erkidegoetako proiektuek parte har zezaten, eta, horrenbestez, administrazio haren proiektuei soilik esleitu zitzaien.

1995. urtean, funtsak konprometitutako 2.151,2 milioi ecuetatik 1.184,4 milioi egokitu zitzaizkion Espainiari. Kopuru horren % 48 ingurumen-alorreko proiektuetarako izan zen, eta % 52, berriz, garraio-azpiegiturako proiektuetarako. Funtsa abian jarri zenetik lehenengo aldiz, estatuko administrazioak aukera eman zien autonomia-erkidegoei funtsetan parte hartzeko. Ordudanik urtean 40.000 milioi pezeta esleitu dira urtean, baina ez da ezarri autonomia-erkidegokako inolako kuotarik, ezta hautaketa-irizpiderik ere.

2002 eta 2003 urteetan sektoreak aurreko urteetan jasandako krisia gainditu ondoren eta ondorioz, bilketa hobetu ostean, 2004tik aurrera bilketa geldi geratu zen eta azken bi urteetan ere geldi geratu da, eta IV.57 Taulan ikusten den bezala, beherantz joan da pixkanaka. Euskal Autonomia Erkidegoko zerga kontzertatuen ondoriozko bilketa osoaren % 0,6 izan zen.

Después que en los años 2002 y 2003 se hubiera superado la crisis sufrida por el sector en años anteriores que supuso una recuperación de la recaudación, a partir de 2004 se volvió a una situación de estancamiento que se ha mantenido en los dos últimos años, traducida en descensos paulatinos en la recaudación tal como se observa en el Cuadro IV.57. Su cómputo representó el 0,6% de la recaudación total por tributos concertados en el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2006an Bingoen ondoriozko bilketa 32.076 mila eurora iritsi zen, hau da, 2005eko ekitaldian baino % 7 gutxiago. Jokoaren jardueraren azpisektore horrek aurreko urteetan beherakada handi bat jasan zuen eta 1996tik aurrera pixkanaka igotzen joan zen.

La recaudación en concepto de Bingos en 2006 alcanzó los 32.076 miles de euros, disminuyendo un 7% respecto al ejercicio 2005. Este subsector de la actividad del juego sufrió una fuerte recesión en años anteriores, apuntando una lenta recuperación a partir del año 1996.

Jolas-makinei dagokienez, bilketak % 1,5 egin zuen behera eta 32.564 mila eurora iritsi zen. Bestalde, Txartelen, Kasinoen eta beste batzuen ondoriozko bilketak beherakada nabarmenagoa jasa zuen, % 12,7koa, alegia, eta 4.277 mila eurora iritsi zen.

En cuanto a las máquinas recreativas la recaudación descendió un 1,5%, alcanzando los 32.564 miles de euros. Por su parte, la recaudación por Boletos, Casinos y otros fue la que experimentó un descenso más significativo, del 12,7%, alcanzando los 4.277 miles de euros.

JOKOAREN TASA FISKALAK BILDUTAKO ZENBATEKOEN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN POR LA TASA FISCAL SOBRE EL JUEGO POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

000€

	ARABA / ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EAE** / CAE
2001	6.732	40.455	20.196	67.384
2002	7.566	44.216	20.573	72.355
2003	8.508	44.654	20.633	73.795
2004	8.335	44.227	20.239	72.801
2005	8.287	43.725	20.439	72.450
2006	8.102	41.358	19.458	68.918
% 02/01	12,38	9,30	1,86	7,38
% 03/02	12,46	0,99	0,29	1,99
% 04/03	-2,03	-0,96	-1,91	-1,35
% 05/04	-0,58	-1,13	0,98	-0,48
% 06/05	-2,23	-5,41	-4,80	-4,88

KOADROA / CUADRO IV.57

- IV.58, IV.59 eta IV.60 tauletan 2001-2006 arteko aldian Jokoaren gaineko Tasa Fiskalaren bidez, ondoren adierazten diren kontzeptuen ondorioz bildutako zenbatekoaren bilakaera jaso da:

En los cuadros IV.58, IV.59 y IV.60 se muestra la evolución de la recaudación obtenida en el periodo 2001-2006 por la Tasa Fiscal sobre el Juego desglosada por conceptos:

BINGOETAN BILDUTAKO DIRU-KOPURUAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN EN CONCEPTO DE BINGOS POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

000€

	ARABA / ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EAE** / CAE
2001	4.110	20.733	9.640	34.482
2002	4.020	21.454	9.888	35.362
2003	3.880	20.624	9.996	34.500
2004	3.909	20.697	9.528	34.134
2005	3.988	20.867	9.644	34.498
2006	3.830	19.211	9.035	32.076
% 02/01	-2,18	3,48	2,57	2,55
% 03/02	-3,48	-3,87	1,09	-2,44
% 04/03	0,74	0,35	-4,67	-1,06
% 05/04	2,02	0,82	1,21	1,07
% 06/05	-3,97	-7,93	-6,31	-7,02

KOADROA / CUADRO IV.58

TXANPON-MAKINETAN BILDUTAKO DIRU-KOPURUAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN EN CONCEPTO DE MÁQUINAS RECREATIVAS POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

000€

	ARABA / ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EAE** / CAE
2001	2.622	16.765	9.842	29.228
2002	3.546	20.053	9.962	33.560
2003	4.628	20.973	9.884	35.485
2004	4.426	20.530	9.871	34.827
2005	4.285	19.215	9.555	33.055
2006	4.231	18.760	9.573	32.564
% 02/01	35,21	19,61	1,22	14,82
% 03/02	30,52	4,59	-0,78	5,74
% 04/03	-4,36	-2,11	-0,13	-1,86
% 05/04	-3,18	-6,40	-3,20	-5,09
% 06/05	-1,25	-2,37	0,19	-1,48

KOADROA / CUADRO IV.59

TXARTEL SALMENTAN, KASINOETAN ETA BESTETAN BILDUTAKO DIRU-KOPURUAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN EN CONCEPTO DE BOLETOS, CASINOS Y OTROS POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

000€

	ARABA / ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EAE** / CAE
2001		2.958	715	3.673
2002		2.710	723	3.433
2003		3.056	754	3.810
2004		3.001	840	3.841
2005	14	3.644	1.240	4.898
2006	42	3.387	849	4.277
% 02/01		-8,38	1,21	-6,52
% 03/02		12,77	4,19	10,96
% 04/03		-1,82	11,48	0,81
% 05/04		21,43	47,64	27,53
% 06/05	197,97	-7,06	-31,52	-12,67

KOADROA / CUADRO IV.60

3.d. Gastu fiskalak

Ogasun publikoaren dotrinak ez du argi eta modu bateratuan definitzen zer den gastu fiskala; hala eta guztiz ere, hauxe litzateke Gastu Fiskalen Aurrekontua: zenbatespen bat, politika ekonomiko eta sozialeko helburuak betetzeko erabakitzen diren onura fiskalak aplikatzeak zergen bilketan zer-nolako murrizpena ekarriko duen aurreikusteko.

Horrenbestez, politika fiskala eta erakunde publikoek ekonomian egiten duten esku-hartzea aztertzeko tresna da Gastu Fiskalen Aurrekontua, horren bidez jakin baitaiteke zer nolako eragina izango duen zerga-arloan xede sozialak eta

3.d. Gastos Fiscales

Aún cuando el concepto de gasto fiscal no cuenta con una definición clara y común dentro de la doctrina hacendística, el Presupuesto de Gastos Fiscales puede definirse como la cuantificación de la previsión de la reducción de los ingresos tributarios como consecuencia de la aplicación de beneficios fiscales orientados a la consecución de determinados objetivos de política económica y social.

Por tanto, el Presupuesto de Gastos Fiscales tiene la utilidad de servir como instrumento de análisis de la política fiscal y de la intervención pública en la economía, proporcionando información sobre los sacrificios fiscales que

ekonomikoak (hezkuntza, etxebizitza, osasuna, aurrezte- eta inbertsio-jardueren sustapena, etab.) lortzeko egiten diren ekimenek. Horrela jokatuta, gizarteko sektoreek edo jarduera ekonomikoek ogasunei egiten dizkieten ekarpen efektiboei buruzko informazioa jasotzen da, informazio gardeneko esparru bat sortuz. Halaber, gastu fiskalen zenbatekoaren berri izanda, aurrekontuen irakurketa oso bat egiteko baliabideak ematen dira.

Gastu fiskalak edo onura fiskalak askotarikoak izan daitezke, formari dagokionez: salbuespenak, gastu kengarriak, murriztapenak, kenkariak, hobariak, geroratzeak, etab. OCDE erakundeak dio gastu fiskalak aurrekontuen egitura "normaletik" desbideratutako elementuak direla. Zerga-oinarriaren murriztapenak eta kuotaren kenkariak dira onura fiskal arruntenak eta erabilienak.

2006rako Gastu Fiskalen Aurrekontua Euskal Autonomia Erkidegoan 5.793,5 milioi eurora iritsi zen, hau da, diru-sarrera teorikoen % 34,2 (aurrekontuan sartutako diru-sarrerak eta gastu fiskalak). Gastu fiskalen % 45,4 (2.628,4 milioi euro) araudi autonomoko zerga kontzertatuei dagokie.

suponen la atención a diferentes objetivos de carácter social y económico (educación, vivienda, sanidad, promoción del ahorro e inversiones, etc.). Contribuyendo de esta forma a un mejor conocimiento y transparencia de las aportaciones efectivas a Hacienda de cada sector o actividad económica, de cada grupo social. Así mismo, la cuantificación de los gastos fiscales permite apreciar la verdadera dimensión del Presupuesto.

Los gastos fiscales o beneficios fiscales pueden adoptar formas variadas: exenciones, gastos deducibles, reducciones, deducciones, bonificaciones, diferimientos, etc. La OCDE los define como cualquier desviación de la estructura "normal" del impuesto. Los más comunes y utilizados son las reducciones en la base imponible, así como las deducciones en la cuota.

El Presupuesto de Gastos Fiscales para el año 2006 en la Comunidad Autónoma alcanza los 5.793,5 milones de euros, lo que supone el 34,2% de los ingresos téóricos (ingresos presupuestados y gastos fiscales). El 45,4% de los gastos fiscales (2.628,4 millones de euros) corresponde a tributos concertados de normativa autónoma.

GASTU FISKALEN AURREKONTUA. ITUNDUTAKO ZERGAK. 2006
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES. TRIBUTOS CONCERTADOS. 2006

000€

	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI
Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga Impuesto sobre la renta de las personas físicas	277.107	988.689	603.531	1.869.327
Ondarearen gaineko zerga Impuesto sobre el patrimonio	13.486	70.569	41.788	125.843
Sozietateen gaineko zerga Impuesto sobre sociedades	108.368	244.088	173.048	525.503
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS	398.961	1.303.345	818.367	2.520.673
Balio erantsiaren gaineko zerga Impuesto sobre el valor añadido	501.691	1.485.205	949.319	2.936.214
Ondare eskualdaketa eta EJDen g/ zerga Impuesto s/transmisiones patrimoniales y AJD	47.939	27.479	32.286	107.704
Zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia Imp. especial s/ determinados medios de transporte	3.209	10.233	5.866	19.308
Fabrikazio zerga bereziak II. especiales de fabricación	31.226	97.063	62.931	191.220
Zenbait hidrokarburoren txikizkako salment. g. z. I. s/ ventas minoristas de determinados hidrocarburos	298	3.143	586	4.027
Aseguru sarien gaineko zerga I. s/ primas de seguros	2.346	7.293	4.728	14.367
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS	586.709	1.630.415	1.055.716	3.272.841
GUZTIRA / TOTAL	985.671	2.933.761	1.874.083	5.793.514

KOADROA / CUADRO IV.61

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga zuzena, pertsonala eta subjektiboa da, eta pertsona fisikoen errenta zergapetzen du. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-harremanei erreparatuta, araudi autonomopeko zerga itundua da.

Gastu fiskala sortuko da bi kasu hauetan: batetik, errenta-elementuren bati ez bazaio zerga aplikatzen, eta, bestetik, errentaren elementu batek edo errenta osoak ez badu osorik ordaintzen zerga, egiturazko tarifa aplikatuta (hala, zergak banaka ordaintzeko erregimena jotzen da egiturazkoa, eta ez baterako ordainketa-ereduari dagokiona).

Horrenbestez, adierazitako zenbateko horiek gastu fiskaltzat joko dira, eta gastu fiskaltzat joko dira, halaber, familia-unitateen zerga-karga murrizteko tratamendu espezifikoak.

Etekinak koefizienteen edo moduluen bidez zehazteko metodoek ez dute gastu fiskalik sorrarazten, horien bidez egindako kalkuluen emaitza zenbatespen zuzenaren berdina izan beharko bailuke. Ondarezko galerak eta irabaziak zergatzeko sistemak zehaztutako zenbatekoak ez dira gastu fiskaltzat jotzen, hura egiturazko sistema baita.

Ez dira gastu fiskalak honako kontzeptu hauek: Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergak zergatutako ondare-gehitzeen zergarekiko loturarik eza; lurralde barruko edo nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko kenkariak; alokairurako etxebizitzak eskuratzeko kredituen interesei aplikatutako kenkariak, errenta lortzeko gastu beharrezkotzat jotzen baitira; familiako kenkariak eta kenkari pertsonalak, egiturazkoak baitira; ondare-aldaketen zergatze-erregimenaren espezialitateak; eta aitortzeko obligazioa sorrarazten duten gutxieneko zenbatekoak.

Ez dira gastu fiskaltzat jotzen, halaber, denbora-epe irregularrean lortutako etekinei edo bi urtetik gora sortutakoei aplikatutako murriztapenak; izan ere, kasu horietan, errenta zergaldi bat baino gehiagotan sortzen da, eta horien xedea zerga-karga egokitzea da.

Bestalde, kontzeptu hauek gastu fiskaltzat jotzen dira: “hildakoaren plusbalioa”; ondasun jakin batzuk dohaindu ondoren adierazten diren ondare-irabazien eta -galeren zergarekiko loturarik eza; errenta jakin batzuen salbuespenak; zerga-oinarriaren murrizpenak, laneko etekinen hobariak aplikatzeagatik, ohiko etxebizitza eskuratzeko

Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

El IRPF es un tributo de carácter directo y naturaleza personal y subjetiva que grava la renta de las personas físicas. En el ámbito de las relaciones tributarias entre el Estado y el País Vasco se trata de un tributo concertado de normativa autónoma.

Se genera gasto fiscal cuando algún componente de renta no sea objeto de tributación o cuando un componente o el conjunto de la renta no tribute en su totalidad, según la tarifa estructural, considerándose estructural el régimen de tributación individual y no el relativo a la tributación conjunta.

Ésta es considerada, por consiguiente, gasto fiscal, al igual que los tratamientos específicos que implican un menor gravamen para la unidad familiar.

La existencia de métodos de determinación de rendimientos mediante coeficientes o módulos no genera gasto fiscal ya que su cálculo debiera ser equivalente al realizado a través de estimación directa. El sistema de tributación de las ganancias y pérdidas patrimoniales no es computable como gasto fiscal al tener también carácter estructural.

Además, no son gasto fiscal: la no sujeción de los incrementos de patrimonio gravados por el Impuesto de Sucesiones y Donaciones, las deducciones establecidas para evitar la doble imposición interna e internacional, la deducción por intereses de los créditos para la adquisición de vivienda destinada a alquiler (al considerarse gasto necesario para la obtención de renta), las deducciones familiares y personales, por tener carácter estructural, las especialidades en la tributación de las variaciones patrimoniales y los mínimos de la obligación de declarar.

Tampoco se consideran gasto fiscal las reducciones aplicadas a los rendimientos obtenidos de forma notoriamente irregular en el tiempo o con ciclo de generación superior a dos años, que tratan de adecuar la carga tributaria por generarse la renta en varios períodos impositivos.

Sin embargo, sí son gasto fiscal: la “plusvalía del muerto”, la no sujeción de los incrementos y disminuciones patrimoniales que se pongan de manifiesto con motivo de donaciones de determinados bienes, las exenciones de ciertas rentas, las minoraciones de la base imponible debidas a la aplicación de la bonificación de los

kredituaren interesengatik (konpentsazioko erregimen iragankorrean), eta pentsio-planei eta BGAEei egindako ekarpenengatik; kuota osoari gastu pertsonalengatik, inbertsioengatik eta beste kontzeptu batzuengatik aplikatutako kenkariak; eta unean-unean onartzen diren pizgarri fiskalak.

rendimientos del trabajo, a intereses de créditos para la adquisición de la vivienda habitual (régimen transitorio de compensación), a aportaciones a Planes de Pensiones y EPSVs, las deducciones de la cuota integra por gastos personales, por inversión y otras, así como, los incentivos coyunturales.

Hala ere, ez dira zenbatzen edo kontuan hartzen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren gastu fiskal guztiak, bai horiei buruzko datuak falta izaten direlako, bai zenbait kontzeptuk aparteko ebaluazioa egitea eskatzen dutelako. Egoera hori azterketaren batasunaren eta kalitatearen kalterako izaten da.

Pero, no todos los gastos fiscales considerados en el IRPF son computados, debido a la ausencia de datos, y, en otros casos, se plantean dificultades que necesitan una evaluación independiente, restando homogeneidad y calidad al análisis.

Gastu fiskalen zenbatekoa kuantifikatzeko, simulazio-teknikak erabiltzen dira zergadunen kopuru osoari erreparatuta edo zergadunen lagin adierazgarri bat hartuz, zerga-oinarriaren tarte bakoitzean. Horren bidez, zerga-onurek zergadun bakoitzari ekarriko dion onura zehazten da. Kuotari egindako kenkariei dagokien gastu fiskala da egiaz aplikatutako zenbatekoa. Kuota osoa nahikoa ez izanagatik aplikatu gabe geratu diren kenkarien kasuan, horien galera proportzioan banatzen da, kenkari bakoitzagatik aitortutako zenbatekoari erreparatuta.

Para su cuantificación se aplican técnicas de simulación bien con toda la población de declarantes bien con una muestra representativa de contribuyentes por tramos de base imponible, determinando para cada contribuyente el impacto de los beneficios fiscales. El gasto fiscal asociado a las deducciones en la cuota es el montante realmente aplicado. Para la parte de las deducciones no aplicadas por insuficiencia de la cuota integra se opta por repartir la pérdida proporcionalmente al importe declarado de cada deducción.

Hauek dira, mila eurotan adierazita, PFEZan aurreikusitako gastu fiskalak, kontzeptuz kontzeptu:

Los gastos fiscales estimados por conceptos en el IRPF, en miles de euros, son los siguientes:

lanaren etekin hobariak / bonbificación rendimientos del trabajo		742.126
BGAE-etarako ekarpenak / aportaciones a EPSVs		388.785
konp. ohiko etxebizitza erosteagatik / comp. adquisición viv. hab.		17.728
kenkariak / deducciones		407.839
ohiko bizilekuaren alokairua / alquiler de vivienda habitual	26.353	
etxe-arrentamendua / arrendamiento de vivienda	8.354	
inbertsioa ohiko bizilekuan / inversión en vivienda habitual	357.443	
inbertsioa jarduera ekonomikoetan / inversión en activ. econ.	4.885	
mezenasgo-jarduerak / actividades de mecenazgo	10.805	
baterako tributazioa / tributación conjunta		210.811
errenta salbuetsiak / exenciones		102.039
guztira / total		1.869.327

PFEZ eta Euskal Autonomia Erkidegorako kalkulatutako zerga-onurak 1.869.327 mila eurokoak ziren, hau da, 2006an Zerga horren bidezko diru-sarrera teorikoen (diru-sarreren eta gastu fiskalen aurrekontua) % 34,5.

Para el conjunto de IRPF y la Comunidad Autónoma los beneficios fiscales estimados se cuantifican en 1.869.327 miles de euros, lo que supone el 34,5% de los ingresos teóricos (presupuesto de ingresos y gastos fiscales) por este Impuesto para el año 2006.

Ondarearen gaineko Zerga

Zerga pertsonala eta zuzena da, pertsona fisikoen ondare garbia zergapetzen duena. Araudi autonomopeko zerga itundua da, eta, ondorioz, lurralde historikoetako erakunde eskudunek gaitasuna dute hura eraentzeko. Horrenbestez, Ekonomia Itunean jasotako harmonizazio arauek ezarritakoak izango dira araugintza-gaitasun horren muga bakarrak.

Zergadunak pertsona fisikoak izanda, pertsona fisiko horien aberastasun garbiak osatzen du zergaren oinarri ekonomikoa; betiere, aberastasun hori zenbateko jakin batetik gorakoa bada.

Horiek horrela, gastu fiskala izango da, zerga hori aitortzeko obligazioa duen pertsonaren aberastasun garbiak ez badu zergarik ordaintzen (zerga-salbuespena) edo, zerga osorik edo zati batean ordainduta, ez bada zergaren tarifa aplikatu. Ez dira gastu fiskaltzat jotzen zerga hori aitortzeko obligazioa ezartzen duten zenbatekoak eta zergapetze bikoitza ekiditeko kenkariak.

Beraz, gastu fiskala dira ondasun eta eskubide salbuetsiak (bereziki, ohiko bizilekua), gutxieneko salbuetsia, kuota osoan PFEZarekin batera ezartzen den muga, eta kuotan ematen diren hobariak Ceutan eta Melillan ondasunak eta eskubideak izateagatik.

2006erako aurreikusitako gastu fiskala 125.843 mila eurokoa da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoak zerga horren bidez teorian eskuratuko dituen diru-sarreren % 52,7.

Impuesto sobre el Patrimonio

Éste es un tributo de naturaleza personal y directa que grava el patrimonio neto de las personas físicas. Tiene carácter de tributo concertado de normativa autónoma, por tanto, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos disponen de capacidad para regularlo sin otras limitaciones que las propias normas de armonización contenidas en el Concierto.

La base económica del Impuesto sobre el Patrimonio está constituida por la riqueza neta de los contribuyentes, personas físicas, que exceda de un determinado límite.

En consecuencia, existirá gasto fiscal si la riqueza neta de una persona obligada a declarar no tributa (exención) o lo hace, en todo o en parte, de manera distinta a la fijada en la tarifa del Impuesto. No se consideran, sin embargo, gasto fiscal el límite de la obligación de declarar ni las deducciones por doble imposición.

Son gasto fiscal, por tanto, los bienes y derechos exentos (en particular la vivienda habitual), el mínimo exento y el límite conjunto con el IRPF de la cuota íntegra, así como las bonificaciones de la cuota por bienes y derechos en Ceuta y Melilla.

El gasto fiscal estimado para 2006 alcanza los 125.843 miles de euros, es decir, un 52,7% de los ingresos teóricos por este concepto del conjunto de la Comunidad Autónoma.

Sozietateen gaineko Zerga

Ekonomia Ituneko 14. artikuluak arautzen du Sozietateen gaineko zerga erregimen autonomopeko itundutako zerga dela, zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten subjektu pasibo guztientzat. Zerga honen araudi autonomoa aplikatuko zaie, beraz, baldintza hauek betetzen dituzten sozietateei:

- Zerga-egoitza Euskadin izan eta aurreko urtean 6 milioi eurotik beherako eragiketa-bolumena egin dutenei.

- soilik euskal lurraldean jarduten duten sozietateei, 6 milioi euro baino eragiketa-kopuru handiagoa badute eta zerga-egoitza non duten aintzat hartu gabe; eta zerga-egoitza euskal lurraldean duten sozietateei, baldin eta aurreko ekitaldian 6 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan bazuten eta ez badute lurralde erkidean egin haien

Impuesto sobre Sociedades

En el Concierto Económico, artículo 14, se establece que el Impuesto sobre Sociedades es un tributo concertado de normativa autónoma para los sujetos pasivos que tengan domicilio fiscal en el País Vasco. Así, la normativa autónoma de este Impuesto se aplicará a las entidades que se encuentren en cualquiera de los siguientes supuestos:

- entidades que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco y su volumen total de operaciones no sea superior a 6 millones de euros,

- entidades que operen exclusivamente en el País Vasco y su volumen total de operaciones en el ejercicio anterior exceda de 6 millones de euros, independientemente de su domicilio fiscal, entidades que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco, su volumen total de operaciones exceda en el ejercicio anterior de 6 millones de euros y no realicen en Territorio

eragiketen % 75 edo gehiago.

Subjektu pasiboak zergaldian eskuratutako errenta garbia da, beste zergaren batek zergapetzen ez badu, Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ekonomikoa.

Kontuan izan behar da ez direla gastu fiskaltzat jotzen "entitate" publikoei dagozkien salbuespenak, subjektu aktiboek eta pasiboek bat egiten baitute (denak sektore publikokoak dira), ezta, haien izaera teknikoa dela-eta, zergapetze bikoitzagatiko kenkariak ere.

Hala ere, gastu fiskaltzak jotzen dira harmonizazio-askatasuna, aparteko etekinen berrinbertsioa, orokorrak ez diren zerga-tasak, hobariak eta kenkariak. Gastu fiskala dira, halaber, enpresa txikientzako pizgarri fiskalak, laneko istripuen mutualitateetatik jasotako errenten salbuespen partziala, berrinbertsioagatiko salbuespenak eta gertaera jakin batzuei lotutakoak, dohaintzak, fundazioei buruzko legediarekin bat etorriz, eta geroratze-egoerak.

Gastu fiskala, 2006 ekitaldian, 525.503 mila eurokoa izango dela aurreikusten da. Hiru lurraldeek teorian bilduko duten zenbatekoaren % 27,3 da kopuru hori.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga

Europar Batasunean harmonizatutako zerga da BEZa, eta haren zenbait alderdi arautzera mugatzen da Estatuen araugintza-ahalmena. Alderdi horiek berariaz jasota dauden Europar Batasuneko zuzenbidean. Era berean, errealitate horrek eta zergaren ezaugarriek bultzatuta, ordainarazpen-ahalmena banatzera mugatzen da zerga horren gainean Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek egiten duten itunketa, arautze-ahalmenak zergaren kudeaketaren zenbait alderdi baino ezin baititu erabaki.

BEZaren egitate zergagarria dira enpresaburuek edo profesionalek haren aplikazio-eremuan eta irabazi asmoz egindako eragiketak (ondasunen entregak edo zerbitzu-emateak). Eragiketa horiek ohikoak edo noizbehinkakoak izan daitezke, baina haien enpresa jardueren edo jarduera profesionalaren baitan egindakoak izan behar dute.

Horiek horrela, BEZaren gastu fiskalak izango dira zerga horren zerga-tasa orokorraz (% 16koa eta zergaren egiturazko elementutzat jotzen dena) zergapetzen ez diren eragiketek sortutakoak (tasa murriztuaz zergapetutakoak) eta salbuetsitako

Común el 75% o más del total de sus operaciones.

La renta total neta del período obtenida por el sujeto pasivo, en tanto no sea gravada por otro impuesto, constituye la base económica del Impuesto sobre Sociedades.

A tener en cuenta que no tienen la consideración de gasto fiscal las exenciones previstas relativas a distintas "entidades" públicas, por coincidencia de sujeto activo y pasivo (queda dentro del sector público) y las deducciones por doble imposición por su carácter técnico.

Sin embargo, si constituyen gasto fiscal la libertad de amortización, la reinversión de beneficios extraordinarios, los tipos de gravamen distintos del general, las bonificaciones y deducciones. También, los incentivos fiscales para empresas de reducida dimensión, la exención parcial de las rentas de Mutuas de Accidentes de Trabajo, la exención por reinversión y los asociados a determinados acontecimientos, las donaciones, conforme a la legislación sobre fundaciones, y otros supuestos de diferimiento.

El gasto fiscal estimado para el ejercicio 2006 asciende a 525.503 miles de euros. Esta cantidad significa el 27,3% de los ingresos teóricos en los tres Territorios Históricos.

Impuesto sobre el Valor Añadido

Se trata de un Impuesto está armonizado en el conjunto de la Unión Europea y la capacidad normativa de los Estados miembros se limita a determinados aspectos expresamente previstos por la regulación comunitaria. Esta circunstancia, junto a las características propias del Impuesto, ha significado que en su concertación entre el Estado y el País Vasco se atienda al reparto de la capacidad exaccionadora, dado que la capacidad normativa se limita a aspectos de gestión.

El hecho imponible del Impuesto lo constituyen las operaciones -entregas de bienes y prestaciones de servicios- realizadas en el ámbito espacial del mismo por empresarios o profesionales a título oneroso, con carácter habitual u ocasional, en el desarrollo de su actividad empresarial o profesional.

Constituyen, por tanto, gastos fiscales en el IVA los derivados de las operaciones gravadas a tipos impositivos reducidos distintos del general del 16%, que se considera elemento estructural del Impuesto, y también los derivados de las

eragiketek sortutako gastuak.

Horrenbestez, gastu fiskala izango dira % 7ko tasa murriztuaz zergapetutako eragiketak eta % 4ko tasa txit murriztuaz zergapetutakoak.

Bestalde, salbuetsitako eragiketen artean, ez dira gastu fiskaltzat jotzen arrazoi teknikoengatik edo zerga sinpleago egiteko ezarritakoak, zergaren xede-eremutik kanpokoak eta zergaren aplikazioko lurraldean kontsumitzekoak ez direnak. Ez dira gastu fiskaltzat jotzen, halaber, zerga behar bezala funtzionatzeko aurreikusitako salbuespenak edo zergapetze bikoitza ekiditekoak, baldin eta eragiketa horiek beste zerga batzuek zergapetzen badituzte. Azken kasu horien artean ditugu aseguru-jardueren ondoriozko eragiketak, errentamenduak, landa-lurren eskualdaketak, eraikinen bigarren edo ondorengo entregak, loteriak, apustuak eta adur-jokoak.

Hau da salbuetsita izanda, gastu fiskalaren eragiletzat jotzen diren eragiketak: posta-, hezkuntza- eta osasun-zerbitzu pribatuenak, gizarte-laguntzakoak, kirol-jardueretako eragiketak, kulturalak, finantzarioak, zerbitzu profesional jakin batzuk, erlijio-erakundeen ondasunekin eta zerbitzuekin lotutakoak, Europar Batasunaren barruan egindako eskuraketa batzuk eta inportazioak.

Salbuespenek eragindako gastu fiskala edo zergagatik bildutako zenbatekoaren murrizpena 1.027.013 mila eurokoa izan da zerga-salbuespenengatik, 331.047 mila eurokoa zerga-tasa txit murriztuagatik eta 1.578.154 mila eurokoa tasa murriztuagatik; beraz, gastu fiskala, guztira, 2.936.214 mila eurokoa izan da, edo, bestela esanda, diru-sarrera teorikoen % 41,5koa.

Gastu fiskal horiek zenbatesteko, zenbait hobekuntza egin dira aurreko ekitaldian erabilitako metodologiarekiko (salbuetsitako eragiketak zenbatetsi dira eta haztapenerako batez besteko tasa txikiagoa erabili da), eta hobekuntza horiek dira, hain zuzen, haren emaitza asko igo izanaren arrazoia.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga

Araudi autonomopeko zerga itundua da ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gainekoa, baina, hala ere, lurralde erkideko arauek arautuko dituzte sozietate-eragiketak, kanbio-letrak edo horien ordezko balioa edo igorpen-zeregina duten agiriak.

operaciones exentas.

Así, por tanto, las operaciones gravadas al tipo reducido del 7% y al tipo “superreducido” del 4% constituyen, por tanto, gasto fiscal.

Por otra parte, de las operaciones exoneradas, se considera que no son generadoras de gasto fiscal aquéllas cuya exclusión responde a razones técnicas o simplificadoras, así como por situarse fuera del objeto del Impuesto o no destinarse a consumo en el territorio de aplicación, además de las que favorecen el correcto funcionamiento del tributo o evitan la doble imposición, al tratarse de operaciones gravadas por otros tributos. Éste es el caso de las exenciones relacionadas con la actividad aseguradora, arrendamientos, transmisiones de terrenos rústicos, segundas o ulteriores entregas de edificaciones, loterías, apuestas y juegos de azar.

Las operaciones exentas consideradas constitutivas de gasto fiscal están relacionadas con los servicios postales, educativos y sanitarios privados, asistencia social, deportivos, culturales, financieros, determinados servicios profesionales, además de los bienes y servicios relativos a las entidades religiosas y algunas adquisiciones intracomunitarias e importaciones.

El gasto fiscal, menor recaudación, motivado por las exenciones asciende a 1.027.013 miles de euros, al tipo “superreducido” a 331.047 miles de euros y al tipo reducido a 1.578.154 miles de euros, para hacer un total de 2.936.214 miles de euros, lo cual representa el 41,5% de los ingresos teóricos.

Para la estimación de estos gastos fiscales, respecto al ejercicio anterior, se han introducido mejoras metodológicas que originan su fuerte incremento, particularmente la inclusión de la estimación de las operaciones exentas y la utilización de un tipo medio ponderado menor.

Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados

Este Impuesto es un tributo concertado de normativa autónoma, salvo en las operaciones societarias, letras de cambio y documentos que suplan a la misma o realicen función de giro, que deben regirse por la normativa común.

Zeharkako zerga da, eta kostu bidezko ondare-eskualdaketak, sozietate-eragiketak eta egintza juridiko dokumentatuak zergapetzen ditu.

Se trata de un tributo de naturaleza indirecta, que grava las transmisiones patrimoniales onerosas, las operaciones societarias y los actos jurídicos documentados.

Egitate zergagarri bera zergapetzen duten zerga bat baino gehiago izanda eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren zenbait elementuk egitate zergagarri berdinengan eragiten dutela ikusita, batzuen eta besteen arteko bateraezintasun-egoerak arautu dira. Horrenbestez, horrelakorik gertatuz gero, ez da zergarekiko edo zergaren modalitateren batekiko loturarik izango, eta, ondorioz, gastu fiskalak sortuko dituzte.

Dada la concurrencia sobre el mismo hecho imponible de diferentes impuestos e, incluso, de distintas figuras del Impuesto de Transmisiones y Actos Jurídicos Documentados, se delimitan las incompatibilidades entre los mismos, de forma que estos supuestos de incompatibilidad, que originan la no sujeción al Impuesto o alguna de sus modalidades, no dan lugar, por tanto, a la generación de gastos fiscales.

Zerga arautzeko foru-arauek kasu eta egoera ugari zerrendatzen ditu, onura fiskalen xedetzat. Onura horiek eragina izan dezakete, kasuari erreparatuta, kontzeptu batean, batzuetan edo guztietan. Zergaren foru-arauek araututako egoera edo kasuez gain, xedapen ugarik arautzen dituzten zerga-salbuespenak edo onura fiskalak.

En las Normas Forales del Impuesto se recogen una relación prolija de supuestos en los que son aplicables beneficios fiscales, pudiendo afectar, dependiendo de los casos, a uno, varios o incluso a todos los conceptos. Además de los contenidos en las propias Normas Forales del Impuesto, existe una gran variedad de disposiciones que recogen exenciones y beneficios fiscales.

Onura fiskalak hiru motatakoak izan daitezke: zerga-salbuespenak, zerga-tasa murriztuak eta hobariak.

Estos beneficios fiscales pueden clasificarse bajo tres conceptos: exenciones, tipos impositivos reducidos y bonificaciones.

Zerga honen gastu fiskalaren aurreikuspena 107.704 mila eurokoa da. Euskal Autonomia Erkidegoak 2006 ekitaldian eta atal horretan biltzea espero duen sarrera teorikoen % 20,2 da kopuru hori.

El gasto fiscal estimado para este Impuesto alcanza los 107.704 miles de euros. Cantidad que supone un 20,2% respecto a los ingresos teóricos previstos en este apartado para el año 2006 en la Comunidad Autónoma.

Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia

Zerga hau Balio Erantsiaren gaineko Zergaren harmonizazio-prozesuaren baitan sortu zen. Hala, onartu ondoren, zergak ezabatu egin zituen zenbait ibilgailu eta garraiobideri aplikatutako zerga-tasa gehituak.

Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte

La aparición de este Impuesto deriva de la armonización del IVA, que significó la supresión de los tipos impositivos incrementados aplicados a determinados vehículos y medios de transporte.

Garraiobideen matrikulazioarekin batera egiten da zergaren autolikidazioa, haiek bertan eginak, inportatuak, berriak edo erabiliak diren aintzat hartu gabe. Zerga horren zerga-oinarria kalkulatzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren balorazio-teknikak erabiltzen dira.

Su autoliquidación se realiza con la primera matriculación de los medios de transporte, sean fabricados o importados, nuevos o usados, y la determinación de su base imponible está ligada a las técnicas de valoración del IVA y del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales.

Ekonomia Itunak zerga bereziak ituntzeko erabiltzen duen ituntze-prozedura bera erabiltzen da zerga honetan, baina zenbait berezitasun aplikatuta.

Su concertación es común a la establecida en el Concierto Económico de forma genérica para los Impuestos Especiales, con algunas especificidades.

Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezian, gastu fiskaltzat jotzen dira ibilgailu-mota hauei

En el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte se consideran gasto fiscal

aplikatutako zerga-salbuespenak: taxiei, autotaxiei edo autoturismoei, hezkuntzarako eta alokairurako turismoei eta ezintasunak dituzten pertsonen izenean eta soilik haien erabilerarakoak diren turismoei, besteak beste. Horrez gain, araudiak zerga-oinarriaren % 50eko murrizpena arautzen du, 5 eserlekutik 9 eserlekurako automobilentzat (gidariarena barne), soilik familia ugariek erabiltzekoak badira, eta, halaber, zerga-kuotaren kenkari bat ezartzen du, automobilen parkea berritzeko.

Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezian aurreikusitako gastu fiskala 19.308 mila eurokoa da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoak 2006 ekitaldian atal horretan teorian eskuratzekoak dituen diru-sarreren % 22,0.

Fabrikazioko Zerga Bereziak

Europar Batasunak zerga-mugak kendu ondoren, Batasuneko Estatu kideek bere egin behar izan dute zeharkako zergei eta, batik bat, zerga bereziei buruzko araudiak, eta, halaber, haiek harmonizatzeko prozesu bati ekin behar izan diote.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araupen-ereduari jarraituz, Ekonomia Itunak dio zerga bereziak itundutako zergak izango direla, eta Estatuak unean-unean ezarritako funtsezko eta formazko arauek arautuko dituztela; aitorpen-ereduak eta sarrera-epeak finkatzeko arauen kasuan izan ezik.

Zerga hauek sartzen dira Fabrikazioko Zerga Berezien ituntze-eremuan: Alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zerga (Tarteko Ekoizkinen gainekoa, ardoaren eta hartzitutako edarien gainekoa, Garagardoaren gainekoa eta Alkoholaren eta Alkoholetik Eratorritako Edarien gainekoa); Hidrokarburoen gaineko Zerga; Tabako Moten Fabrikazioaren gaineko Zerga; eta Elektrizitatearen gaineko Zerga.

Fabrikazioko Zerga Bereziek kontsumo espezifikoei erreparatzen diete, eta fase bakarrean zergapetzen dituzte zenbait ondasunen fabrikazioa, inportazioa eta, kasua bada, haiek lurraldearen barne esparrurako sarrera. Horiek horrela, gastu fiskaltzat jotzen dira zergapetu gabeko transakzio salbuetsiak eta zerga-tasa murriztua jasaten dutenak.

Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko zergako gastu fiskaltzat jotzen dira osasun-arretarako zentroetara alkohola hornitzegatiko zerga-salbuespenak, botikak egiteko hornidurak eta bidaiarien erregimenean edari eratorriak

las exenciones para vehículos automóviles considerados taxis, autotaxis o autoturismos, los destinados a actividades de enseñanza y alquiler, los matriculados a nombre de minusválidos para su uso exclusivo entre otras. Además, también, en la normativa se establece una reducción del 50% la base imponible respecto de los automóviles con una capacidad no inferior a 5 plazas y no superior a 9, incluida la del conductor, que se destinen al uso exclusivo de familias numerosas, así como una deducción en la cuota tributaria para la renovación del parque automovilístico.

El gasto fiscal estimado para el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte supone 19.308 miles de euros, que significa un 22,0% respecto a los ingresos teóricos en este apartado para el 2006 en la Comunidad Autónoma.

Impuestos Especiales de Fabricación

La adaptación de la imposición indirecta, y en particular de la imposición por Impuestos Especiales, a la nueva realidad sin fronteras fiscales de la Unión Europea ha supuesto un proceso de armonización y adopción por todos los Estados miembros de la normativa comunitaria.

Así, del mismo modo que en el IVA, en el Concierto Económico se establece que los Impuestos Especiales se regirán por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado, a excepción de los modelos y plazos de ingreso.

El ámbito de la concertación de los Impuestos Especiales de Fabricación abarca los siguientes impuestos: Alcohol y bebidas alcohólicas (Impuesto sobre la Cerveza, Impuesto sobre el Vino y Bebidas Fermentadas, Impuesto sobre Productos Intermedios, Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas), Impuesto sobre Hidrocarburos, Impuesto sobre las Labores del Tabaco e Impuesto sobre la Electricidad.

Los Impuestos Especiales de Fabricación recaen sobre consumos específicos, gravando en fase única la fabricación, importación y, en su caso, introducción en el ámbito territorial interno de determinados bienes, considerándose gasto fiscal las transacciones exentas no sometidas a tributación y las sometidas a tipos impositivos reducidos.

Por tanto, en el Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas se considera gasto fiscal las exenciones por suministro de alcohol a centros de atención médica y para la fabricación de medicamentos y por importación e introducción de

inportatzea eta lurraldera ekartzea. Horrez gain, gastu fiskaltzat hartzen dira artisautzako destilazio-langintzetatik sortutako edariei aplikatzen zaizkien zerga-tasa murriztuak.

Hidrokarburoen gaineko Zergari dagokionez, gastu fiskaltzat jotzen dira honako jarduera hauek: airetiko eta itsasoko nabigaziorako karburante-hornidurak, aisialdirako nabigazio pribatuak ez badira; hidrokarburoak erabiltzea elektrizitatea sortzeko, tren-garraiorako, nabigatzeko ubideen eta portuen dragatze-jarduerak egiteko, eta labe garaietan injektatzeko; biokarburanteak erabiltzea; gasolioari zerga-tasa murriztuak aplikatzea, baldin eta nekazaritza-jardueretarako karburantetzat erabiltzen bada, motor finkoetan erabiltzen bada, meatzeetako makinetan erabiltzen bada, eta eraikuntzako, ingeniaritza zibileko eta obra eta zerbitzu publikoetako makinetako motorretan erabiltzen bada.

Tabako Moten Fabrikazioaren gaineko Zergan, gastu fiskalak dira tabako-motak inportatzea edo lurraldean sartzea bidaiarien erregimenean; hala ere, ez da horren zenbatespena egiten, munta txikikoak baitira.

Elektrizitatearen gaineko Zergan, gastu fiskaltzat jotzen dira erregimen bereziko instalazioetan elektrizitate-energia sortzeko jarduerak; betiere, instalazio horietako titularrek kontsumituko badute sortutako elektrizitate hori.

Fabrikazioko Zerga Bereziei dagokien gastu fiskalaren zenbatespena 191.220 mila eurokoa da, eta, horietatik, Hidrokarburoen gaineko Zergaren gastu fiskalari dagozkio 176.438 mila euro. Hala, horiek guztiak aintzat hartuta, zerga horiengatik 2006 ekitaldian biltzea espero diren sarrera teorikoen % 12,5 osatuko luke gastu fiskalak.

Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga

Zeharkako zerga da, eta zenbait hidrokarburoren kontsumoa zergapetzen du, fase bakarrean, produktuen txikizkako salmenta egitean. Ekonomia Itunak dio itundutako zerga dela, eta Estatuak unean-unean ezarritako funtsezko eta formazko arauek arautuko dutela. Aurrekoa bete beharrekoa izango bada ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek horien zerga-tasak ezar ditzakete, lurralde erkidean unean-unean indarrean dauden arauek ezarritako mugen barruan.

Honako txikizkako salmenta hauei aplikatutako zerga-salbuespenek sortzen dute gastu fiskala: airetiko eta itsasoko nabigaziorako karburante-

bebidas derivadas en régimen de viajeros, además de la aplicación de tipos reducidos a las bebidas elaboradas por destiladores artesanos.

En el caso del Impuesto sobre Hidrocarburos constituyen gasto fiscal el avituallamiento de carburante para la navegación aérea y marítima distinta de la privada de recreo, la utilización para la producción de electricidad, para el transporte por ferrocarril, para operaciones de dragado de vías navegables y puertos, para inyección en altos hornos y utilización de biocarburantes, así como la aplicación de tipos impositivos reducidos al gasóleo utilizado como carburante en la agricultura, los motores fijos, la maquinaria minera y los motores de las máquinas utilizadas en la construcción, la ingeniería civil, las obras y los servicios públicos.

En el Impuesto sobre las Labores del Tabaco constituye gasto fiscal la importación o introducción de labores de tabaco en régimen de viajeros, si bien no se estima por su escasa significación.

En el Impuesto sobre la Electricidad se considera gasto fiscal la fabricación de energía eléctrica en instalaciones acogidas al régimen especial que se destine al consumo de los titulares de dichas instalaciones.

El gasto fiscal estimado para los Impuestos Especiales de Fabricación supone 191.220 miles de euros, de los cuales 176.438 miles de euros corresponden al Impuesto sobre Hidrocarburos. En su conjunto este gasto fiscalsupone un 12,5% respecto a los ingresos teóricos previstos para el ejercicio 2006.

Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos

Es un tributo de naturaleza indirecta que recae sobre el consumo de determinados hidrocarburos, gravando, en fase única, las ventas minoristas de los productos. En el Concierto Económico se determina que este Impuesto es un tributo concertado que se rige por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado. No obstante lo anterior, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán establecer los tipos de gravamen del Impuesto dentro de los límites vigentes en cada momento en territorio común.

Los conceptos que generan gasto fiscal vienen determinados por las exenciones sobre las ventas minoristas siguientes: avituallamiento de

hornidurak, aisialdirako nabigazio pribatuak ez badira; erabilitako olioak erregaitzat erabiltzea; elektrizitate-sorrerako jarduerak; aireontziak eta itsasontziak egiteko, aldatzeko, horien probak eta mantentze-lanak egiteko erabilerak; nabigatzeko ubideen eta portuen dragatze-jarduerak egiteko erabilerak, eta labe garaietan injektatzeko erabilerak.

Gastu fiskalaren aurreikuspena, 2006 ekitaldirako, 4.027 mila eurokoa da; hau da, hiru lurraldeetan teorian izango diren diru-sarreren % 7,3.

Aseguru-sarien gaineko Zerga

Zerga berezi eta, ondorioz, zeharkako hau 1997an sortu zen, eta fase bakarrean zergapetzen ditu aseguru- eta kapitalizazio-eragiketak. Ordaindutako primaren edo kuotaren zenbatekoa da zergaren zerga-oinarria, eta haren zerga-tasa % 6koa da.

Ekonomia Itunak dio Estatuak unean-unean ezarritako funtsezko eta formazko arauek arautuko dutela zerga hori; horrenbestez, euskal erakundeen araugintzako eskumenek kudeaketa-alderdiak baino ezingo dituzte arautu.

Aseguru-sarien gaineko Zergaren gastu fiskaltzat jotzen dira kauzio-aseguruei, osasun-laguntzakoei, gaixotasunekoei eta nekazaritzako aseguru konbinatuei dagozkien zerga-salbuespenak.

Gastu fiskala, 2006 ekitaldian, 14.367 mila eurokoa izango dela aurreikusten da. Hiru lurraldeek teorian bilduko duten zenbatekoaren % 16,0 da kopuru hori.

3.e. Zergen ikuskapena

Foru-aldundiek 2001-2006 aldian zergak ikuskatzeko egindako jardueren emaitzak adierazten ditu IV.62 koadroak, Euskal Autonomia Erkidego osoko datuak bilduz. Egindako akten zenbatekoa kontzeptuka eta zerga-figurak zehaztuta adierazten da. II.4 eranskinean zehazten dira lurralde historikoei dagozkien zenbatekoak.

carburante para la navegación aérea y marítima distinta de la privada de recreo, los aceites usados destinados a ser utilizados como combustible, para la producción de electricidad, para la construcción, modificación, pruebas y mantenimiento de aeronaves y embarcaciones, así como para operaciones de dragado de vías navegables y puertos y para su inyección en altos hornos.

El gasto fiscal estimado para el 2006 asciende a 4.027 miles de euros, que supone el 7,3% de los ingresos teóricos en los tres Territorios Históricos.

Impuesto sobre las Primas de Seguros

Este tributo, creado en 1997, es un impuesto especial, por tanto, de naturaleza indirecta. Grava, en fase única, las operaciones de seguro y capitalización. La base imponible está constituida por el importe de la prima o cuota satisfecha, y el tipo impositivo es del 6%.

En el Concierto Económico se establece que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado, limitándose, por tanto, la capacidad normativa vasca a aspectos relativos a la gestión.

En este Impuesto se consideran gasto fiscal las exenciones correspondientes a las operaciones de seguros de caución, asistencia sanitaria, enfermedad y agrarios combinados.

El gasto fiscal estimado para el 2006 asciende a 14.367 miles de euros. Esa cantidad es el 16,0% de los ingresos teóricos de los tres Territorios Históricos.

3.e. La inspección de los tributos

En el Cuadro IV.62 aparece, para el conjunto de la Comunidad Autónoma, la actividad de inspección de tributos de las Diputaciones Forales en el período 2001-2006. El importe de las actas levantadas se detalla por conceptos y figuras tributarias. En el Anexo II.4 se presenta el detalle por Territorios Históricos.

GAUZATUTAKO AKTEN ZERGA ZORRA / DEUDA TRIBUTARIA DE ACTAS FORMALIZADAS
EUSKAL AE 2001-2006 CA EUSKADI

000€

Kontzeptuak / Conceptos	**2006**	%06/05	**2005**	%05/04	**2004**	%04/03	**2003**	%03/02	**2002**	%02/01	**2001**
Pertsona Fisikoen Errent. g/ Z. Impuesto s/ la Renta de las P. F.	36.526	-18,2	44.661	147,9	18.018	-24,7	23.941	-12,5	27.358	-17,5	33.167
Sozietateen gaineko Zerga Impuesto sobre Sociedades	73.026	38,9	52.591	13,6	46.308	21,1	38.225	46,7	26.056	-31,8	38.195
Gainerako zuzeneko zergak Resto de impuestos directos	1.418	-1,2	1.436	1,1	1.420	-33,9	2.149	-1,8	2.188	43,6	1.524
Zuzeneko zergak guztira Total impuestos directos	110.970	12,4	98.687	50,1	65.746	2,2	64.315	15,7	55.601	-23,7	72.886
Balio Erantsiaren gaineko Z. I. sobre el Valor Añadido	45.612	-21,9	58.381	33,4	43.766	-11,5	49.468	67,0	29.616	9,1	27.148
Ondare Esk. eta EJDen g/ Z. I. s/Trans. Patrimoniales y AJD	1.275	45,5	876	128,1	384	-19,6	478	39,1	344	126,3	152
Gainerako zeharkako zergak Resto de impuestos indirectos	1.264	203,5	417	-66,5	1.242	-5,0	1.308	-69,8	4.326	-61,6	11.258
Zeharkako z. guztira Total impuestos indirectos	48.152	-19,3	59.674	31,5	45.392	-11,4	51.253	49,5	34.286	-11,1	38.557
ZERGAK GUZTIRA TOTAL IMPUESTOS	159.122	0,5	158.361	42,5	111.138	-3,8	115.569	28,6	89.888	-19,3	111.444

Lurralde Historikoei dagozkien datuak II.4 eranskineko A1, B1, G1 koadroetan
Información correpondiente a los Territorios Históricos en los cuadros A1, B1, G1 del anexo II.4

KOADROA / CUADRO IV.62

2006an zerga-zorraren ondorioz likidatutako akten kopuru osoa 159.122 mila eurora iritsi zen. Zenbateko hori ia osoki geure zerga sistemako hiru zerga handien artean banatu zen: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, kopuru osoaren % 23,0, BEZ % 28,7 eta Sozietateen gaineko Zerga % 45,9.

Zuzeneko zergek 110.970 mila euro pilatu zituzten eta zor osoaren % 70 izan ziren, zeharkako zergak aldiz, 48.152 mila euro izan ziren eta zor osoaren % 30 suposatu zuten.

Zuzeneko zergei zegokien zorrak jasandako igoerak (% 12,4) zeharkako zergen beherakada (% 19,3) konpentsatu zuen eta ondorioz, igoera guztira % 0,5ekoa izan zen.

Zerga motei dagokienez, aipatzekoak da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (% 18,2) eta BEZaren (% 21,9) zorren beherakada, aitzitik, Sozietateen gaineko Zergari zegokion zerga-zorra ia % 40 areagotu zen.

3.f. Agentzia exekutiboa

Agentzia exekutiboak 2006 ekitaldian egindako jarraipenaren datu bateratuak adierazten ditu IV.63 koadroak. Kontzeptuka eta zerga bakoitzeko zehaztuta adierazten dira datuak. II.4 eranskinean zehazten dira lurralde historikoei dagozkien

En 2006 el total de actas liquidadas por deuda tributaria ascendió a 159.122 miles de euros. Casi la totalidad de este importe se distribuyó entre los tres grandes impuestos de nuestro sistema tributario: el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, un 23,0% del total, el IVA un 28,7% y el Impuesto sobre Sociedades un 45,9%.

Bestalde, 1995ko ekitaldia ixtean, zuzeneko zergek indarra irabazi zuten, izan ere, PFEZaren jokaerak, atxikipen taulek deflaktazioa jasan zuten arren, erraz gainditu zuen BEZaren bilakaera tasa guztien puntu bateko igoeraren laguntzarekin, baina orokorrean, itzulitako zenbatekoen eta zehazki, erkidegoaren barruko BEZari dagokionez, berehala itzulitako zenbatekoen gorakada handia jasanez.

No obstante, al cierre de 1995 recobró fuerza la imposición directa, dado que el comportamiento del IRPF, a pesar de la deflactación de las tablas de retenciones, superó con creces al del IVA. Éste, con la ayuda de la subida de un punto en todos los tipos, pero soportando el fuerte incremento de las devoluciones en general y de la devolución inmediata del IVA intracomunitario en particular.

1996an zeharkako zergen garrantzia pixka bat areagotu zen BEZaren bilakaeraren ondorioz, izan ere, PFEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren igoerak gainditu zituen, eta aipatzekoa da PFEZaren igoera baxuagoa izan zela, baina Sozietateen gaineko Zerga ohi baino gehiago hazi zela.

En 1996 se incrementó ligeramente el peso de la imposición indirecta, debido a la evolución del IVA que sobrepasó los aumentos del IRPF, más moderado, y del Impuesto sobre Sociedades, con un crecimiento atípicamente elevado.

Azkenik, 1997tik aurrera, zeharkako zergen garrantzia areagotu egin zen besteak beste, Fabrikazioko Zerga Bereziak erantsi zirenean. Zerga kontzertatu berriak eta BEZ Egokitzapenaren ondoriozko aurreko ekitaldietako likidazioak alde batera utzita, zeharkako zergen garrantzia areagotu egin zen BEZaren bilketaren

Finalmente, a partir de 1997 se elevó el peso de la imposición indirecta con la inclusión de los Impuestos Especiales de Fabricación entre los tributos concertados. Prescindiendo de los nuevos impuestos concertados y de las liquidaciones de ejercicios anteriores por el Ajuste IVA, subió el peso de la imposición indirecta dado el ascenso

igoeraren ondorioz eta PFEZaren bilketa geldi geratu zelako, eta 1999tik aurreko erreforma batzuk egin ziren.

de la recaudación del IVA y el estancamiento de la recaudación del IRPF, con sucesivas reformas a partir de 1999.

i. Zerga bakoitzaren garrantzi erlatiboa

Aurreko atalean zuzeneko zergen eta zeharkakoen bilakaeraren arteko konparazioa egin da, eta ondoren, zergen bilketaren egitura, zerga nagusien garrantzi erlatiboa eta urteetan zehar izan zuten bilakaera analizatuko ditugu.

Zerga nagusien garrantzi erlatiboari eta urteetan zehar izan duten bilakaerari buruzko datuak ondorengo taulan islatu dira.

i. Peso relativo de cada impuesto

En el apartado anterior se ha comparado la evolución de la imposición directa e imposición indirecta, a continuación se analiza la estructura de la recaudación fiscal, la importancia relativa de los principales impuestos y su evolución a lo largo de los años.

Los datos sobre la importancia relativa de los principales impuestos y su evolución a lo largo de los años se reflejan en el siguiente cuadro.

	PFEZ IRPF	**SZ** IS	**BEZ** IVA	**BEZ.ari doitzea** Aj. IVA	**ZB** II. EE.	**Gainerakoa** Resto
1982	47,2	9,2	26,9			16,7
1983	46,6	12,5	24,2			16,7
1984	45,7	10,6	27,7			16,0
1985	46,5	9,8	27,4			16,3
1986	38,8	10,3	18,7	14,9		17,3
1987	45,0	10,8	17,9	17,9		8,4
1988	44,2	11,0	18,7	17,6		8,5
1989	43,4	13,1	17,3	18,3		7,9
1990	42,3	13,3	18,8	17,4		8,2
1991	44,5	12,4	18,9	16,5		7,7
1992	41,4	11,8	20,9	18,4		7,5
1993	44,3	10,3	26,2	11,5		7,7
1994	44,8	8,2	26,8	12,1		8,7
1995	46,5	7,9	26,3	11,6		7,7
1996	44,9	9,5	26,9	11,7		7,0
1997	37,5	9,4	22,2	11,4	12,3	7,2
1998	35,3	11,0	22,2	10,5	12,9	8,1
1999	33,6	11,3	22,8	11,3	12,6	8,4
2000	31,6	11,3	21,8	12,9	13,0	9,4
2001	33,2	11,7	22,7	12,0	12,2	8,2
2002	33,1	12,0	21,8	12,2	12,5	8,4
2003	32,8	11,3	22,7	12,6	12,2	8,4
2004	30,8	11,5	24,3	12,5	12,4	8,5
2005	30,2	12,8	28,4	10,8	12,5	5,3
2006	29,9	13,5	27,6	9,6	11,2	8,1

KOADROA / CUADRO IV.89

Datuak behar bezala irakurtzeko, kontuan hartu behar da 1993tik aurrera bilketen inguruko datuen homogeneotasuna hautsi zela eta erkidegoaren barruan bereganatutakoak azaltzean bilketa BEZ-Egokitzapenetik kudeaketa propioko BEZra igaro zela. Horrez gain, 1986ko emaitzak (zerga urte horretan ezarri zen) ohiz kanpokoak izan ziren ez zelako kontuan hartu bilketa ekitaldi oso bat.

Para una correcta lectura de los datos debe tenerse en cuenta que a partir de 1993 se rompe la homogeneidad de los datos recaudatorios, la aparición de las adquisiciones intracomunitarias trasvasó recaudación desde el Ajuste-IVA al IVA gestión propia. Además, los resultados de 1986, año en que se implanta el Impuesto, fueron atípicos al no contabilizar un ejercicio completo de recaudación.

1997an berriro hautsi zen homogeneotasuna Foru Aldundia zerga kontzertatu berriak biltzen hasi zenean, zerga horiek Fabrikazioko Zerga Bereziak ziren eta urte hauetan zehar beren garrantzi espezifikoa mantendu dute bilketa osoari dagokionez.

De nuevo en 1997 se rompe la homogeneidad al comenzar las Diputaciones Forales a recaudar nuevos tributos concertados, los Impuestos Especiales de Fabricación, que han mantenido su peso específico respecto al total de la recaudación a lo largo de estos años.

PFEZak hasieran ehuneko altua pilatzen zuen eta 1995ean bere gehienezko mugara iritsi zen bilketan garrantzi handia daukaten beste zerga biren bilakaera baxuaren laguntzarekin: BEZa eta Sozietateen gaineko Zerga.

Después de unos años iniciales con fuerte peso porcentual, el IRPF alcanzó su techo en 1995, favorecido por la moderada evolución de los otros dos impuestos de fuerte incidencia recaudatoria, el IVA y el Impuesto sobre Sociedades.

Sozietateen gaineko Zergak, 2006ra arte, 1990ean erregistratu zuen ehunekorik altuena. Urte hartan bere osagai biek bilketa oso onak lortu zituzten. Azken ekitaldietan zerga horren bidez eskuratutako bilketak gorakada handia izan zuen.

En el Impuesto sobre Sociedades hasta el año 2006 el porcentaje más elevado se registró en 1990, año en el que sus dos componentes obtuvieron una recaudación muy satisfactoria. En los últimos ejercicios la recaudación derivada de esta figura experimenta un fuerte repunte, hasta el punto de que en el año 2006 .

Sozietateen gaineko zergapen garrantzi erlatiboa hazten joan zen 1990ra arte, eta urte hartan % 13,3ra iritsi zen.

El Impuesto sobre Sociedades experimentó un crecimiento de su peso relativo hasta el año, 1990, que alcanzó un 13,3%.

Urte horretatik aurrera, beheranzko joera izan zuen eta azkenean, % 7,9ko gutxienekora iritsi zen, gero berriro hasi zen igotzen 2006an aztertzen ari garen aldian erregistratutako ehunekorik altuenera iritsi zen arte: % 13,5, hain zuzen.

A partir de dicho año, inció una etapa descendente hasta alcanzar un mínimo de 7,9%, para posteriormente subir con fuerza hasta el punto de registrar en el 2006 el máximo porcentaje registrado en el período considerado: un 13,5%.

BEZaren bidez bildutako zenbatekoa oso antzekoa izan zen bilketa kontzeptu bietan, kudeaketa propioa eta egokitzapenean, alegia.

La recaudación por IVA se mantiene muy similar en los dos conceptos recaudatorios; gestión propia y ajuste.

Gainontzeko zergei dagokienez, ehunekoan beheranzko joera nabari da, nagusiki, araudi aldaketen ondorioz, izan ere, Oinordetza eta Dohaintzeko gaineko Zergan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan gutxiago ordaintzea esan nahi baitzuten, eta Jokoaren alorreko arau bidezko kontrol handiagoaren ondorioz.

Con respecto al resto de tributos, se aprecia una tendencia descendente en cuanto a su peso porcentual, consecuencia fundamentalmente de los cambios normativos que significan una menor tributación en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones y en el Impuesto sobre Actos Jurídicos Documentados, así como del mayor control normativo en el Juego.

Hala ere, Aseguru-Sarien gaineko Zerga, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Elektrizitatearen gaineko Zerga eta Hidrokarburo Jakin batzuen Txikizkako Salmenten gaineko Zerga agertzeak eta aurretik ere existitzen ziren zergetariko batzuen bidez lortutako emaitza onek azken urteetan gorakada txiki bat egotea eragin dute.

No obstante la aparición del Impuesto sobre las Primas de Seguros, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, el Impuesto sobre la Electricidad o el Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, así como los buenos resultados obtenidos por algunos de los tributos ya existentes, ha provocado en los últimos años un ligero repunte.

ZERGA NAGUSIEN PISU ERRELATIBOA

PESO RELATIVO DE LOS PRINCIPALES IMPUESTOS

GRAFIKOA / GRÁFICO IV.36

4.a.2. Jasotako transferentziak

Sarreren aurrekontuko IV. eta VII kapituluetan jasotzen dira transferentziengatiko diru-sarrerak. Kapitulu horiek 2001-2006 aldian izan duten bilakaera adierazten du IV.90 koadroak, eta III.2. eranskinean ikus daiteke horiek lurraldez lurralde erakutsi dituzten datuak. Foru-aldundiek kontabilizatutako transferentzia-agregatuak adierazten dira, horien jatorriari erreparatuta.

Transferentzia arrunten berri ematen du IV. kapituluak, eta bertan ikus daiteke Euskal Autonomia Erkidegoak egindako transferentziek gero eta munta handiagoa dutela, baliabide-bolumen handieneko kontzeptua bilakatu baitira 1998 zerga-ekitalditik aurrera. Zerga-ekitaldi horren aurretik, Estatuko transferentziak izan ziren pisu erlatibo handieneko kontzeptuak, haien bilakaerak erabaki baitzuen, kupoari aurreko urteetan egindako doiketen eta erregularizazioen harira, kapituluaren beraren bilakaera.

4.a.2. Transferencias recibidas

Los ingresos reconocidos por transferencias se incluyen en los Capítulos IV y VII del Presupuesto de Ingresos. La evolución que han experimentado estos capítulos a lo largo del período 2001-2006 aparece en el Cuadro IV.90 y el detalle por Territorios Históricos en el Anexo III.2. Se presentan las transferencias agregadas contabilizadas por cada una de las Diputaciones Forales, en función de la procedencia de las mismas.

En el Capítulo IV, transferencias corrientes, las procedentes de la Comunidad Autónoma cobran cada año mayor importancia, pasando a ocupar a partir de 1998 el concepto de mayor volumen de recursos. Anteriormente, el concepto con mayor peso relativo fueron las transferencias del Estado, cuya evolución, consecuencia de los ajustes y regularizaciones del cupo de años anteriores, marcó el desarrollo del conjunto del capítulo.

FORU ALDUNDIEK JASOTAKO TRANSFERENTZIAK
TRANSFERENCIAS RECIBIDAS POR LAS DIPUTACIONES FORALES

000€

	2006	2005	2004	2003	2002	2001
Estatuko Adm. / Admón. del Estado	31.640	32.972	28.394	29.403	61.346	16.725
EAEko Adm. Nag. / A. Gral. de la CAPV	249.913	209.769	111.448	136.738	97.619	82.484
EBkoa / Unión Europea	9.229	22.958	15.219	21.570	12.086	10.630
Lurralde-entitateak / Entes Territoriales	5.273	8.891	12.210	32.353	28.583	4.802
Bestelakoak / Otros	4.506	1.826	1.772	5.994	319	244
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	300.561	276.416	169.043	226.058	199.953	114.884
Estatuko Adm. / Admón. del Estado	2.330	300	1	1.564	2.017	2.633
EAEko Adm. Nag. / A. Gral. de la CAPV	76.429	74.223	89.948	69.299	39.371	52.723
EBkoa / Unión Europea	23.155	14.346	36.845	41.572	48.394	35.324
Lurralde-entitateak / Entes Territoriales	16.001	18.105	14.254	13.139	15.203	8.805
Bestelakoak / Otros	3.144	8.739	2.993	6.231	5.754	7.984
KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	121.059	115.713	144.041	131.805	110.740	107.467

Lurralde Historikoei dagozkien datuak III.2 eranskineko A2, B2, G2 koadroetan
Información correpondiente a los Territorios Históricos en los cuadros A2, B2, G2 del anexo III.2.

KOADROA / CUADRO IV.90

Euskal Autonomia Erkidegoak egindako transferentziak transferentzia guztien % 83,1 izan dira, 2006 zerga-ekitaldian. Haren atzetik daude Estatuak egindako transferentziak, % 10,5ko proportzioan.

En el año 2006, las transferencias corrientes procedentes de la Comunidad Autónoma han supuesto el 83,1%. Le siguen en importancia las transferencias del Estado con un 10,5%.

Kapitalaren transferentzien kasuan, VII. Kapituluan, Autonomia Erkidegokoak % 63,1era iritsi ziren, Europar Batasunekoak, aldiz, % 19,1 izan ziren.

En el caso de las transferencias de capital, Capítulo VII, las procedentes de la Comunidad Autónoma alcanzan un 63,1% seguidas de las transferencias procedentes de la Unión Europea que suponen un 19,1%.

4.a.3. Zorpetzea

Foru Aldundien zorpetze maila, hau da, 2006ko abenduaren 31ko zor bizia, zor publikoa eta eskatutako maileguak kontuan hartuz, 1.169.234 mila eurokoa izan zen.

2006an ez zen zor publiko berria jaulki eta mailegu berriak hartu ziren; horiek guztira 82.002 mila eurokoak izan ziren. Halaber, maileguen amortizazioak 92.434 mila eurora iritsi ziren. Ondorioz, datu horiek zorra 100.584 mila euro murriztea eragin zuen, hau da, 2005eko abenduaren 31n baino % 7,9 gutxiago.

Arabako Foru Aldundiari dagokionez, zorpetzea 5.301 mila euro jaitsi zen, % 7,9 gutxiago, maileguak 6.303 mila eurotan amortizatu zirelako eta mailegu berriak hartu zirelako; horiek guztira 1.002 mila eurokoak izan ziren. Abenduaren 31n

4.a.3. Endeudamiento

El nivel de endeudamiento para el conjunto de las Diputaciones Forales, es decir, deuda viva a 31 de diciembre de 2006, considerando tanto la deuda pública como los préstamos solicitados, ascendió a 1.169.234 miles de euros.

En 2006 no se emitió nueva deuda pública y se suscribieron nuevos préstamos por un importe 82.002 miles de euros. Así mismo, las amortizaciones de préstamos alcanzaron los 92.434 miles de euros. En consecuencia, estas variaciones significaron una reducción del endeudamiento por un importe de 100.584 miles de euros, un 7,9% menos que respecto al 31 de diciembre de 2005.

En cuanto a la Diputación Foral de Álava, el endeudamiento disminuyó en 5.301 miles de euros, un 7,9% menos, consecuencia de la amortización de préstamos por 6.303 miles de euros y de nuevos préstamos por un importe de

zorpetutako zenbatekoa 75.591 mila eurokoa izatera iritsi zen.

Bizkaiko Foru Aldundiaren zorra 508 mila euro jaitsi zen, % 0,1 gutxiago, hartutako mailegu berrien (81.000 mila euro) eta amortizazioen (81.508 mila euro) ondorioz. 2006ko abenduaren 31n zorpetutako zenbatekoa 823.700 mila eurokoa izatera iritsi zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, aldiz, ez zuen zor berrietara jo, 2006ko azaroan Betebeharren 2. Igorpena amortizatu zuen (90.151.820 euro), baita maileguak ere (4.623 mila euro). 2006ko ekitaldia bukatzean bere zorra 269.943 mila euro murriztu zuen, % 26,0 gutxiago, eta abenduaren 31n Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) 18.492.680 euroko mailegu batekin eta epe luzerako Kreditu Lineekin osatu zen; horiek guztira 251.450.000 eurokoak izan ziren.

1.002 miles de euros. El endeudamiento a 31 de diciembre alcanzó los 75.591 miles de euros.

La Diputación Foral de Bizkaia disminuyó su endeudamiento en 508 miles de euros, un 0,1% menos, consecuencia de nuevos préstamos por 81.000 miles de euros y amortizaciones por 81.508 miles de euros. El endeudamiento a 31 de diciembre del 2006 alcanzó los 823.700 miles de euros.

Por su parte, la Diputación Foral de Gipuzkoa no acudió a nuevo endeudamiento, amortizó en noviembre del 2006 la 2ª Emisión de Obligaciones por importe de 90.151.820 euros y préstamos por 4.623 miles de euros. Al finalizar el año 2006 el endeudamiento se reduce a 269.943 miles de euros, un 26,0% menos, y se integra por un préstamo del Banco Europeo de Inversiones (B.E.I.), con un saldo a 31 de diciembre de 18.492.680 euros y por Líneas de Crédito a L/P, con un saldo de 251.450.000 euros.

FORU-ALDUNDIEN ZORPETZEAK IZANDAKO BILAKAERA
EVOLUCIÓN DEL ENDEUDAMIENTO DE LAS DIPUTACIONES FORALES

000€

kontzeptuak	2006	2005	2004	2003	2002	conceptos
Hasierako egoera (urtar. 1)	1.269.817	1.211.005	1.227.550	1.227.753	1.039.393	**Situación inicial (1 ene.)**
ZOR PUBLIKOA	0	0	0	0	0	DEUDA PÚBLICA
Jaulkia	0	0	0	0	0	Emitida
Amortizatua	90.152	0	72.121	0	0	Amortizada
MAILEGUAK	0	0	0	0	0	PRÉSTAMOS
Jasoak	82.002	138.377	146.000	61.000	242.475	Recibidos
Amortizatuak	92.434	79.564	90.424	61.203	54.114	Amortizados
Ekitaldiko aldakuntza	-100.584	58.813	-16.545	-203	188.361	Variación en el ejercicio
Amaierako egoera (aben. 31)	**1.169.234**	**1.269.817**	**1.211.005**	**1.227.550**	**1.227.753**	**Situación final (31 dic.)**

Lurralde Historikoei dagozkien datuak III.2 eranskineko A3, B3, G3 koadroetan
Información correpondiente a los Territorios Históricos en los cuadros A3, B3, G3 del anexo III.2

KOADROA / CUADRO IV.91

4.b. Gastuak

Foru-aldundiek, guztira, 13.127 milioi euro gastatu zituzten 2006 ekitaldian; hau da, aurreko urtean baino % 12,9 gehiago. Araban, gastuak % 9,7 egin zuen gora, eta, guztira, 2.099 milioi euro baino gehiago gastatu ziren. Bizkaian eta Gipuzkoan igoerak % 13,1koak eta % 14,3koak izan ziren, eta gastuak, berriz, 6.793 eta 4.234 milioi eurokoak, hurrenez hurren. IV.92 koadroak adierazten du, kapituluka, zer-nolako bilakaera izan duen gastuak 2001-2006 aldian, eta III.2. eranskinak adierazten ditu lurralde historikoetako datuak.

4.b. Gastos

En el ejercicio 2006 los gastos del conjunto de las Diputaciones Forales alcanzaron los 13.127 millones de euros, incrementándose en un 12,9% respecto al ejercicio anterior. En Álava el gasto se incrementó en un 9,7% superando los 2.099 millones de euros, mientras en Bizkaia y Gipuzkoa el incremento fue del 13,1% y 14,3% y ascendieron a 6.793 y 4.234 millones de euros, respectivamente. La evolución del gasto en el período 2001-2006, desglosado por capítulos, se muestra en el Cuadro IV.92 y por Territorios Históricos en el Anexo III.2.

FORU ALDUNDIAK. OBLIGAZIOA LIKIDATUEN BILAKAERA KAPITULOKA
DIPUTACIONES FORALES. EVOLUCIÓN DE LAS OBLIGACIONES LIQUIDADAS POR CAPÍTULOS

ooo €

URTEA AÑO	KAP. 1 / CAP. 1 langileri gastuak remun. del personal	KAP. 2 / CAP. 2 gastu arruntak gastos corrientes	KAP. 3 / CAP. 3 finantza gastuak gastos financieros	KAP. 4 / CAP. 4 transfer. arruntak transfer. corrientes	KAP. 6 / CAP. 6 inbertsio errealak inversiones reales	KAP. 7/ CAP. 7 kapital transferen. transferen. capital	KAP. 8 / CAP. 8 finantza aktiboak activos financieros	KAP. 9 / CAP. 9 finantza pasiboak pasivos financieros	GUZTIRA TOTAL
2001	222.754	162.341	64.137	7.587.104	379.847	186.521	35.242	74.757	8.712.703
2002	236.222	190.367	58.621	7.936.634	532.076	189.645	58.707	54.114	9.256.383
2003	252.318	222.599	57.123	8.407.749	505.187	195.855	81.149	61.195	9.783.174
2004	263.644	236.614	53.411	9.044.013	478.733	180.411	84.994	162.470	10.504.288
2005	278.485	252.906	48.625	10.241.622	488.747	185.593	60.908	67.564	11.624.449
2006	291.884	312.559	51.710	11.387.376	532.763	238.252	130.931	181.172	13.126.647
% Δ 02/01	6,0	17,3	-8,6	4,6	40,1	1,7	66,6	-27,6	6,2
% Δ 03/02	6,8	16,9	-2,6	5,9	-5,1	3,3	38,2	13,1	5,7
% Δ 04/03	4,5	6,3	-6,5	7,6	-5,2	-7,9	4,7	165,5	7,4
% Δ 05/04	5,6	6,9	-9,0	13,2	2,1	2,9	-28,3	-58,4	10,7
% Δ 06/05	4,8	23,6	6,3	11,2	9,0	28,4	115,0	168,1	12,9

Lurralde Historikoei dagozkien datuak III.2 eranskineko A4, B4, G4 koadroetan
Información correpondiente a los Territorios Históricos en los cuadros A4, B4, G4 del anexo III.2

KOADROA / CUADRO IV.92

Gastu-aurrekontuko kapitulu nabarmenena transferentzia arruntena izan zen, foru-aldundiek egindako gastu osoaren % 86,8 bildu baitzuen. Kapitulu horrek foru-aldundien gastuko aurrekontu-sail handiena (Euskadiko Ogasun Orokorrari egindako ekarpenak, aurreko kapituluetan azaldutakoak) eta beste konpromiso instituzional batzuk jasotzen ditu.

El capítulo más destacado, en lo que se refiere a gasto, fue el de transferencias corrientes que supuso el 86,8% del gasto total de las Diputaciones Forales. En este capítulo se incluye la partida de gasto más importante de las Diputaciones Forales: las aportaciones a la Hacienda General del País Vasco, ya comentada en capítulos anteriores, además de otros compromisos institucionales.

5. AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK

Arabako Administrazio Juridikoko Erakundeak 2006ko ekitaldia ekonomia eta administrazioaren alorretako ebatzi beharreko 129 erreklamaziorekin hasi zuen. Urtean zehar 262 erreklamazio berri onartu zituen izapidetzeko, aurreko urtean baino % 28 gutxiago, 338 ebatzi zituen, 2006ko ekitaldia bezala eta abenduaren 31n 53 ziren ebazteke zeudenak.

Sarreren kopurua azken zortzi urteetako baxuena izan zen aitorpenak-likidazioak osatzeko laguntza informatikoko programak hobetzearen, Arabako Foru Aldundiak internet bidez informazio gehiago eskaintzearen eta erreklamazioak ebazteko gero eta denbora gutxiago behar izanaren (2006an 95 egunekoa izan zen, batez beste) ondorioz.

Urtean zehar ebatzitako erreklamazioen % 33,14 guztiz edo zati batean onartuak izan ziren, % 59,47 ez ziren onartu eta % 7,40k bestelako

5. LOS TRIBUNALES ECONÓMICO-ADMINISTRATIVOS

El Organismo Jurídico Administrativo de Álava inició el año 2006 con un stock de 129 reclamaciones económico-administrativas pendientes de resolución. Durante el año admitió a trámite 262 reclamaciones nuevas, un 28% menos que en el anterior, resolvió 338, igual que en el ejercicio 2006, y a 31 de diciembre quedaban pendientes de resolución 53.

El número de entradas ha sido el inferior de los últimos ocho años, lo que hay que atribuir a la mejora de los programas informáticos de ayuda en la confección de las declaraciones-liquidaciones, a la mayor información fiscal que la Diputación Foral de Álava ofrece por medio de internet, y a la progresiva disminución del tiempo de resolución de las reclamaciones, que en el año 2006 quedó fijado en una media de 95 días.

De las reclamaciones resueltas en el año un 33,14% fueran estimadas total o parcialmente, un 59,47% se desestimaron y un 7,40% obtuvieron

akatsak izan zituzten. Urtean ebatzitakoen % 5,62k gatazka Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrera eraman zuten eta Auzitegi horrek ekitaldi horretan Administrazioko Erakunde Juridikotik etorritako administrazioarekiko auzien % 13,95 guztiz edo zati batean onartu zituen.

Gatazkak alor desberdinen artean banatzen direla ikustean, zalantzarik gabe, PFEZk Sozietateen gaineko Zergak baino askoz erreklamazio gehiago eragiten dituela ikusten da; Zeharkakoen artean, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Zergenak BEZa eta Zerga Berezienak gainditzen ditu; eta Tokikoen artean, Ondasun Higiezinena Jarduera Ekonomikoena baino askoz gehiago eztabaidatzen da.

Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboari dagokionez, 2006ko ekitaldian 1.400 erreklamazio inguru aurkeztu ziren. Datu horrek Bizkaiko Lurralde Historikoan zergen alorreko auzien egonkortasuna baieztatzen du.

Erreklamazioak zergen artean duten banaketa ere berdin mantendu zen. Hortaz, PFEZren kudeaketa xedatutako ekintzen kontra aurkeztutako erreklamazioei dagokienez, aurreko urtean erreklamazioen % 40 jaso zituen eta hurrengo urtean kopuru hori % 38,5era iritsi zen. Ondare Eskualdaketen gaineko Zergari eta zeharkako beste zerga batzuei eragiten dieten erreklamazioak % 20,5 izatetik % 17,5 izatera igaro ziren. Foru Aldundiaren ekintzen kontrako erreklamazioak tokiko zergen alorrean 2005ean % 29,5 izatetik 2006an % 31,4 izatera igaro ziren.

2006an ebatzitako erreklamazio kopurua nabarmen areagotu zen aurrez ikusitakoarekin eta aurreko urteetako emaitzekin alderatuta eta ebatzitako erreklamazioak 1.700 baino gehiago izan ziren. Ondorioz, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren historian lehenengoz erreklamazioak 1.000 baino gutxiago izatera igaro ziren.

Lorpen hori eta urtebete baino gehiago zeuzkaten erreklamaziorik ez egotea 2005ean eta nagusiki 2006an Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboari 2006eko urrian ISO+9001/2000 ziurtagiria lortzea ahalbidetu dion Kalitate estandarrak betetzen dituen kudeaketa sistema bat ezartzearen ondoriozkoa izan zen.

Beste datu esanguratsu bat onartutako edo zati batean onartutako erreklamazioen ehunekoa da,

otro tipo de fallos. Mantuvieron la conflictividad ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco un 5,62% de las resueltas en el año, y este Tribunal, por su parte, sentenció durante el ejercicio en sentido estimatorio total o parcial en un 13,95% de los procedimientos contencioso-administrativos procedentes del Organismo Jurídico Administrativo.

El reparto de la conflictividad entre las distintas materias pone de manifiesto inexorablemente y a lo largo de los años que entre los Impuestos Directos el IRPF genera muchas más reclamaciones que el de Sociedades; entre los Indirectos el de Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados supera al de IVA y a los Impuestos Especiales; y entre los Locales es sin duda más discutido el de Bienes Inmuebles que el de Actividades Económicas.

Respecto al Tribunal Económico-Administrativo Foral de Bizkaia, la entrada de reclamaciones en 2006 se ha mantenido en una cifra cercana a las 1.400 reclamaciones. Este dato confirma la estabilidad de la litigiosidad tributaria en el Territorio Histórico de Bizkaia.

También se mantiene estable la distribución de las reclamaciones entre los diferentes tributos. Así,las reclamaciones interpuestas contra los actos dictados en la gestión del IRPF recibió el año pasado el 40% de las reclamaciones y este año alcanza el 38,5%. Las reclamaciones que afectan al ITP y otros impuestos indirectos pasa del 20,5% al 17,5%. Las reclamaciones contra los actos de la Diputación Foral en materia de tributos locales pasa del 29,5% en el año 2005 al 31,4% en el año 2006.

El número de reclamaciones resueltas en el año 2006 sí que se ha elevado apreciablemente sobre las previsiones y sobre los resultados de los años anteriores, superando las 1.700 reclamaciones resueltas. Esto ha supuesto que por primera vez en sus 25 años de historia del TEAF de Bizkaia se reduzca el número de reclamaciones por debajo de las 1.000.

Este logro, junto a la casi desaprición de las reclamaciones pendientes de plazo superior a un añoi, se deben en buena parte a la implantación a lo largo del 2005 y sobre todo durante el 2006 de un sistema de gestión conforme a los estándares de Calidad que ha permitido al TEAF de Bizkaia obtrener la certificación ISO+9001/2000 en octubre del 2006.

Otro dato significativo lo tenemos en la proporción de reclamaciones estimadas o estimadas

izan ere, % 35etik % 27ra jaitsi baitzen 2006an.

Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak 2006an izandako jarduerari dagokionez, guztira 739 erreklamazio aurkeztu ziren, gutxi gorabehera 2005ean bezala, izan ere, urte horretan 723 aurkeztu ziren eta ondorioz, kopuru hori % 2 igo zen.

Zuzeneko zergen kudeaketan xedatutako ekintzen kontra aurkeztutako erreklamazioak ia % 10 jaitsi ziren, aitzitik, gainontzeko zergen ingurukoak % 22 baino gehiago areagotu ziren. Tokiko zergak izan ziren gailendu zirenak; 2005ean 38 erreklamazio aurkeztu ziren eta 2006an 49, hau da, % 30eko igoera jasan zuten.

Ebatzitako erreklamazio kopuruari dagokionez, igoera ikaragarria izan zen; 2005ean 615 erreklamazio ebaztetik 2006an 819 ebaztera igaro zen.

Ebatzitako erreklamazioak % 30 baino gehiago igo izana eta jasotako erreklamazio kopurua % 2 soilik areagotzearen ondorioz, ebazteke geratu ziren erreklamazioak 600 inguru izan ziren 2005eko kopurua (689 erreklamazio ebazteke) baino 80 gutxiago izan zirelako.

parcialmente, que se ha reducido del 35% al 27% en el año 2006.

En cuanto a la actividad del Tribunal Económico-Administrativo Foral de Gipuzkoa en 2006 se interpusieron un total de 739 reclamaciones, cifra muy similar al número de reclamacione s interpuestas en el año 2005, que fue de 723, lo que supone un incremento del 2%.

El número de reclamaciones interpuestas contra los actos dictados en la gestión de los tributos directos experímeto una reducción de casi el 10%, mientras que las que afectan al resto de figuras tributarias se inceremento en más del 22%. Destacando los tributos locales, cuyo número de reclamaciones pasa de 38 en el año 2005 a 49 recla,aciones en el 2006; es decir, casi un 30% de incremento.

Respecto al número de reclamaciones resuletas el crecimiento ha sido espectacular. Se han pasado de 615 reclamaciones en el 2005 a 819 en el 2006.

Este incremento de más del 30% en el número de reclamaciones resueltas junto con un incremento de tan solo un 2% en el número de reclamaciones recibidas, ha hecho que el número de reclamaciones pendientes de resolución se acerque a 600, tras haber disminuido en 80 el saldo del año 2005 que ascendía a 689 reclamaciones pendientes de resolver.

EKONOMIA-ARDURALARITZAKO EPAITEGIAK: JASOTAKO ETA EBATZITAKO ERREKLAMAZIO KOPURUA
TRIBUNALES ECONÓMICO-ADMINISTRATIVOS: NÚMERO DE RECLAMACIONES RECIBIDAS Y RESUELTAS

	ARABA / ÁLAVA			**BIZKAIA**			**GIPUZKOA**			**GUZTIRA** / TOTAL		
zuzeneko zergak impuestos directos	92	35%	8%	705	51%	58%	410	55%	34%	1.207	51%	100%
zeharkako zergak impuestos indirectos	59	23%	14%	241	17%	58%	115	16%	28%	415	17%	100%
tasak eta best. sarrerak tasas y otros ingresos	80	31%	13%	371	27%	60%	165	22%	27%	616	26%	100%
udal zergak tributos locales	31	12%	22%	62	4%	44%	49	7%	35%	142	6%	100%
JASOTAKOEN TOTALA TOTAL RECIBIDAS	262	100%	11%	1.379	100%	58%	739	100%	31%	2.380	100%	100%
zuzeneko zergak impuestos directos	104	31%	7%	818	48%	58%	500	61%	35%	1.422	50%	100%
zeharkako zergak impuestos indirectos	75	22%	16%	309	18%	65%	94	11%	20%	478	17%	100%
tasak eta best. sarrerak tasas y otros ingresos	119	35%	15%	499	29%	62%	187	23%	23%	805	28%	100%
udal zergak tributos locales	40	12%	24%	86	5%	52%	38	5%	23%	164	6%	100%
EBATZITAKOEN TOTALA TOTAL RESUELTAS	338	100%	12%	1.712	100%	60%	819	100%	29%	2.869	100%	100%

KOADROA / CUADRO IV.92

Bestalde, Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiak 2006an 976 erreklamazio jaso zituen, hau da, aurreko urtearekin alderatuta % 9,5 gehiago izan ziren. Ebazpenen kopuru osoa, aldiz, % 38,4 jaitsi zen.

Trafikoko isunak Epaitegiaren lanaren zati handi bat hartu zuten, bai aurkeztutako erreklamazioei dagokienez, bai ebatzitakoei dagokienez. Jasotako erreklamazioen ia % 99 eta ebatzitakoen % 93 trafikoko isunen ingurukoak izan ziren.

2006an zehar ebatzitako erreklamazioen artean, onartutakoak % 28,8 izan ziren, 2005ean, aldiz, % 10,4 izan ziren.

Hartutako 599 erabakien artean, 459 aurreko ekitaldietan jarritako erreklamazioen ingurukoak izan ziren, gainontzekoak, aldiz, 2006an aurkeztutako erreklamazioen gainekoak izan ziren.

Azkenik, 2006aren bukaeran ebazteke zeuden erreklamazioak 1.200 ziren, eta gehienak urte hartan bertan aurkeztuak ziren.

Por otra parte, el Tribunal Económico-Administrativo de Euskadi recibió 976 reclamaciones en el 2006, que supuso un incremento del 9,5% respecto al año anterior. El total de resoluciones, por el contrario, descendió un 38,4%.

Las multas de tráfico ocuparon buena parte del trabajo del Tribunal, tanto en cuanto a las reclamaciones interpuestas como a las resueltas. Casi el 99% de las reclamaciones recibidas y el 93% de las resueltas corresponden a multas de tráfico.

De las reclamaciones resueltas durante el año 2006, el porcentaje de estimadas fue del 28,8%, mientras que durante el 2005 dicho porcentaje fue de un 10,4%.

De las 599 resoluciones adoptadas, 459 eran referidas a reclamaciones interpuestas en ejercicios anteriores, mientras que el resto se referían a reclamaciones presentadas en el 2006.

Finalmente, el número de reclamaciones pendientes de resolver a finales de 2006, era de 1200, la mayoría interpuestas en ese mismo año.

EUSKADIKO EKONOMIA-ARDURALARITZAKO EPAITEGIA. JASOTAKO ETA EBATZITAKO ERREKLAMAZIO KOPURUA
TRIBUNAL ECONÓMICO-ADMINISTRATIVO DE EUSKADI. NÚMERO DE RECLAMACIONES RECIBIDAS Y RESUELTAS

	2002	2003	2004	2005	2006	% Δ 2003	% Δ 2004	% Δ 2005	% Δ 2006
Lan publikoatik tasa (*) Tasa por obras públicas	1	2	0	0	0	100,0	-100,0		
Trafiko isunak Multas de tráfico	653	771	785	881	941	18,1	1,8	12,2	6,8
Beste erreklamazioak Otras	21	24	35	10	35	14,3	45,8	-71,4	250,0
JASOTAKOEN TOTALA TOTAL RECIBIDAS	675	797	820	891	976	18,1	2,9	8,7	9,5
Lan publikoatik tasa (*) Tasa por obras públicas	45	2	1	0	1	-95,6	-50,0	-100,0	
Trafiko isunak Multas de tráfico	975	1.286	1.084	900	565	31,9	-15,7	-17,0	-37,2
Beste erreklamazioak Otras	53	36	6	72	33	-32,1	-83,3	1.100,0	-54,2
EBATZITAKOEN TOTALA TOTAL RESUELTAS	1.073	1.324	1.091	972	599	23,4	-17,6	-10,9	-38,4

(*) Lan publikoak zuzendu eta ikuskatzeko teknikari lanengatik tasa / Tasa de dirección e inspección de obras públicas

KOADROA / CUADRO IV.94

V. Kapitulua
EAEko Toki Ogasunak

Capítulo V
Haciendas Locales en el País Vasco

1. SARRERA

Toki Ogasunen arloan, 2006an, urtero bezala, Ondasun Higiezinen Gaineko Zergarekin erlazionatutako balioak eguneratu dira, 1,02 koefizientea aplikatuta. Horrez gain, beste hainbat aldaketa egin dira, apirilaren 7ko 417/2006 Errege Dekretua onartzeari lotutakoak. Errege Dekretu horrek Higiezinen Katastroari buruzko Legearen testu bategina garatzen du (martxoaren 5eko 1/2004 Errege Dekretuaren bidez onartua).

417/2006 Errege Dekretua bi arrazoirengatik egin da. Batetik, Higiezinen Katastroari buruzko Legearen testu bateginaren artikuluetan agertzen diren erregelamendu-arauen erreferentziak betetzeko, eta, bestetik, Lege horretan jaso ziren eta garatu beharrekoak ziren gainerako arloak garatzeko.

1. INTRODUCCIÓN

Las modificaciones habidas en materia de Haciendas Locales correspondientes al año 2006, aparte de la consabida actualización de los valores en relación con el Impuesto sobre Bienes Inmuebles mediante la aplicación del coeficiente 1,02, se circunscriben principalmente a la aprobación del Real Decreto 417/2006, de 7 de abril, por el que se desarrolla el texto refundido de la Ley del Catastro Inmobiliario, aprobado por Real Decreto 1/2004, de 5 de marzo.

La redacción del Real Decreto responde a un doble motivo. Por un lado, trata tanto de cumplimentar las referencias a normas reglamentarias que aparecen en el articulado del texto refundido de la Ley del Catastro Inmobiliario, por otro desarrolla las demás materias de la citada ley que así lo requerían.

Edukiari dagokionez, bereziki erreparatu behar zaio komunikazio-prozeduren araudiari, bai eta katastroko titularraren eta Ondasun Higienezin gaineko Zergaren subjektu pasiboak bat etorri beharrari ere. Izan ere, bat etorri behar horrek honako betebeharra ezartzen die Zerga kudeatzen duten entitateei: erroldan ageri diren katastroko titularren datuekin bat ez etortzeagatik subjektu pasiboetan egin dituzten zuzenketei buruzko informazioa bidaltzeko betebeharra.

En cuanto al contenido merece una especial atención la regulación de los procedimientos de comunicación, así como, lo referente a la concordancia entre el titular catastral y el sujeto pasivo del Impuesto sobre Bienes Inmuebles que obliga a las entidades gestoras del Impuesto a remitir información sobre las rectificaciones del sujeto pasivo llevadas a cabo debido a su no concordancia con los datos sobre los titulares catastrales que figuren en el Padrón.

Halaber, berritzailea denez, azpimarratzekoa da xedapen gehigarrietan zazpigarrenak ezartzen duena: egileek hala eskatzen badute, katastroko ziurtagiri deskriptiboak eta grafikoak txertatuko dira, ondasun higiezinen jabetza-transmisioari dagozkion eskritura publikoetan.

Asimismo, y por su carácter innovador, debe señalarse que la disposición adicional séptima prevé la incorporación, a petición de los otorgantes, de las certificaciones catastrales descriptivas y gráficas en las escrituras públicas relativas a la transmisión de la propiedad de los bienes inmuebles.

Lurralde historikoetan gauzatutako legegintza-jarduerari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoan, ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak ere zerga-sisteman sartu dira. Horretarako, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko 42/1989 Foru Araua aldatu da, eta higiezin horien kokaleku diren lursailek izandako balio-gehitzeak Hiri-lurren Balio-gehitzearen gaineko Zergaren mende jarri dira.

En cuanto a la actividad legislativa llevada a cabo en los distintos Territorios Históricos, en el Territorio Histórico de Álava se incorporan los bienes inmuebles de características especiales al sistema tributario mediante la modificación del la Norma Foral 42/1989, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y la sujeción al Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana de los incrementos de valor que experimenten los terrenos en que se ubiquen dichos inmuebles.

Bizkaiko Lurralde Historikoan 9/2005 Foru Araua onartu da, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa. Araudi berri hori Toki Ogasunei buruzko Foru Araua egokitzeko egin da; hain zuzen, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrari egokitzeko (2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa). Halaber, Estatuko araudi berriak sortutako egoerari erantzuten dio, Bizkaiko toki-entitateei finantza-autonomia txikiagoa utzi baitie zorpetze-arloan araubide komuneko arloetan baino.

En el Territorio Histórico de Bizkaia, se aprueba la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales. Esta nueva regulación obedece a la adaptación de la Norma Foral de Haciendas Locales a la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria, y responde a la situación creada por la nueva normativa estatal en materia de endeudamiento que ha dejado a las Entidades Locales de Bizkaia con un nivel de autonomía financiera menor que las de régimen común.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan, hainbat zerga-neurri onartzen dituen abenduaren 1eko 8/2006 Foru Arauaren bidez, Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren Foru Araua eta Toki Ogasunen Foru Araua aldatu dira.

En el Territorio Histórico de Gipuzkoa la Norma Foral 8/2006, de 1 de diciembre, por el que se aprueban determinadas medidas tributarias, modifica tanto la Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles como la Norma Foral de Haciendas Locales.

Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren Foru Arauari dagokionez, errepideak, bideak, kaleak, lehorreko gainerako bideak eta espazio libreak, betiere jabari publikokoak eta aprobetxamendu publikokoak zein doakoak badira, ez dira –orain arte bezala– higiezin salbuetsiak izango; aurrerantzean, ez dira zerga horren mende egongo.

En relación con la primera, las carreteras, los caminos, las calles, las demás vías terrestres y los espacios libres, siempre que sean de dominio público y aprovechamiento público y gratuito, dejan de considerarse como inmuebles exentos para pasar a estar no sujetos al impuesto.

Toki Ogasunaren Foru Arauari dagokionez, ondorengoa ezartzen du: udalerriaren zuzenbide publikoko diru-sarreren ikuskapena eta nahitaezko

En cuanto a la segunda, se dispone que las actuaciones en materia de inspección o recaudación ejecutiva que hayan de efectuarse fuera del

diru-bilketari lotutako jarduerak, udalerriaren lurraldetik kanpo egin behar badira, toki-entitateak egingo ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta, gainerako kasuetan, ezarri diren edo aurrerantzean ezarriko diren lankidetza-bideen arabera egingo dira, betiere aplikatu beharreko legediak agindutakoa betez.

territorio del municipio en relación con los ingresos de derecho público propios de éste, serán practicadas por la entidad local en el ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa y, en los restantes supuestos de acuerdo con las fórmulas de colaboración establecidas o que se establezcan, según lo previsto en la legislación aplicable.

2. EAE-KO TOKI-OGASUNEN FINANTZAKETA

2. LA FINANCIACIÓN DE LAS HACIENDAS LOCALES EN EL PAÍS VASCO

2.a. Sarrera. EAEko Toki Ogasunen baliabideak

Txosten honen I. kapituluan Euskal Autonomia Erkidegoak dituen zerga-eskumenak zehaztu dira, baita zerga-sistema osatzen duen zerga bakoitzaren lotura-puntuak ere, Toki Ogasunen esparrua osatzen dutenak bereziki. Hala ere, EAEko udalerrien finantza-sistema aztertzea komeni da, Lurralde erkidean indarrean dagoen sistemarekin lotu behar delako. Era horretara osatuko da txosten honek Euskal Ogasunari buruz eman nahi duen ikuspegi orokorra.

Toki-sektore publikoko finantzen jarduna arautzeko orduan erabiltzen den arau-esparruan Foru Arau hauexek dira oinarri, denak ere, toki-administrazioetako ogasunak arautzekoak: Arabako 41/1989 Foru-araua, Bizkaiko 5/1989 Foru Araua eta Gipuzkoako 11/1989 Foru Araua (Bizkaiak 2005 ekitaldian 9/2005 Foru-araua onartu zuen, nahiz eta 2006ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean). Aipatutako arau horiek autonomia-printzipio eraginkorrak egiteko eta udal-finantzen burujabetasuna lortzeko finantza-sistema bideratzen dute. Ondorioz, toki-sektoreek finantza-tutoretza txikiagoa behar dute gaur egun. Hori bera gertatu da lurralde erkidean ere.

Ekonomia Itunean, 2002koan, 48. artikuluak (lehen 45. artikulua zen) hauxe dio: “Toki-erakundeen eremuan Estatuak une bakoitzean egikaritzen dituen finantza-tutoretzako ahalmenak foru-aldundiei dagozkie; horrek ez du esan nahi, inola ere, EAEko toki-erakundeen autonomia araubide erkidea duten toki-erakundeena baino txikiagoa izango denik”.

Beraz, baterako erantzukizun-sistema ezarri da. Horren bidez, toki-korporazioek beren finantza-baliabideak lortzeko eta erabiltzeko prozesuan parte har dezakete. Era berean, baliabide horien kopurua erabaki eta hura gastatzeko era antolatu dezakete,

2.a. Introducción. Los recursos de las haciendas locales en el País Vasco

En el Capítulo I de este Informe se detallan las competencias del País Vasco en materia tributaria y los puntos de conexión existentes en cada uno de los tributos que configuran el sistema tributario y, en particular, los que integran el área de las Haciendas Locales. No obstante, es interesante analizar el sistema de financiación de los Municipios del País Vasco, relacionándolo con el sistema vigente en Territorio Común y completando la visión de conjunto que este Informe pretende ofrecer sobre la Hacienda Vasca.

El marco normativo de la actividad financiera del sector público local reside en la Norma Foral 41/1989 de Álava, la Norma Foral 5/1989 de Bizkaia y la Norma Foral 11/1989 de Gipuzkoa, reguladoras de las Haciendas Locales (Bizkaia, durante 2005, ha aprobado la Norma Foral 9/2005, si bien sus efectos se extienden desde el 1 de enero de 2006). Estas normas ordenan un sistema financiero encaminado a la efectiva realización de los principios de autonomía y suficiencia financiera municipal, lo que ha supuesto en la práctica una disminución de la tutela financiera sobre el sector local. Disminución que también se ha producido en el ámbito del territorio común.

En el artículo 48 del Concierto 2002 (antes artículo 45) se establece que "las facultades de tutela financiera que en cada momento desempeña el Estado en materia de imposición y ordenación de los tributos y precios públicos de las Entidades Locales corresponderán a las respectivas Diputaciones Forales, sin que ello pueda significar en modo alguno, un nivel de autonomía de las Entidades locales vascas inferior al que tengan las de régimen común".

Se ha establecido, por tanto, un sistema de corresponsabilidad, que permite a las Corporaciones Locales participar en el proceso de obtención y empleo de sus recursos financieros y, en la determinación de su volumen y en la libre

nahi erara.

Toki-ogasunei buruzko foru-arauek tokiko baliabide-sistema ezarri dute. Sistema horrek baliabide-iturri hauek ditu oinarrian:

- Zerga-alorrekoak ez diren baliabideak edo zuzenbide pribatukoak. Toki-erakundeek kredituak eskura ditzakete, inbertsiokoak ez diren gastuak finantzatzeko; esaterako, aurrekontuen likidazioetan izandako defizitak estaltzeko, eta, premiazko eta urgentziazko arrazoiak gertatzen badira, gastu arruntei aurre egiteko. Aurrekontu-aldaketako espedienteen bidez eskura ditzakete kreditu horiek. Halaber, diruzaintzako eragiketak egin ditzakete, ekitaldiaren amaierako dataz haragoko epemugaz. Horrez gain, beste diru-sarrera batzuk lor ditzakete, bai ondarezko edo zuzenbide pribatuko eragiketak eginez, bai haien eskumenpeko isunetatik eta zehapenetatik dirua eskuratuz.

- Zerga-baliabideak. Zerga, tasak eta zerga bereziak ezberdinak direla kontuan hartu eta aldaketarik garrantzitsuenak atal honetan gertatu direla esan behar da. Horrek udalerriak tokiko finantza-sisteman parte hartzera eta horretaz arduratzera bultzatu ditu.

- Hamar zerga zeuden lehen, orain berriz, bost. Horietako bi, hots, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga eta Hiri-lurren Balio-gehitzearen gaineko udal-zerga aukerazkoak dira Udalarentzat. Ondasun Higiezinen gaineko Zergak, Ekonomia-jardueren gaineko Zergak eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gainekoak, berriz, derrigorrezkoak dira; ez dute zerga ezartzeko erabakirik behar, zerga-elementuren bat aldatu nahi ez badute behintzat. Beste kontzeptu bat ere sortu da: prezio publikoa. Tokiko finantza-araubidea dinamizatzea eta hari errealitate ekonomikora egokitzeko ahalmena ematea da kontzeptu horren helburua.

- Zerga itunduetan, itundu gabekoetan eta beste diru-sarrera publikoetan parte hartzea. Toki-erakundeen finantza-kaudimena bermatzen duen mekanismo automatikoa da. Kaudimen hori konstituzio-zuzenbideak eman dio. Osaera materialari dagokionez esan behar da bilketa likidoaren ehuneko bat dela.

organización de su gasto.

Las Normas Forales de Haciendas Locales establecen un sistema de recursos locales basado en tres fuentes de recursos diferentes:

- Recursos no tributarios o de derecho privado. Las Entidades Locales pueden acceder al crédito para los supuestos distintos a la financiación de los gastos de inversión, cuales son la cobertura del déficit en la liquidación de sus presupuestos y la financiación en casos extremos, por razones de necesidad y urgencia, de gastos corrientes por la vía de los expedientes de modificación presupuestaria. Pueden concertar operaciones de tesorería con vencimiento posterior a la fecha de cierre de un ejercicio. Además, podrán obtener otros ingresos procedentes de su patrimonio o de derecho privado, así como de las multas y sanciones en el ámbito de sus competencias.

- Recursos tributarios. En este apartado, partiendo de la distinción entre impuestos, tasas y contribuciones especiales, es donde se han producido los cambios más importantes, favoreciendo la participación y compromiso de los Municipios en el sistema financiero local.

- De los diez impuestos existentes se ha pasado a cinco, teniendo dos de ellos, el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras y el Impuesto Municipal sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, carácter potestativo para el Municipio. Mientras los Impuestos sobre Bienes Inmuebles, sobre Actividades Económicas y sobre Vehículos de Tracción Mecánica son de exacción obligatoria y no necesitan acuerdo de imposición, salvo que deseen modificar alguno de los elementos del Impuesto. Se ha instrumentado también un nuevo concepto, el precio público, con el fin de dotar al régimen financiero local de un mayor dinamismo y capacidad de adaptación a la realidad económica.

- Participación en los tributos concertados, no concertados y demás ingresos públicos. Se configura como un mecanismo automático que garantiza la suficiencia financiera de las Entidades Locales, derivada de su consideración como derecho constitucional. Materialmente está constituida por un porcentaje sobre la recaudación líquida.

-

2.b. Arau orokorrak

EAEko tokiko finantza-sistemaren ildo nagusiak azaroaren 25eko 27/1983 Legean daude jasota, lege hori baita Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoan (LHL).

Arau horren bigarren xedapen gehigarriak arautzen duenez, udalerri guztiek, tokiko inbertsio- eta ekipamendu-premiei erantzun ahal izateko, gutxieneko baliabide-maila bat izan behar dute bermatuta, eta maila hori ez da inoiz ere araubide erkideak ezarritako baliabide-maila baino txikiagoa izango; horrez gainera, Obra eta Zerbitzuen foru-planen aurrekontuko diru-hornidura ere izango dute. Arau horretako 7.a.5 artikuluak dioenez, plan horiek idaztea lurralde historikoen foru-organoei dagokie.

Foru-aldundiei dagozkien esleipen ekonomiko eta finantza-tutoretzaren ereduak bete egiten du argi eta garbi Ekonomia ituneko 48. artikuluan xedatutakoa. Horrenbestez, eredu horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia, batetik, eta foru-organoen eta toki-erakundeen ogasunak, bestetik, elkarren artean erabat artikulatzea. Hori lortzeko, aipatutako erakunde horiek Dirubideen Euskal Kontseiluak (27/1983 Legeak berak sortua) ezarri bezala erabili beharko dituzte irizpideak; hots, EAEko erakunde erkideek aurrekontu-prozedura eta kontabilitate publikoan (Bigarren Xedapen Gehigarria, 3.1) erabilitako irizpide berdinak erabili beharko dituzte.

Era berean, toki-erakundeek itundu nahi dituzten urtebetetik gorako kreditu-eragiketak lurralde historikoenekin eta Autonomia Erkidegoaren zorpetze-politikarekin koordinatu eta harmonizatuko dira, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren baitan (Bigarren Xedapen Gehigarria, 3.2).

Arauak ez du, hertsiki, tokiko finantza-sistema sortu, aitzitik, udal-eremura zabaldu ditu foru-erakundeen eta erakunde erkideen finantza-irizpide orokorrak. Irizpide horiek Dirubideen Euskal Kontseiluak erabaki behar ditu.

Urriaren 4ko 6/2002 Legearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundiek 2002-2006 aldian egingo dituzten ekarpenak zehazterakoan erabiliko den metodologia onartu zen; honako hau ezartzen du laugarren xedapen gehigarriaren 1. atalean: Lurralde historikoetako foru-erakundeak, Ekonomia Itunean eta azaroaren 25eko 27/1983 Legean onartuta

2.b. Normativa general

Las líneas generales del sistema de financiación local en el País Vasco se hallan contenidas en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos (LTH).

